



2012-10-01  
ASTELEHENA  
379. ZENBAKIA  
9. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

## Jaitsi da Txantxikua Oñatira

San Migelak indartsu estreinatu dituzte | 12



Txantxikua jaisten. | JON BEREZIBAR

Urriaren 18tik 21era izango da aurtengo txotxongiloen mostra | 17



Leixargarateko aterpetxe berriua, mendizaleen zain | 10



675 argazkiren artean, lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte | 31



## Ukitu, hartu eta jan; txikiak ere ohituretan errotuz

Nekazaritza ekologikoaren XVIII. azoka eta artisauen feria eskola paregabea dira Aretxabaletan arbasoen ohiturak ikasi eta berpizteko | 11

Neska-mutikoak, baserritar jantzita, produktu ekologikoen azokan, zapatuan, Aretxabaletako San Migel jaietan.

JULIO CALLEJA

# Aspalditik datoz ikastetxeek jasaten diharduten 'beherapenak'

Espainiako Gobernuak Hezkuntza erreforma egiten dabil, baina murrizketa asko indarrean daude urte batzuetatik hona. Publiko zein kontzertatu, haur zein batxilergo edo unibertsitate zein lanbide heziketako zentroek, denek igarri dute hori; eta hezkuntzako langileek zein familiek, biek. | 2

### Udalbatzaren erabateko babesa Idoiagari

Mozio bateratua aurkeztu dute Bilduk eta EAJk Oñatin | 18

### Bolinaga eta Rezusta Munduko Txapelketara

Tarbesen jokatu dute txapelketa, urriaren 28tik | 26

### UDAK eta Aloñak bana berdindu zuten, derbi batek izan ohi dituen osagai guztiekin | 22

**%10** eko  
deskontua



► Zoaz 21. orrialdera.

# Ikastetxeek jasaten dituzten 'beherapenak' aspalditik datoz

Espainiako Gobernuak Hezkuntza erreforma egiten dabil, baina murrizketa asko indarrean daude

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE  
Aurreikuspenak betetzen badira, 2013ko irailean hasiko den ikasturtean aplikatuko da lehenengo aldiz Hezkuntza lege berria. Irailaren 21ean, Hezkuntza ministro Jose Ignacio Wert-ek prestatutako hezkuntza legea aldatzeko lege organikoaren aurreproiektua eztabaidatu zuen Espainiako Ministroen Batzordeak. Lege horrek gaur egun indarrean dagoen eta Jose Luis Rodríguez Zapateroren gobernuak egin zuen Hezkuntza Lege Organikoa (LOE) aldatzen du hainbat artikulutan. LOE arabera funtzionatzen dute ikastetxeek 2006/07 ikasturtea ezker. Aznarren gobernuak 2001ean egindako Unibertsitateen Lege Organikoa (LOU) ere aldatzen du.

Erreformatik ohiko bidea jarraitzen badu -Espainiako Gorteek eztabaidatu eta onartu behar dute-, datorren ikasturterako gertu izango da hezkuntza araudi berria. Ikusi beharko da Euskal Autonomia Erkidegoan nola aplikatzen den, eta ikastetxe mota bati eta besteari nola eragiten dion, baina neurri batzuk Eusko Jaurlaritzak ezberrik gabe ezarri beharko ditu. Bestalde, batik bat Jaurlaritzak zuzenean kontrolatzen dituen ikastetxeetan -eskola publiko-igarriko da erreforma, baina kontzertatuetan ere puntu garrantzitsuenak aplikatu egin beharko dira. Izan ere, Wert-en helburua da 3.000.000.000 euro aurrezte.

Aurreproiektuak hainbat aldaketa dakartza gaurko egoerarekiko, eta horietatik nagusiak jakinarazi dira: besteak beste, ikasgela bakoitzean ikasle gehiago izango dira (ratioa deitzen zaiona), irakasleek lan ordu gehiago egin beharko dituzte, eta irakasleak ordez-

katzeko gutxieneko epea luza-tu egingo da.

Murrizketa gehienak ikastetxeen antolakuntzari dagozkio. Baina curriculumean, ikastetxe guztiek eman beharreko edukietan, ere izango dira aldaketak nahi ditu Wert-ek. Izan ere, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren ikasgaien kasuan, Espainiako Gobernuak ezartzen du ikasleek derri- gorrez bereganatu behar dituzten kompetentzien %55, eta Eusko Jaurlaritzak, gainerako %45ak; bada, datorren ikasturte- tik aurrera, portzentajeak %65 eta %35 izango dira, hurrenez

hurren. Curriculumarekin lotu- ta, Wert-ek iragarri du Hizkuntza, Matematikak, Zientziak eta Hizkuntzak indartu egingo ditue- la; "hizkuntza guztiak, koofizial- lak eta komuna", esan zuen.

## Onartu beharreko neurriak

Etorriko diren murrizketen zain, baina, urte batzuetatik hona gauzak dezentek aldatu dira dagoene- ko, eta txarrerako. Publiko zein kontzertatu, haur zein batxilergo edo unibertsitate zein lanbide heziketako zentroek, denek igarri dute hori; eta hezkuntzako langileek zein familiek, biek. Aurten bertan, ikasturtea hasi eta segituan izan dituzte hizpide murriz- keta berriak Baikanan, Euskadi- ko eskola publikoko gurasoen elkartean. Hauek dira aipaga- rrienak: jangelako kuota 4 euro- tik 4,60ra pasa da, ikasturtean 114 euro gehiago eguneroko erabi- tzen duen ikasle bakoitzeko; tes- tu-liburuen mailegu sistema atzeratu egin da eta aurten ez dira liburuak berrituko, lau urtean behin egin beharko litzatekeen bezala; ratioak handitu egin dituz- te, bai ikasgeletan bai jangelan ere; behar bereziko hezitzaileak, hizkuntza-errefortzukoak... 80 bat gutxiago dira, baina ikasleak, gehiago; autobus zerbitzu batzuk kendu egin dituzte; eta ikastetxe handietan, arratsaldeetako kon- tserje zerbitzua kendu dute.

Horrez gain, guraso elkar- teendako dirulaguntzei %10a kendu diote -dirulaguntzak ema- ten dituzten administrazio guz- tiek-; eta uztailen, eskolako materialaren BEZa %4tik %21e- ra igo zuten.

Baikarako presidentek, Ima- nol Zubizarreta eskoriatzarrak, erlatibizatu egin du Hezkuntzak ezarritako murrizketen larritasuna: "Gu beti murrizketen aurka gaude, baina, gauden egoeran, guraso gehienek logikotzat hartzen

## ESANAK

**"Murrizketen aurka gaude, baina logikotzat hartzen ditugu Baikarakook"**

IMANOL ZUBIZARRETA  
GURASO ELKARTEKO PRESIDENTEA

**"Programa batzuetan, %50 txikitu digute aurrekontua"**

JUANCAR OLAETA  
ELKAR HEZIKO ZUZENDARIA

**"Langileek ahalegin handia egin dute inor soberan gera ez zedin"**

JOSE LUIS SUKIA  
IKASTOLEN ELKARTEKO ORDEZKARIA



Mutikoa, mahaira jesarrita, idazten. | LELAND FRANCISCO

dituzte". Izan ere, "murrizketak dira, bai, baina hezkuntzan ez dute eragin zuzenik. Horregatik, akaso hauek onartu behar ditugu, beste arloa ukitu ez dezaten". Eta gaineratzen du: "Gurasoen artean beti dago honako eztabaida: zer nahiago dugu, ratioetan-eta murrizketak, ala beste zerbitzuetan?"

## DATUAK

**4,60**  
EURO

Jangelako menua 4,60 euro kostatzen da; ikasturte bukaeran, iaz baino 114 euro gehiago.

**282**  
MILIOI EURO

2009/10 ikasturteetik hona, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 282 milioi gutxiago inbertitu ditu.

**3.044**  
IRAKASLE LANPOSTU

Jaurlaritzarekin hitzartutako 5.100 postuetatik 3.044 ez dira oposaketara atera.

## Sistema, "hankaz gora"

Imanol Zubizarretak kezka handi-agoa agertzen du beste neurri batzuen inguruan: adibidez, datorren ikasturterako iragarri diren curriculum aldaketak; eta baita gurasoen zuzenean eragiten dien beste neurri bat ere: "Gurasoek eskola kontseiluan ahalmena galduko dugu. Orain, hainbat erabaki-egutegia, urteko plana...-eskola kontseiluan onartzen dira, eta kideen erdiak gurasoak gara. Erreformatarekin, erabakiak beste batzuek hartuko dituzte, eta eskola kontseiluari bakarrik jakinarazpen gisa esango diote. Hori kalte handia da guretako". Horregatik, Zubizarretaren iritziz, "badaude daukagun hezkuntza sistema hankaz gora jartzen duten gauza batzuk".

Beste hau ere azpimarratzen du: "Normalean, horrelako legeak onartu aurretik hezkuntza komunitate barruan eztabaida egoten da. Baina orain, ez: uztailen Ministerioaren web orrian zintzilikatu zituzten oinarri batzuk, norberak aportazioa bidal zezan. Ez da eztabaidarik egon ea aldaketa horiek egokiak diren edo ez. Udaberrirako, seguru asko, onartuta egongo da erreforma".

Goi mailako hezkuntzak ere jasan du azken urteotako artazikada, Miguel Altuna institutuko ikasleak, Pedro Muruak baieztatzen digunez: "Diru-sarrerak txikiagoak dira orain. Aurten, talde kopuru mugatua ipini digute, eta ez dugu talde gehiago sortzeko aukerarik".



## Erreformaren puntu batzuk

### ZENTRALIZAZIOA

Espainiako Gobernuak kontrol handiagoa izango du, erkidegoen kaltetan. EAren kasuan, curriculumaren zati handiagoa erabakiko du.

### LAU ERREBALIDA

Azterketak izango dira Lehen Hezkuntza, LHko 3. maila, DBH eta Batxilergoa bukatzerakoan.

### SEXUKA BANANDUTA

Ikasleak sexuka banantzen dituzten ikastetxeekin itunak egin ahal izango dituzte erkidegoek.

### GAZTELANIA

Hizkuntzak, Matematika eta Zientzia indartuko dira, eta, EAren kasuan, gaztelania.

### BOST AUKERA

Batxilergoak bost lerro izango ditu: Zientziak eta Ingeniaritza, Osasun Zientziak, Humanitateak, Arteak eta Gizarte Zientziak. Selektibitatearen ordezko proba bat gainditu beharko da, eta horren notak %40 balioko du.

### Kontzertatuetan ere, mozketak

Oñatiko Elkar-Hezi ikastetxe kontzertatua da, Kristau Eskolako partaidea. Zuzendariak, Juan-car Olaetak, ez du zalantzarik: "Azken urteotan, Hezkuntza Sailak esaten du ez duela ezer murriztu; bada, hori ez da egia. Gainera, kontzertatuon kasuan, handiagoak izan dira. Soldaten murrizketa lehendik gertatu zen, eta aurrean, itunaren bidez finantzaketa lortzeko irizpide batzuk dezente gogortu dituzte". Olaetak dioenez, "ikastetxe bakoitzari, bere egituraren arabera, modu batera edo bestera eragin dio; baina, guztietan, murrizteko".

Programetan ere igarri dute, eta asko, gainera, Olaetak dioenez: "Euskararen normalizaziorako, eskolan IKTak ezartzeko... horrelako programak dauzkagu. Bada, kasu batzuetan, aurrekontua %50 txikitu da. Euskara planak egi-

teko-eta, gure ikastetxeetan %38koa izan da murrizketa".

Etorriko den erreformaren gainean, Olaetaren iritziz, "ikusitako egin beharko da oraingo hautakundeetan iritien den gobernuak ze jarrera duen; oso garrantzitsua izango da hori".

### 0-3 urteko etapan, murrizketa

Ikastolendako ere, "ukaezina" da murrizketak izan direla, Ikastolen Elkarteko ordezkari Jose Luis Sukiak dioskunez. Dena dela, "beldur handiena" ematen zien murrizketa, irakasle goarena, salbatu ahal izan dute aurrean: "Kontzertuko irizpideak gogortu egin dituzte azken urte hauetan, eta horrek gela gutxiago izatea ekarri du. Pertsonal aldetik ere, soberan izango genituen beldur ginen. Bueno; azkenean, gure artean moldatu gara eta ez da soberakinik egon". Gaineratzen

duenez, "gauza berdinak baliabide berberekin, baina diru gutxiagorekin egin behar izateak ekarri du lan hori langileen artean banatu behar izatea. Eta eskertzekoa da langileak egoerarekin konturatu direla eta ahalegin handia egiten ari direla".

Beste jaiste garrantzitsu bat ere izan dute ikastolek: "Batez ere, 0 eta 3 urte arteko etaparen finantzaketan, azken bi urte hauetan %30etik gorako murrizketa egon da, eta horrek suposatzen du, alde batetik, etapa horretan kuotak igo beharra eta, bestetik, lantaldea estuago ibili behar izatea".

Gainerako neurriez, hau dio: "Heziketa bereziko laguntzaileetan, hor murrizketa handia egon da; etorkinen tratamendurako, euskararen erabilpenerako, Ulibarri programan ere bai, baina eragina ez da ikaragarria izan eta zerbitzua berdin eman dugu".

### Oposaketak, bertan behera

Murrizketak datutan islatzen ditu ELAko Irakaskuntza arduradunak, Xabier Irastortzak: horien arabera, oraingo Eusko Jaurlaritzak "bere kabuz" hasi zituen murrizketak 2010eko ekainean, hezkuntza langileendako lan-baldintzak gogortu zituenean. Gainera, "2010/11 ikasturtean, 5.000 ikasle gehiagorendako, 200 langile gutxiago kontratatatu zituen; 2011/12an, 8.000 ikasle gehiagorendako, 200 bakarrik kontratatatu zituen; eta aurrean, 7.000 ikasle gehiagorendako, 150 langile gutxiago. Bestalde, ordezkapen asko ez dira egin". Aurrekontuak ere halakoak izan dira: 2009a ezkerreko, 282 milioi gutxiago inbertitu ditu Hezkuntza Sailak. Horrez gain, Jaurlaritzarekin Mahai Orokorrean adostu zituzten 5.100 postuetatik, 3.044 ez dira lehiaketara atera.

Datorren erreformaren gainean, alderdi larrietariko bat, ELAren iritziz, "tresna publiko bat enpresen esanetara jartzea" da: "Espainiako Gobernuaren esanetan, hezkuntza ekonomia-aren eta enpresen beharretara moldatu behar da, *enplegarritasuna* hobetzeko eta horren baitan aldatzen da DBHko 4. ikasturtea, moldatu nahi da Lanbide Heziketa eta sortzen da *prestakuntza eta ikasketak kontratatu*."

ELAren ustetan, "onartezina da ekonomia birmoldatzeko eta enplegua sortzeko inolako neurririk ez bultzatzea edo kontrako norantzan doazen neurriak hartzea, eta honen aitzakiatan hezkuntza merkatuaren eta enpresen zerbitzura jartzea, hezkuntzaren helburu beharko luken pertsonaren eta jendartearen garapena guztiz perbertituz".

# EKO GUNE



GOIENA TELEBISTA | EKO GUNE

EGUAZTENERO, 22:00 | JULEN IRIONDOK AURKEZTUA

# Atez atekoaren "zorakeria" geratzeko eskatu du EAJk

EAJko ibarreko hautetsiek salatu dute zazpi milioi euro bideratu dituela Mankomunitateak atez atekoa ezartzeko, "inongo planifikaziorik gabe"

GOIENA | DEBAGOIENA

"Daukagun indar guztiarekin zera eskatu nahi dugu: gera dezatela zorakeria hori. Gipuzkoar guztiarekin elkarbanatu nahi dugu Debagoiengan gertatzen ari dena; gure ondoren, Bilduk gobernaturako beste herri batzuen txanda izango da-eta".

Berba horiek erabili dituzte Arrasate, Bergara, Oñati, Antzuloa, Aretxabaleta, Elgeta eta Eskoriatzako hautetsiek atez ateko zabor bilketa ezartzeko Debagoieneko Mankomunitateak hartutako azken neurriak salatzeke. Donostiako EAJren egoitzan prentsurrekoa egin zuten egubakoitzean.

## Lehiaketa publikoa abian

Jakinarazi dutenez, Mankomunitateak onartu du atez ateko bilketa martxan jartzeko zerbitzuak lehiaketa publikora ateratzea. Sistema hori eskualde oso batean zabaltzeko lehen saiakera da hori, eta horrek 60.000 gipuzkoarri eragingo die. "Mankomunitateak zazpi milioi inbertituko

ditu gai horretan, baina ez dakigu zertarako erabiliko dituzten", azpimarratu dute, "Bilduko arduradunek ez baitakite zenbat kostatuko zaien, ez daukate errealtatean oinarritutako aurreikuspenik", gaineratu dute.

"Badakite Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Antzuolako modeloak ez direla bideragarriak. Oso garesti irteten zaie eta, kostuak murrizteko, bilketarako posteak isletan jartzea nahi dute. Zenbat eta poste gehiago isla batean, orduan eta hobeto. Hori al da atez atekoa?", galdetu dute EAJren ordezkariak.

## Planifikazio falta

Hala, "planifikazio serio baten falta" salatu dute. Uste dute Bilduren jokabidea "arduragabeheria hutsa" dela, eta "egoera ekonomikoa kontuan izanda, gainera, langabeziari aurre egitea" izan beharko lukeela eskualdeko arduradunen konpromiso nagusia.

Azaldu dutenez, urtarrilaren 21ean hasiko dira Oñati eta Bergaran atez atekoa ezartzeko lanak

eta lau hilabete "eskas" geratzen badira ere, "Bilduko udal arduradunek informazioa ezkututzen jarraitzen dute": "Ez herritarrek, ez hautetsiek, ez dakigu zenbat kostatuko den, nola eragingo duen herriko zergetan, zenbat zorpetuko den Mankomunitatea, nola ezarriko duten gure herrietako gune babestuetan".

## Sinadura ugari kontra

Gogora ekarri dute atez atekoaren kontra 5.622 sinadura jaso dituztela gurean, "hautesle eroldaren %55 dagoeneko". Salatu dute "gizartearen borondatearen aurka sistema hori inposatzen" ari dela Bildu. "Horren aurrean hiritarrek nahi dute eguneroko bizitzan oztoporik ez edukitzea, zerga altuagorik ez ordaintzea zaborrengatik, eta hondakin bakoitza bere edukiontzietan utzi ahal izatea", argitu dute.

Testuinguru horretan, bosgarren edukiontzia bultzatzeko eta herritarrentzako informazioa biltsen jarraitzeko konpromisoa berri dute EAJko hautetsiek.

Jesus Markaide | Deba Garaia higiezin agentzia

## "Duten etxebizitza ona dela uste dutenek, erostea erabaki beharko lukete"

Azarora arte Jaurlaritzak aukera ematen du babes ofizialeko etxebizitzaren lurzorua erosteko

UBANE MADERA | ARRASATE

Egubakoitzean eta atzo, domeka, babes ofizialeko etxebizitzaren lurzorua erosteko aukeraren gaineko hitzaldiak egin ditu Jesus Markaidek Bergaran eta Eskoriatzan; gaur, astelehena, Arrasaten du hitzordua.

### Zein da eskaintza?

Babes ofizialeko etxebizitzaren lurzorua erostea. Gaur egun, etxeon erabiltzaileak ugazabak dira 75 urtera arte. Berezko jabea, baina, Jaurlaritza da, eta behin 75 urteok pasatuta, Jaurlaritza da erabateko jabea. Ez dakigu orduan zer gertatuko litzatekeen; eta neurri honen bidez, Jaurlaritzak aukera ematen du lurzorua erosi eta betiko ugazabak izateko. Prezioa da, normalean, 12.000-18.000 euro artean. Badaukanak guztia batera ordain dezake; eta bestela



Jesus Markaide. | U.M.

kreditua eskatu. Jaurlaritzak hitzarmena du banketxe batzuekin horretarako. Bestalde, errenta aitortpenean %15a berreskuratzeke izango litzateke.

### Engungo egoeran merezi du?

Prezioa ona da; urteotan lurzoruaren balioa 5-10 bider garestiagoa da. Eta inbertsio modura, berriz, urtero %6-8ko errentagarritasuna dauka.

## Ekintzaileen lantegiak egingo dituzte Garaia Berrikuntza Gunean, urriaren 9, 16 eta 23an

Teknologia, osasun, komunikazio, tele-itzulpengintza eta bestelako alorretako ekintzaileek euren esperientziak partekatu eta ekintzailetasuna bultzatzeko lantegiak egingo dituzte Arrasaten datozen hiru martitzenetan. Unibertsitateko ikasle, langabe, teknologia zentro... eta oro har, negozioren bat abiarazteko interesa duen edozeini zuzenduta daude lantegiok. Helburua da enpresen sorkuntza eta ekintzailetasuna bultzatu.



Aintzane Oiartzabal, Debagoieneko EAJko hautetsiak atzean dituela, EAJren Donostiako egoitzan. | EAJ

## Gabonetako aparteko paga erdira jaisteko aukera aztertzen dabil Eroski

U.M. | ARRASATE

Egoera ekonomikoaren eraginez eman den kontsumo jaitsiera orokorraren aurrean, Eroski aztertzen dabil Gabonetako aparteko paga erdira jaisteko aukera. Edozelan ere, 41.000 langilek jarduten du Eroski kooperatiban, eta 8.400 bazkideri eragingo lieke neurri horrek.

Eroskiko iturriek GOIENARI esandakoaren arabera, azaroan hartuko dute erabakia.

### Eroskiren sarea

Eroskiren sare komertzialean 103 hipermerkatu daude, 974 supermerkatu, 60 gasolindegia, 19 cash-carry, Eroski Bidaien 197 bulego, 37 Forum Sport kirol

denda, 278 If perfumaria eta 4 Abac aisia eta kultura denda; horiei 32 plataforma logistiko gehitu behar zaizkie. Eta era berean, sare horri guztiorri 499 autozerbitzu frankiziadun gehitu behar zaizkie. Andorran, berriz, 4 If perfumaria ditu. Hala ere, Eroskiren aurreikuspena da ekitaldi honetan 60 denda irekitzea, 15 milioiko inbertsioa eginda.

Dagoeneko zabaldutakoan artean, berriz, Eskoriatzan 531 metro koadroko frankizia aipa daiteke.



## PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALAK

URRIA - EKAINA

ASTELEHENETAN / Hasiera: urriak 8

1. maila: 17.00 - 18.30

2. maila: 18.30 - 20.00

Dantza-txokoa: 20.00 - 21.30

### IZENA EMATEA

AED: 943 77 12 28 / aed@aedelkartea.com

GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65

gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

# Gizarte politikari lehentasuna eman gura diote Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetan

Herritarren ekarpenak entzunda, 2013ko aurrekontuak zehaztuko dituzte urrian zehar

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Martin Garitano Ahaldun Nagusia Arrasateko Kulturaten egon zen joan den eguenean. Foru Aldundia 2013ko aurrekontuak prestatzen ari dela eta, herritarren proposamenak jasotzen ari dira justu, Gipuzkoako eskualde ezberdinetan *Herritarrekin* egitasmoaren bidez.

## Gizarte politika

Ibarreko 40 lagun inguruk bat egin zuten Kulturateko hitzorduarekin. Eta bertan bi lantalde osatu zituzten: bata gizarte politika gaia landu zuen bitartean, garapen ekonomikoa eta fiskalitatea izan zituen hizpide bestek. Bi orduan aritu ziren egiteko horretan.

Martin Garitanok azaldu zenez, politika sozialari lehentasuna ematen jarraitu gura diotela aukeratu zuten gai hori lantzea: "Aurrekontuaren erdia baino gehiago politika sozialari bideratzen zaio urtero eta krisian



Gizarte politika eta garapen ekonomikoa eta fiskalitatea gaiak landu zituzten taldeetan. | Z.V.D.M.

egon arren, horrela izaten jarraitu dezan nahi dugu".

## Gutxieneko ongizatea

Diputatu nagusiak gaineratu zuen oraingo egoera ekonomikoa dela eta, geroago eta jende gehia-

go dagoela laguntza behar, eta Foru Aldunditik gutxieneko ongizatea bermatuko dutela. "Horretarako, baina, fiskalitate garbi eta txukuna funtsezkoa izango da", azpimarratu zuen bergararrak.

## Egoera makillatu barik

Edozelan ere, aurrekontuak txikituz doazela ere adierazi zuen Garitanok: "Ez dugu egoera makillatu nahi, jendeak jakin behar du urtetik urtera diru gutxiago daukagula gure proiektuak egi-

karitzeko". Muga batzuk daudela jakinda, eguenean jasotako galdera eta proposamenak, urritik aurrera landuko duten aurrekonturako "ahal den neurrian" aintzat hartuko dituztela gaineratu zuen.

## Parte-hartzailea izan guran

Berritzailea da Gipuzkoako Diputazioaren ekimen parte-hartzaile hau. Diputatu Nagusiak berak adierazi duenez, aurreko urtean ezin izan zuten horrelako ekimenik aurrera eraman. Hori bai, gogorarazi zuen *Kontuak Garbi* ekimenarekin etorri zirela iaz debagoiendarrekin egotera, baina kasu hartan, aurrekontua eginda zegoela. Orain aldiz, lan egiteko modu parte-hartzaileago bat bilatu gura izan dute, herritarren iradokizunak entzun eta horiei jarraituz 2013ko aurrekontuak osatu gura dituzte-eta.

Martin Garitano diputatu nagusiarekin batera, Itziar Miner Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusia, Maria del Rio Langintzako, inbertsioetako eta prestazio ekonomikoetako zuzendari nagusia, Arantza Ruiz de Larrinaga Herritarren Partaide-tzarako foru zuzendaria eta Ander Rodríguez Gizarte Politikako diputatua ere izan ziren Arrasateko hitzorduan.

# Hasi dira e-Rezeta erabiltzen gurean: Oñatin egin zuten estreinaldia, eguenean

Gure probintzian, oñatiarrak izan dira errezeta elektronikoa erabiltzen lehenak

GOIENA | DEBAGOIENA

Eguena ohi baino egun korapilatsuagoa izan zuten Oñatiko farmazialariek, e-Rezetaren Gipuzkoako estreinaldia bertan egin zutelako.

Berez, uztailean eman zitzaion hasiera e-Rezetaren edo errezeta elektronikoen ezarpenaren lehen faseari Bizkaian eta Araban, eta joan den eguenean abiarazi dute gurean, Oñatin, esandako moduan. Eguenetik, beraz, papezko errezetaren orde, osasun txartel berria aurkeztu beharko dute herritarrek farmazian.

Miguel Garate Oñatiko botikariaren esanetan, sistema honek gauzak samurrago ipiniko dizkio erabiltzeari: norbaitek istripu bat izaten badu, adibidez, ospitaleratzen dutenean bere historial guztia izango dute eskura txartel elektronikoen bitartez; edo gaixoren batek alergiaren bat badu, botikariak jakinean egongo dira. Baina, batez ere, gaixo kronikoei aterako diote etekina sistema berriari.

Behin e-Rezeta estreinatuta, asmoa da, beranduenera jota, datorren urte hasierarako Erki-dego osora zabaltzea.



Miguel Garate, osasun txartela erakusten. | GOIATZ ARANA

## Santa Feko (AEB) bisitariak Oñatira etorriko dira

Etzi, eguaztena, Ameriketako Estatu Batuetako bisitariak izango ditugu gure ibarrean, zehazki, Oñatin.

New Mexikoko Santa Fe hiriko 30 lagunetik gorako taldea etorriko dela iragarri dute. Euren artean, gainera, Santa Fe hiriko Museo de Historia de Nuevo Mexico erakundeko zuzendaria ere izango da.

Etziko bisita horrek arrazo historikoa dauka. Hain justu ere, Santa Fe hiria Juan de Oñatek sortu zuen (Cristobal de Oñateren ondorengoa da bera).

Eguaztenean, 10:00etan egingo diete harrera bisitariei Oñatiko Udaletxean, eta besteak beste, horren ostean bisita gidatua egingo dute Oñatiko Turismo Bulegoko adituen laguntzarekin.

**LENIZ**  
ESKORIATZA



## KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Josu Lizarralde | Mankomunitateko Garapen Agentziako batzordeburua

# "Egoera latzari erantzun estrukturala ematen ahaleginduko gara"

- ▶ Eskualdeko Enplegu Plana egiten hasi dira
- ▶ Eskualdeko 15 eragile sozioekonomikok dihardute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eskualdeko Enplegu Plana egiteko lehenengo foroa egin zuten eguenean. Garapen Agentziako batzorde buruak, Josu Lizarralde, Miren Arregiren galderak erantzun zituen *Magazinea*-n. **Eskualdeko enplegu plana, zertarako?**

Debagoienaren diagnostiko sozioekonomikoari aurre egiteko. Lehenengo enplegu plan lokalei eskualdeko dimentsioa eman die Lanbidek, eta zenbait eragileren artean Debagoienaren izenean ze ekintza nahi ditugun aurkeztu behar dugu.

Dena dela, aitzakia horretaz baliatu gara lehenengo aldiz eragile horiek elkartzeko, eta garbi esan diegu foroarekin jarraitu gura dugula. Lehenengo deialdi honetara, 15 eragileren mugatu gara, dekretuak hala esaten zuelako, baina ateak zabalik ditugu kanpoan geratu diren eragile sozio-ekonomikoendako. Oraingoan, hauek batu gara: unibertsitateak, MU eta UNED; sindikatuak, ELA eta LAB; Mondragon Korporazioa eta Adeg; Lanbide Heziketako bi lerroak, kontzer-

tatuak eta Ikaslanen ingurukoak; bazterketa arriskuan daudenekin lan egiten duten enpresen ordezkari bat; Saiolan; ikerketa eremutik, MIK; merkatarien elkarrekin ordezkari bat; 1. sektoretik, Deba-Garaiako bat; Lanbideren ordezkari bat; eta emakume taldeen ordezkari bat, emakumeak direlako diagnostikoaren araberako okerren geratzen direnak.

**Aurrean bat badago, hortaz...**

Bai. Udal enplegu teknikariek, Mankomunitateko Garapen Agentziako teknikari buruarekin batera, hainbat ataletan –demografia, langabezia, gizarte zerbitzuak...– diagnostikoa egin dute, herriak eta eskualdea zelan dauden. Emaitzak ez dira onak, eta plan hori erabili behar dugu horri buelta emateko.

**"Debagoieneko diagnostikoak langabezian ditu datu txarrenak"**

**Ze ondorio ditu diagnostiko horrek, bada?**

Demografia aldetik, ez goaz beharrentz, baina kezkatzekoa da zahartze maila: 65 urtetik gorakoak dira biztanleen %20,38, eta 75 urtetik gorakoak, %10,52. Tasa oso altuak dira eta, gainera, gorantz joango dira. Bestalde, 65 urtetik gorakoak eta 16 urtetik beherakoak %51 dira. Datu horiek kezkatzekoak dira. Bestalde, ekimen berrietarako aukera ere izan daiteke.

Langabezian daude datu okerrak. Langabezia tasa %40,43 da, Gipuzkoan baino txikiagoa, baina hala ere gerturatzen gabiltza 2009ko datu txarretara. Kezkatzekoa da ere 45 urtetik gorakoak direla langabeen %41; gizonezkoen %65ek eta emakumezkoen %47k oinarritzko ikasketak bakarrik ditu; eta %37k urte bat baino gehiago daroate langabezian. Gainera, langabe horietatik %52k dagoeneko ez dute lan-prestaziorik kobratzen.

Panorama latza da, eta foroaren eginkizuna erantzun estrukturala ematea da.



Josu Lizarralde, Goiena telebistan. | MIREN ARREGI

**Diagnostikoaren bueltan ibili zarete lehenengo saioan, hortaz.**

Hori da. Alde batetik, teknikariek diagnostia aurkeztu dute. Bestetik, gure ehun industriala aztertzen dabil Saiolan. Labur esanda, gaur egun eskualdean ze gaitasun

menderatzen dugun aztertuko dute. Historikoki, industria jakin batek menderatu du hemengo ekonomia, baina industria traktore horiek heldutasun mailan daude, horien aktibitatea jaisten dabil, eta beste industria osagarri asko larri daude. Mapa zein den ikusi behar dugu, nora aldatu daitekeen ikusteko: teknologia berriak, produktu berriak... baina gaur dugunetik abiatuta. Garapen ekonomiko endogenoa deitzen zaio horri, bertan menderatzen diren gaitasunetan eta egin izandakoetan oinarritzen dena.

**"45 urtetik gorakoak dira dagoeneko langabeen %41"**

## Elkartasuna, herrien arteko goxotasuna!

Arrasateko lau boluntariok Brasilgo MST mugimenduarekin jardun dute

L.K. | ARRASATE

Eduarne Idigoras (Eskoriatza), Raul Gonzalez (Aretxabaleta) eta Antton Sagasta (Arrasate) LKSko auditoreak eta Ainhoa Zeziaga (Arrasate) Mondragon Taldeko langilea (MCC) Mundukide-Lankik Brasilgo Movimento do Trabalhadores Sem

Terra (MST) mugimenduarekin duten lankidetzaren programan boluntario lanetan aritu dira abuztuaren.

MSTko pertsonak bizi diren kokalekuetako negozioen gestioa eta antolakuntza prozesuak hobetzea eta langileen kudeaketa gaitasunak aberastea da

programa horren helburu nagusia. Kreditu eta aurrezki kutxa, esnea hozteko planta, supermerkatua, okindegia eta etxe-erakuntza, e.a.

**Parte-hartze zabala**

Anttonek eta Eduarnekin programa osoko diru-kontuen azterketa

egin dute, alde batetik prozedurak eta bestetik 2011ko urtariletik 2012ko ekainera arteko kontabilitate-erregistroak aztertuz. Aurkeztu duten azken txostenean, ebaluaketa orokorra eta antzemandako hutsuneak azpimarratu dituzte.

Ainhoa eta Raulek, berriz, merkatuen gestio esparruan egin dute ekarpena, lanak bitan bereiziaz: merkatu programan erabiltzen den gestio erremintaren azterketa, alde batetik; eta, bestetik, merkatuko gestio kontrolaren inguruko oinarritzko kurtsoaren diseinua eta partekatze lana.

Kurtsoa merkatuarekin lanean ari diren pertsonen zuzendutakoa izan bada ere, beste sektore batzuetako langileek ere parte hartu zuten. Kurtsoak alde teorikoa eta praktikoa izan zituen, eta parte-hartzea zabala izan zen.

Merkatuaren inguruan egingako lan guztia Fran Aller Eroskiko bazkidearekin elkarlanean izan da. Fran urte baterako liberatu du Eroskik, MSTko merkatuen inguruko hobekuntza lanetan aritzeko.

## Udalen eta Lanbideren elkarlan akordio berria

L.K. | ARRASATE

Bihar, martitzena, aurkeztuko du Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Lanbidekin udaletako gizarte zerbitzuak egin duen elkarlan akordioa. Helburu bikoitza du horrek: gutxieneko errenta (RGI) kobratzen dutenak eta baliabiderik gabeko herriarrak gizartearen eta lan-merkatuan sartzea.

Formula horren bitartez, Lanbideko orientatzaileek udal zerbitzuetara bideratu ahal izango ditu horien beharra duten enplegu-eskatzaileak. Udal zerbitzuek eta Lanbidek informazioa elkarrekin trukatu ahal izango dute ere.

Gemma Zabaleta sailburuaren esanetan, hitzarmen horrek erakundearen arteko bikoizketak kenduko ditu.



Antton, Ainhoa, Ana, Lucio, Eduarne, Raul eta Andres, Brasilen. | MUNDUKIDE

Arrate Illano | Mintzapraktika egitasmoetako arduraduna

# "Maitasuna adierazi nahi diegu euskarara hurbildu diren horiei"

- ▶ Aurtengo Mintzapraktika egitasmoan izena emateko epea zabaldu du Topaguneak
- ▶ 5.000 lagun dabilta mintzapraktika programetan, 65 herri eta eskualdetan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Asteon aurkeztu dute Mintzapraktika egitasmoa *Ireki bihotza mintzalagunentzat* lelopean. Arrate Illaro Topaguneko Mintzapraktika egitasmoetako arduraduna da, eta hark azaldu digu egitasmoaren helburua eta martxan jartzearen garrantzia.

**Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea.**

Bai, urrian zehar dago zabalik mintzapraktiketan izena emateko epea.

**Zer da mintzalagun egitasmoa?**

Euskaraz hitz egin nahi dutenen gunea da. Alde batetik, euskaraz gehiago hitz egin nahi dutenak daude, hizkuntza hobetzeko edo egunerokoan euskaraz berba egiteko aukerarik ez dutenak; eta, bestalde, euskarari ekarpena egin gura diotenak daude, beharra daukaten horiei lagunduta. Lauz-pabost laguneko taldeak izaten dira, eta astean ordubetez elkar-tu eta hitz egiten dute.

**Aurtengo kanpaina euskaldunon mundura hurbildu direnei maitasuna adierazteko erabiliko duzue.**

Bai, maitasuna adierazi nahi diegu azken urteetan euskarara hurbildu diren horiei. Bai saiakera hori egin dutenei, baina baita saiakera egiten ari direnei ere. Gainera, saiakera egiten duten horiei laguntzen diotenak ere zoriondu nahi ditugu; hau da, astero-astero mintzalagun praktiketan parte hartzen dutenei gainerakoek euskaraz gehiago hitz egin dezaten.

**Zein da mintzalagunen helburu nagusia?**

Helburu nagusia euskaraz hitz egitea eta euskaraz hitz egiten ondo pasatzea da, aisialdian. Klasetik kanpoko ekintza da. Mintzalagunetan parte hartuz soltura hartu gura duten horiek, baina baita euskaraz jarioasunez hitz egiten dutenak ere. Jarioasunez hitz egiten duten horiek ez dira irakasleak, ez dabilta etengabe akatsak zuzentzen... elkarrizketa normal bat kafe baten bueltan egitea da helburua. Mintzalagun horiek elkartzen dira herriko taberna, plaza edo herrietan eta horrek ere kolore berezia ematen dio herriari. Herrian euskara gehiago entzuten da.

**Zergatik dira garrantzitsuak horrelako taldeak?**

Euskarara hurbildu nahi duten horiek aspaldi euskaraz hitz egiten zutenak dira, edo gaur egun klasean hitz egiten dute, baina



Arrate Illano, mintzapraktiketako kartelarekin. | TOPAGUNEAK

ordu jakin horietan bakarrik. Hortaz, zaila izaten da euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea klase orduetatik kanpo. Mintzalagun taldeetan euskaraz hitz egiten da egoera normala, adibidez, kafe baten bueltan edo bestelako ekintzetan: mendi ibilaldi batean, bizikleta buelta batean... Euskarara erabiltzeko ohitura hartzen da egoera horietan.

**Nola antolatzen dituzue mintzapraktika horiek?**

Parte hartzeko betebeharreko baldintza da euskaraz komunikatze-

**"Mintzalagun taldeetan euskaraz hitz egiten da egunerokoan"**

**"Internet bidezko mintzapraktika egitasmoa bultzatu nahi dugu"**

ko gauza izatea. Hortaz, euskara maila baino gehiago, begiratzen dugu talde bakoitzean euskaraz jarioasun handiagoarekin hitz egiten dutenak eta gehiago kostatzen zaienak egotea. Elkar elikatzeko. Bakoitzaren ordutegiaren arabera, zaletasunaren arabera, adinaren arabera... izena ematean zehazten dute zeren arabera nahi duten taldea sortu: adinaren arabera edo zaletasunaren arabera, adibidez.

**Gaur egungo datuak zeintzuk dira?**

5.000 mintzalagun daude EH osoan, eta, horietatik, Gipuzkoan 1.300 daude. 65 herri edo eskualdetako egitasmoetan daude. Batzuk herri mailakoak dira eta beste batzuk eskualde mailakoak.

**Praktika hauek noiz sortu ziren?**

Donostian sortu zituen Bagera euskara elkarteak, 1993an. Euskaltegiaren ikasleek kalean euskaraz hitz egiteko ohitura harrezaten sortu zituzten. 19 urte pasa dira ordutik eta esan daiteke eboluzio ona izan duela. Ia Euskal Herri osora hedatu da egitasmoa; momentu hauetan, iparraldeko dago ahulxeago. Adibidez, Iruñerrian 420 bat lagun daude, Gasteizen 620 bat eta Getxon 200etik gora. Ikusi dugu azkeneko bost urteetan gorakada handia izan duela egitasmoak.

**Mintzalagunek nola baloratzen dute egitasmoa?**

Ikasturte amaieran galdetegi bat zabaltzen dugu ikasleen artean eta oso balorazio positiboa egiten dute. %87k 7tik gorako puntuazioa ematen diote egitasmoari eta 5 puntutik beherako balorazioa %4k bakarrik.

**Ikasturteak irauten duen bitartean izaten da egitasmoa?**

Bai, baina gure erritmoarekin izaten da. Ez du loturarik klaseen egutegiarekin praktikotasunarekin du zerikusi handiagoa. Urrian ematen da izena eta azaroan hasien dira klaseak; urte amaierako jaia, ostera, ekainean egiten dugu. Baina ez dut uste udan taldeak desagertu egiten direnik. Aurrera jarraitzeko aukera baldin badute jarraitzen dute, eta euren artean ere sor daitezke harremanak.

**Aurten bultzada eman gura diozue e-mintzalagun egitasmoari.**

Bai; Internet bidezko mintzalagun egitasmoa da hori. Internet bidez egiten da, mintzalagunek ez dutelako aukerarik astean ordubetez elkartzeko. Skype bidez munduko beste euskaldun batzuekin hitz egiteko aukera dago. Oraingoan, animatu dira batzuk, baina gure nahia zabaltzea da.

**Guraso lagunen egitasmoa ere badago. Zer da hori?**

Mintzapraktikaren aldaera berezi bat da, gurasoei eskainitakoa. Umeek eskolaz kanpo ekintza bereziak egiten dituzten bitartean gurasoek mintzapraktikan parte har dezakete; edo, bestela, ume eta gurasoek elkarrekin egiteko ekintza bereziak antola daitezke euskaraz egiten diren.

## ZABALIK

INAKI PEÑA  
http://goiena.net/iritzia/



## Gora Galeusca (m)!

Lehenengo topaketak S. Aranaren disidente batzuk politikari kataluniar eta galiziar batzuekin egin zituzten 1923ko udan, baina M. Primo de Rivera diktadoreak festa amaia-razi eutsen. 1944an erbestaldian, "Galeuzca"-ri ekin eutsien barrero be, iberiar bazter honetan beste diktadore bat egoanez. 2004an, azkenik, europar hauteskundeetarako plataforma eratu eben BNG, EAJ eta CiUk.

Politikatik at, literatura esparruan, 1984an hiru lurraldeetako idazle talde batek lehenengo jardunaldiak antolatu zituen, izen bardina hartuta, eta ordutik urtez urte txandakatu dituzte. Aurtun Euskal Herrian izango da, udagoien honetan. Azkenak 2009an izan ziran, Arantzazuko hor goiko paradisuan.

Baina literaturatik eta politikatik kanpo, badago Galeusca izeneko mini mendi taldea, Gasteizen bizi diran ouden setar eta bartzelonar banak eta Bilbon bizi dan ahuntz transprointzial honek osatzen doguna. Debagoieneko ospitalean alkarregaz ibili izan gara eta, lan egiteaz gain, naturaz gozatzea eta kirola praktikatzea be bururatu jakun. Hasteko Gorbeialdeko Usategieta eta Arralde tontorretara iritsi ginan, behelainoa eta euria lagun. Hirugarrenean Pagasarrira igo ginan, eta neure lagunak konprobatu ahal izan eben asfaltoaz gain Botxoan bazter natural politik dagozala. Laugarren edizinoan Urkulutik Kurtzebarrira, behelainopean barriz be. Galdutako pertsona maite baten omenez egin genduan, eta berak lagundu ei euskun hortik goitiki kurtzea aurkitzen, geu be nahikoa galduta gengoan-eta!

Azken hiruetan autokarabaneagaz jun gara. Sanabria aldetik Pena Trevinca egin genduan, Galiziako sabaia. Betelu aldetik Malloetan barna gustura baino gusturago ibili ginan. Eta barriki Palentziako erraldoiak konkistatu izan ditugu, Peña Prieta eta Espigüete hain zuzen be. Bizi gara!

\*(m) = *montañero*, mendizalea, *muntanyer*.

### "Naturaz gozatzea eta kirola praktikatzea be bururatu jakun"

## USTEAK USTE


LARRAIZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

## Hezkuntza lege berria berriz

Badator hezkuntza lege berria; kasu honetan, Alderdi Popularraren hezkuntza legea, eta PPK Kongresuan duen gehiengo osoarekin ez du legea onartzeko arazorik izango. Lege Organikoa izango da, gainera; beraz, derrigorrezko aplikaziozkoa gurean ere. Legeak jasotzen dituen artean, Madrilek erabakiko du eskola curriculumaren %65 -gaur egun %55 erabakitzen du-, errebalidak itzuliko dira, Eskola Kontseiluek ahalmen gutxiago izango dute, mutilak eta neskek banantzen dituzten eskolak diruz lagunduko dituzte... Lau hamarkadatan zazpi hezkuntza lege egin dizkigute; eta badator zortzigarrena. Argi dago helburua ez dela hezkuntza sistema sendotzea.

## KALE INKESTA

## Zer iruditzen zaizu Debagoieneko ospitale berria?



**AHETZE GALARRAGA**  
ARRASATE

"Ez naiz Arrasatekoa, baina ikasle moduan larrialdietara joan nintzen behin. Oso ondo dago. Osasun zerbitzuak zaindu egin behar direla uste dut".



**ALBERTO RUIZ DE AZUA**  
ARRASATE

"Zoragarri dago. Nik zorionez ez dut ospitale berria erabili beharrik izan, baina nire semeak bai, eta oso ondo artatu zuten".



**JOSE RODRIGUEZ**  
ARRASATE

"Azkenaldian kanpoan egon naiz, eta zorionez gainera, ez dut ospitalera joan beharrik izan. Dena dela, badakit dena berritu egin dutela".



**JOSU URIARTE**  
ARRASATE

"Tamalez besoa min hartu eta ezagutu behar izan dut ospitale berria. Larrialdiak ondo daude, dena berri-berri. Ondo artatu ninduten".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Sabindarren purrustadia

Oier Gorosabel Larrañaga  
http://eibar.org/blogak/orakulua/

"Euskaltzaindiari epaiketa", Latiegi'tar Bixente eta Oñatibia'tar Dunixi.

Banekan gogua, bai "Euskerazaintza" izenekuan atzian zer zeguan jakitzeko. Imajinatzen najuan, baiña tira: gauzak konfirmatza beti dok ona. Kuriosua dok ikuspegixa zelan aldatzen dan: oiñ arte Krutwig disidentetzat banekan be, beste fakziño honetakuak barriz, gaur egungo Euskaltzaindiako ortodoxian aldeko pertsona printzipalenetakotzat jauke. Juanito San Martinen ikuspegixa be diaboliko xamarra dok.

Liburua jeneralian kontuan hartuta, ezagun dok idazliak oso erreta dagozela; eta horrek berak argumentaziñuari ez detsa bape mesederik egitten. Emoten dabenez, hasarrian jatorrixa politikua dok gainera, filologikua barik: idazlien argumentu gehixenak behintzat hor amaitzen dittuk, euren ustez desegokixa dan jokabide horren azpitan ezkertiarren interesak dagozela salatuta.

Izenburua be ez dok oso egokixa: izan be, epaiketa batian alde eta kontrako argumentu guztiak zehetzen dirala suposatzen dok, gero danak alderatuta ondorixua etaratzeko. Baiña hamen etxagok halakorik: argumentu guztiak kontrakuak dittuk. Errekopilaziño bihar haundixa dok, hori bai, baiña handik eta hamendik bildutako artikulo guztiak asko jota hiru-lau argumento baiño ez jarabixek, bueltaka: a) Azkuen sasoiko batu eredua ("gipuzkera osotua") oso ona zala eta onezkero finkauta zeguanian, zertan hasiko gara aldatzen; b) H-a ("h'ETA" grekoz) ezkertiarren kapritxua edo sinbolua baiño ez dala; c) H-a oso leku gitxittan erabiltzen dala (Iparraldian) eta han euskeria laster desagertuko danez, ez dabela merezi euskal hiztunen gehixengua horrekin nahastatzia; d) herri euskera bizixa hartu bihar dala eredutzat, eta ez euskerian teorixa filologikua... Baiña argumentuoi nik hutsune larregi ikusten jetsedaz.

H pronuntziatzen daben euskaldunak "gitxi eta laster desagertzekuak" dirazela esatia, atzeraka egitten jestak. Zorixonez, pronostiko okerra izan zuan (liburua 1982kua dok). Behiñ eta barrero agertzen

dittuk liburuan zihar Iparraldeko euskalkixenganako antipatia edo gutxiespena erakusten daben komentariuak, eta halako euskaltasun zentralista tufo bat.

Herri euskeria aldarrikatzen juek, batuan artifizialtasunan aldian. Baiña... herri euskeran esan esaten dirazen "erderakadak" baztartzan dittuez ("Estatuto-projektua" ez, "Araudi-gai" bai), eta garbizaletasuna eta neologismuen artian be herri euskera horretatik nahikua apartatzen dittuk; baiña hori ez detse ardura kontizu...

Zirriborautako hezkuntza ereduan (Bizkaian eskolatan bizkaieraz), ez jittuek kontuan hartzen azpieuskalkixak... eta bide horretatik juanda euskalki barrixak asmau biharra egongo dala ("bizkaiera batua" eta halakuak).

Gogaittu arte errepikatzen juek Euskaltzaindian iritzi-aldaketian arrazoa politikua dala, ez filologikua; baiña bai idazliak, bai azaldutako lekukotasunak be, keja mingotxa erakusten juek behiñ eta barrero, natural-natural, euskerian norabidia jeltzaletasunetik desbideratu dalako; hori norabide politikua izango ez balitza lez...

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Estepan Plazaola

**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna** Ubane Madera  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziorza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa


**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER**  
ARRASATE 20500:  
Utalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale  
**Difusioa:** 4.383 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



bilduma

**Niko****TXIKIENEN ESPAZIOAREKIN  
LILURATUTA**Kubo itxurako apala zuria  
L 40xH33,4zm**49 €**Ohea  
L 203,4xH74,5xP101zm**594 €**Armairua  
L 98xH238xP58,9zm**357 €**

TORRA+PORTELLA

diseinua  
Eloy Millán

Gazteentzako Niko saila Akabera melamina zurian, iris marroian eta testuratu urdin turkesan. Altzari multzo osoa (Ohea+Armairua+3 Kuboko apala+Ikasteko gunea) **Prezioa 1540€**. Aukera gehiago Kibuc.com en. Porotex akaberarako eta adierazitako neurrietarako balio duten prezioak. BEZ-a barne.

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com) ikus gaitzazu Facebook eta Twitter-en  

[gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)  
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia  
Tel. 943 151 681

**KIBUC** Gure Ametsa**KIBUC**  
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

# HERRIAK

ARRASATE

## Leixargarate, mendizaleen zain

- ▶ Hil honetan amaitu dituzte Aretxabaleta aldeko lanak, eta erabilgarri dago
- ▶ Besaideren aldea ere iaz eraberritu zuten, eta oso txukun geratu dira biak

**XABIER URTZELAI** | ARETXABALETA  
Aizkorri-Aratz parkean –Degurixa eta Alabita artean– dagoen Leixargarateko aterpetxea mendizaleak hartzeko zain dago. Eraikin erdia Arrasateko Besaide Mendi Elkartearena da eta beste erdia Aretxabaletako Kirol Elkartearena (nahiz eta Murruxiko mendi elkarteak kudeatzen duen). Eta bi aldeak erabat eraberrituta daude. Arrasatekoek orain dela urtebete amaitu zituzten lanok, eta Aretxabaletakoek, uda lanean eman ostean, orain amaitu berri dituzte, 12.000 euroko gastua egin ostean.

**Uste baino apur bat garestiago**  
Iñaki San Miguel *Xati*-k adierazitakoaren arabera, aurrez uste zutena baino gehiago kosta zaie aterpetxea eraberritzea: "Teilatua eta beheko sua apurterakoan konturatu ginen uste baino okerrago zeudela, eta hobe zela orain konpontzea gutzia". Hala, lan asko laguntzeko egin dituzte, kostua merkatzeko, eta beste batzuk egiteko langileak kontratatu dituzte. Eta orain txukun geratu da, oso txukun: "Jendea izan da aterpetxean, eta euren iritzia jakin nahi izan dugu, zer edo zer hobetu behar bada. Esan digute oso gustura egon direla, oso txukun dagoela".

**Negua, benetako azterketa**  
Teilatu berriak hezetasuna transpiratzen duen baina berotasuna mantentzen duen geruza du: "Eta beheko su berriak berotasuna behean mantentzen du, ez du ihes egiten uzten. Gainera, atea ditu eta seguruagoa da". Hala, benetako azterketa neguan izango du:

ESANAK

**"Uste baino okerrago zegoen; ondo konpontzea erabaki dugu"**

**"Neguan ikusiko dugu aterpetxean lanok ondo egin ditugun edo ez"**

IÑAKI SAN MIGUEL | MURRUKIXO



Ezkerrean beheko su berria, segurtasuneko atearekin; bazkaltzeko egurrezko bi mahaiak mantendu dituzte. | MIRARI ALTUBE



Literak mantendu dituzte. | M.A.



Aretxabaleta aldeko eraberritutako teilatua. | M.A.

### Besaiderena ere erabilgarri

Duela urtebete konpondu zuten Besaideren aldea: zorua aldatu, teilatua txukundu, sabaia jaitsi eta isolamendu berria jarri zitzaion... Besaideren aldeak 12 lagunendako toki du –lo egiteko– eta hor ere sukaldea eta beheko sua daude. Aterpetxea erreserbatzen duenak Besaideko bazkide izan beharko du, eta 25 euroko gastu minimoa egin beharko du (*xehetasunak: www.besaide.org*). Erreserba egiteko, martitzenetan eta eguaztenetan 19:30etik 20:30era, Besaideren egoitzan (943 77 30 66).

"Orduan ikusiko da lanok ondo egin ditugun edo ez". Aterpetxea edonoren esku dagoela jakinarazi du *Xati*-k: UDAko eta Murruxiko bazkideek dute lehentasuna, baina, libre badago, edonork erabil dezake, hori da-eta aterpetxea ondo mantentzeko modurik onena, jendeak erabiltzea. Erreserba egiteko Murruxiora deitu baino ez dago (943 79 93 74, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara). Aurreratu bezala, Leixargarate erabiltzea eta zaintzea geratzen da orain: "Zaindu aterpetxea, baina baita inguruak ere, ederrak direlako".



Sukaldea eta jantokia, eta goian lo egiteko oheak. | M.A.

*Xati*, sarreran; ezkerrean, Besaideren aldea; eskuinaldean, UDArena. | M.A.



Udazkeneko giro freskoari aurre egiteko ederra izan zen kaleko giro epela; argazkian joaldunak eta herritarrak. | JULIO CALLEJA



Larrin dantzan. | JULIO CALLEJA



**MILA ZUBIZARRETA**  
ARETXABALETA

"Taloak egiten egon naiz, talo oreka hain zuzen. Hasieran jende gutxi ibili da baina eguerdi partera ugaritu da. Azokara iristeko astirik ez dut izan oraindik".



**MARTIN BERRIZBEITIA**  
ARETXABALETA

"Lasai-lasai gabiltza oraingoz, buelta bat eman kalean eta postuak ikusita. Herri bazkaria joaten saiatuko gara, baina ez dugu txartelik erosi eta..."



**ESTIXU MEABE**  
ARETXABALETA

"Postua jarri dugu ikas-bidaiarako dirua lortzeko, eta goiza pintxoak egiten pasatu dugu. Jaiak ondo doaz, eta arratsalde partean parrandari ekingo diogu".



**JOVITA ARTABE**  
ARETXABALETA

"Goiza taloak egiten pasatu ostean etorri gara bazkaltzera, eta oso gustura hartuko dugu ematen digutena. Gero kantuan egiteko asmoa ere badugu".



**LARRAITZ BEREZIBAR**  
ARETXABALETA

"Gosetuta gatoz bazkaltzera eta dagoena jateko gertu. Bazkalostean kantuan egingo dugu, eta ilunkaran Larrain dantza. Anima daitezela guztiak bertara!"



Kantu afaria egin zuten aurreneko aldiz egubakoitzean. | MIRARI ALTUBE



Presoen alde ere batu ziren mahaiaren bueltan, zapatuan. | MIRARI ALTUBE



Trilko andrak buru-belarri horrenbeste arrakasta duten taloak egiten. | J. CALLEJA



Urtero moduan, ikusle ugari erakarri zituzten Bihurriren herri kirolek. | J. CALLEJA

# San Migel gustura utzi dute jaion arrakastarekin aretxabaletarrek

Deigarria da asteburuko ekitaldi guztiek erakarri duten jendetza

M.A./U.M. | ARETXABALETA

Berritasunekin, baina era berean, tradizioari ondo utsita, indartsu etorri eta joan dira San Migel jaiak Aretxabaletan. Izan ere, egubakoitzetik (hasieratik) dome-

kara bitartean egindako ekitaldi guztietan, herriko kultura eta kirol elkarte, dantza eta musika talde, txistulari, gazte, emakume musika eskola, abesbatza eta oro har, herritarren parte-hartze era-

batekoa azpimarratzeko moduko ezaugarria da San Migeletan.

**Kantuan eta mahaiaren bueltan**  
Kantuan eginez hasi eta bukatu dira jaiok: kantu-afariaren berri-

tasunarekin eta abesbatzaren tradiziozko kontzertuarekin. Eta bion tartean izandako ekitaldietan zaila litzateke zehaztea zerk izan duen arrakasta gehien.

Esaterako, kantu afarian 300 lagundik gora elkartu zen; 450ek aukeratu zuten, berriz, presoen aldeko zapatuko bazkaria. Eta azoka ekologikoaren hasieran goian behean euria bazen ere, atertu ahala jendea perretxikoak legez agertu zen.

Bukatzeke, atzoko herri-kirolen saioa zein abesbatzarena, beti bezain arrakastatsu joan ziren.



Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.

eredu izan **EUSKARAZ** plazera delako!



Aretxabaletako Udala  
EUSKARA SAILA



Jaioberriei ongiatorria. | J. BEREZIARTUA



Domeka arratsaldean sokamuturrak herritar dezente batu zuten. | JULIO CALLEJA



Zapatu gauen KOP taldeak kontzertua eskaini zuten. | XABIER REZABAL



Diskofesta, egubakoitzean. | J. BEREZIBAR



Dukearen lorategia zabaldu zuten. | M. A



Gaupaseroek argazkia atera zuten txosnetan zapatu goizean. | ANDONI AGIRRE



Danborradako banderadunak sukaldarien konpainiaren aurretik. | JAGOBA DOMINGO

## OÑATI

# Jaietako lehenengo ekinaldia bukatu da, orain hurrengoaren zain Oñatin

Txantxiuaren jaietsiera, danbor hotsak eta batez ere parranda asko San Migel jaietako lehen asteburuan

## ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Txantxiuari herriko plazan ongiatorria eman eta gero, danbor hotsekin hasi zituzten beste behin ere oñatiarrek San Migel jaiak. Aurten gainera ia bikoiztu egin

da parte-hartzaile kopurua, ohiko lau konpainiei Txosna Batzordearena gehitu zaie-eta.

Dena dela, ez da hori izan jaietako nobedade bakarra. San Migelek aurten dukearen etxeko

edo Lazarraga jauregiko lorategia ezagutzeko aukera eskaini dute. Udal Bandaren kontzertua udal txeko arkupetan egin behar izan zen, baina lorategia zabaldu egin zen eta herritar dezente

gerturatu zen orain arte herriarendako itxita egon den berdegunea ikustera.

Nobedade gehiagorekin jarraitzeko, atzo lehen aldiz herriko jaioberriei omenaldia egin zieten.

Osoko bilkuren aretoan goraino bete zen eta udal ordezkariak eurak ere harritu egin ziren deialdiak izandako erantzunarekin.

## Hurrengo asteburuan gehiago

Egubakoitzean hasi eta domekara arte parrandaz parranda ibili dira oñatiarrak. Horren adierazle zapatu goizean txosnetan aterako gaupaseroen argazkia, ikaragarri jendetsua. Asteazkenean orain indarrak hartzeko aprobeztatu beharko dute hurrengo asteburuan atzera ere parrandara itzuliko dira-eta. Errosoixo bixamona urruti dago oraindik.

ANE ETA MARIA  
KINTOAK

"Bizitzan behin izaten zara kinto, eta oso berezia da. Elkarrekin poteatu eta gero, afaldu egin dugu eta danborradan dantza egiten dugu. Hirurogei eta piku gara aurten. Oñatiko jaietako momentu bereziena da kintoendako hau".

ELI  
KANTINEREN KONPAINIA

"Hogei eta piku gara kantinerak baina nahi duguna da nahi duen guztia gurekin etortzera animatzea, 18 urtetik gora izatea, besterik ez da behar. Eta merezi du ze oso ondo pasatzen dugu eta egun oso berezia izaten da".

DANEL ETA MARKEL  
OÑATI

"Kirodegiko puzgarri eta jolasetatik onena zezen mekanikoa da eta bertara joango gara lehenik eta behin. Auto lasterketako bideo-jokoak ere ondo dagoela ematen du. Horiek biak gustatzen zaizkigu gehien".

TANIA ETA AIOA  
GURASOA ETA JAIOBERRIA

"Oso polita izan da. Lehenengo aldia da eta osoko bilkuren aretoa goraino bete da, izugarria izan da. Ez nuen jaioberriei ongiatorria emateko ohitura hau ezagutzen. Gutuna iritsi zitzaidan etxera, eta etorri egin naiz".

MONIKA ETA OIER  
GURASOA ETA JAIOBERRIA

"Oso ondo egon da. Niri behintzat ondo iruditzen zait horrelako ekitaldi bat egitea, umeen errekonozimendu bat da nolabait. Alkateak aipatu du lehen ohitura zela horrelako gauza bat egitea. Ez nekien ezer".



Uliazpiko erabiltzaileek musikoterapia saioetan ikasitakoa erakutsi zieten guraso eta lagunei. | ARRITXU BARRUSO

## BERGARA

## Hamar urteko lanak merezi duelako, ospakizun handia

Uliazpik Bergarako zentroko erabiltzaileak, gurasoak eta langileak elkartu zituen zapatuan festarako

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Egun oso berezia izan zen zapatukoa Uliazpik Bergaran duen Zubillaga Doktorea zentroan. Erabiltzaile, guraso eta langileekin eraikina bete-beteta egon zen goizean zehar. 12:00etan hitzordua zuten urteurreneko ospakizunak

hasteko. Zentroko erabiltzaileek egindako bideo bat ipini dute ekitaldia hasteko eta barre eta malkoak egon dira. Barreak erabiltzaileak dantzan eta ederki pasatzen ikusi zituztelako gurasoek, eta malkoak bideoan guraso eta lagunei eskerrak ematen

zizkielako erabiltzaileek. Ondoren kantuan egin dute musiko-terapiako saioetan egiten duten bezalaxe. Paul Zubillaga doktorea bertan izan zen.

Tartufon egindako bazkariarekin amaitu zuten eguna; 80 lagun batu ziren bazkaltzera.

## ARRASATE

## Ceciaga dendakoak omendu zituzten Maritxu Kajoiko Nobenaixuan

104 urte luzez Ceciaga familiak egindako lanarengatik jaso zuten enbutua



Ceciagako langileak egubakoitzeko omenaldian. | JULIO CALLEJA



Rosarito Ceciaga ardoa banatzen. | J.C.

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Ia 105 urtez arrasatearrei zerbitzua eskaini ostean, Ceciaga etxeak aurten itxi ditu ateak, eta Maritxu Kajoiko komisiok urte guzti hauetan egindako lana eskertu nahi izan zion egubakoitzean ospatutako Maritxu Kajoiko Nobenaixuan.

Komisioko Eneko Barberena kideak aipatu zuen ia arrasatear guztiek Maritxu Kajoiko jantzi, soineko, gorbata edo bestelako osagarriak bertan erosi dituztela, eta jaiaren hasieratik Ceciaga etxea bertako parte izan dela. Jasotako omenaldiarekin, Rosarito Ceciaga pozik agertu zen, eta orain arte, Maritxu Kajoiko eta aurreko asteak lan handiko egunak izaten zirela azpimarratu zuen; aurten, berriz, jaiaz gozatzea tokatzen zaiola esan zuen. Rosarito Ceciagak azken 55 urteotan egin du lan dendan, eta arrasatearregandik jasotako berotasuna eta laguntasuna azpimarratu zituen.

## 126 litro ardo

Egubakoitzeko Nobenaixuan, Maritxu Kajoiko komisiok herritarren artean 31 baserriko ogi, 36 kilo gazta eta 126 litro ardo banatu zituen.



## ANGIOZAR

JULIO CALLEJA

## Sardina gozoak jaiak ospatzeko

Angiozarren San Migel jaiak ospatu dituzte asteburuan. Egubakoitzean umeen danborradarekin eta gauean pilota partiduekin hasi zituzten jaiak. Zapatu eguerdian berriz, auzotarrek bapo bazkaldu zuten. Sardina-jana egin zuten eta pilotalekuan bete egin zen. Bazkariarekin hasitako festa goizeko ordu txikieta arte luzatu zen; DJ Oihan auzotarrak girotu zuen urtero moduan gaua.



## GARAGARTZA

JULIO CALLEJA

## Txikitxoek ere gustura jaietan

Buzkantzak izaten dira zalantza barik Garagartzako San Migel jaietako protagonistak eta aurten ere halaxe izan dira. Barikuan eta zapatuan jende dezente gerturatu zen Otamendi eta Agirretxe harakinek ekoiztutako buzkantzak dastatzera. Jaiak baina askorako eman dute eta txikitxoek ere izan dute lekua egitarauan. Zapatu eguerdian esaterako, puzgarriak eta tailerrak egin zituzten Txatxilipurdirekin.



## BOLIBAR

JULIO CALLEJA

## San Migelak Bolibarren ere

Eskoriatzako Bolibar auzoan ere San Migeletan murgilduta ibili dira. Zapatuan mezarekin hasi zituzten jaiak eta ondoren umeendako olinpiadak egin zituzten. Auzo bazkaria izan zuten gero, Lide eta Joneren trikiti doinuek lagunduta. Felisa Bengoa eta Luis Alavak lora sorta jaso zuten bazkaria joandako emakume eta gizon nagusienak izatearren.

# Alkohol arazoa dutenen familiei laguntza zerbitzua

Udalaitz Taldea 1974an sortu zen Arrasaten, eta laguntza taldea da

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Alkoholismoa sufritzen duenari zulotik ateratzen laguntzeko Alkoholiko Anonimoen taldea dagoen moduan, gaixoaren familiak eta lagunek ere badaukate beraien taldea. Arrasaten duela 38 urte hasi zen Al-Anon-Alateen taldearen baitako Udalaitz Taldea egiteko horretan.

Anonimatuan mantendu gura duen bertako kide batekin bildu gara: "Guretzako garrantzitsua da izen eta abizenik ez erabiltzea, ez baita erraza bertara etortzeko aurreneko urratsa ematea. Hala, anonimatua bidez, nolabaiteko babesa sentitzen dute gurekin harremanetan jartzen direnek" Anonimatu horretatik irteteko urratsa, barneko korapiloa askatzea eta egoera gainditzea da.

## Korapiloak askatuz

Ez da erraza etxean edo laguntzarik alkoholismoa duen norbait edukitzea; moduren batean edo bestearen eragiten die guztiei egoerak, heldu zein haurrei.

Eta ez da erraza, Udalaitz Taldeko lagunaren esanetan, horren gainean zabal berba egi-



Laguntza behar dutenentzako atea irekita dugu elkarteak. | WWW.AL-ANON.ALATEEN.ORG

tea. "Nire kasuan, lur jota nengoen egun batean, Alkoholiko Anonimoen taldera deituta hasi zen guztia. Familiako batek alkoholarekin arazoak zituela esatera koan, haiek Udalaitz Taldearen berri eman zidaten. Zortzi urte daramatzat bertan". Poliki-poliki hasi zen argia ikusten. "Taldera

etorri aurretik, niretzako gordetzen nuen dena, horrelako egoera batetan ni bakarrik egongo banintz bezala sentitzen bainintzen, jendeak zer esango zuen arduratuta... Eta taldea ezagutu nuen egun hartan ohartu nintzen zenbat eta zenbat pertsona dauden egoera berdinean".

## Hamabi lagun taldean

Eguenetan elkartzen dira Arrasate Pasealekuko lokalean. "Gure esperientziak kontatzen dizkiogu elkarri, egoera zehatzen aurrean nola jokatu izan dugun konpartitzen dugu. Barneak askatzeko modu on bat da".

Gaur egun hamabi lagunek osatzen dute Udalaitz Taldea. "Emakume eta gizonak gabiltza, herri ezberdinetakoak gainera. Izan ere, zenbaitek horrelako talde batetan parte hartu gura bai, baina nahiago izaten dute beraien udalerrietatik kanpo egin".

Helduak dira hamabi lagun horiek: "Alateen taldera joan behar dira gazteak, Donostiara. Hau, seme-alabentzako laguntza taldea da. Orain dela zenbait urte Arrasaten ere egon zen, baina jende gutxi etortzen zenez, azkenean Donostiara bideratu zen zerbitzua".

## Aldaketa nabarmenak

Duela 38 urte taldea funtzionamenduan hasi zenean, gauzak modu sekretuan eramaten zirela adierazi digu taldekideak. "Lehen etxean geratzen ziren arazo horiek, eta gaur egun zorionez, onartu eta aurpegia ematen duzu, eta benetan lagungarria da". Alkoholismoaren arazoa uste baino zabalduagoa dagoela adierazi digu: "Eta geroz eta gazte gehiago sufritzen dute, gainera". Hala, informazio gehiago edo laguntza behar dutenek, elkarteak irekita dituztela gogorarazi du.

## 2 eta 12 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako saioak

Udaleko Prebentzio Sailak Gurasotasuna "M"-z idazten: Maitasuna eta Mugak ikastaroa antolatzen du 2 urtetik 12 urtera arteko seme-alabak dituzten gurasoendako. Urriaren 5a da izena emateko azken eguna eta Udalak hiru bide zehatztu ditu: izena emateko orria BAZen entregatuta, 943 25 20 07 telefonora deituta edo [prebentzio@arrasate-mondragon.net](mailto:prebentzio@arrasate-mondragon.net) helbidera mezua bidalita. Klaseak urri amaieran hasiko dira eta sei saio egingo dituzte.

## Yoga eta pilates egiteko ikastaroak Arrasate Yogaren eskutik

Ikasturte berrirako matrikulazioa zabalik du Arrasate Yoga elkarteak. Hobekuntza eta hastapen ikastaroak eskainiko dituzte eta klaseak urrian bertan hasi eta urtarrilean amaituko dira. Izen-ematea zabalik dago: 636 386 066 edo 943 79 66 98 telefonoetara deitu (Antonia). Pilates astelehen eta eguaztenetan izango da -goiz zein arratsalde- eta yoga, berri, astelehenean bakarrik -20:00etatik 21:30era-. Klaseak Altamira auzoan izango dira.

# Josu Erkorekaren arabera, kontzertu ekonomikoa "lorpen handia" izan zen

Batzokia bete egin zen Espainiako Kongresuko EAJko parlamentaria entzuteko

J.B. | ARRASATE

Espainiako Kongresuan EAJko parlamentaria den Josu Erkoreka jeltzaleak hitzaldia eman zuen joan den egunean Arrasateko batzokian. Hainbat gai jorratu zituen politikari bermeotarrak; besteak beste, duela 30 urtetako kontzertu ekonomikoa goraiatu zuen eta "lorpen handia" izan zela gaineratu. Hala, Katalunia

"hemengo ereduaren" atzetik dabilela esan zuen Erkorekak. Hori horrela, kontzertu ekonomikoaren alorrean, "beste hainbat alorrean" moduan, herritarrek EAJaren lan ereduaz "harro" egoteko modukoa dela adierazi zuen parlamentari jeltzaleak.

Urriaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde garrantziaz ere egin zuen berba.

## Pintxo pote berezia

Ordubete pasatxo iraun zuen hitzaldiak, eta saioaren ostean pintxo pote berezia egin zuten batzokian bertan; hasiera eman zioten buzkantzez egindako pintxo poteari. Egubakoitzero izaten da buzkantzok dastatzeko aukera baina oraingoan ekitaldia aprobetxatu zuten pintxo potea egun bat aurreratzeko.



Josu Erkoreka EAJko parlamentaria eta Juan Karlos Garitano Arrasateko bozeramailea eguneko hitzaldian. | EAJ

Eneritz Urrutia | Maritxu Kajoiko Txosna batzordeko kidea

# "Anima zaitezte txosnetan lan egitera, txanda guztiak betetzeko"

J.B. | ARRASATE

Irailean hasten da Txosna batzordea Maritxu Kajoirako lanean. Eneritz Urrutiak (Arrasate, 1990) aurreratu dizkigu aurten go nobedadeak.

## Karpa bakarria txosna ezberdinak jarri behar. Ondo funtzionatzen al duzue horrela?

Bai. Iaz, gainera, karpa bakarria jarri arren beste planteamendu batekin hasi ginen lanean: karpa barruan guneak bereiztu genituen 20 pertsona alde bategatik bestera lanean ibiltzea ekiditeko. Horrela askoz hobeto ibili ginen, lan egiteko askoz erosagoa da.

## Nola daude txandak?

Oraindik hainbat txanda betetzeke daude eta herriko jendea animatu gura dugu horiek betetzera. Iluntz eta Irati tabernetan eman daiteke izena; bihar izango da azken eguna.

## Aurten, gainera, nobedadekin dator Txosnagunea.

Hala da. Musika jartzeaz arduratuko den DJ bat egongo da, 23:00etatik 05:00etara. Karpa 09:00ak arte egongo da zabalik. Musika jartzen aritzea ez da erraza izaten, eta asko dira kantu zehatz batzuk eskatzen aritzen direnak. Hori guztia



Eneritz Urrutia. | JOKIN BEREZIARTUA

ekiditeko Azkoitiko DJ Xabi ekarriko dugu, eta denetarikoa musika jarriko du. Harekin egin dugu berba eta pasa diogu hemengo musika. Argi berezi batzuk ere jarriko ditugu.

Era berean, aurten edalontzi berrerabilgarri berriak ateratu ditugu. Txosna batzordeak Hamaika festa, borroka bakarria aukeratu du lelo, eta herriko talde ezberdinen ikurrak eramango dituzte: Ttak gazte taldea, Euskal Herriaren Euskaraz, Arrasate Eskubaloia taldea, Askapena, Herrera, Iksale Abertzaleak, Ezker Abertzalea eta Mujika taldea. Beste jai batzuetan ere erabiltzeko asmoa dugu.

# Hainbat urtez isilik egon ostean, bueltan dator Loixe

Zeramika elkarteari bultzada eman gura diote zenbait bazkidek; horretarako hastapen ikastaroa antolatu dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Zeramika ikastaroa antolatu du Loixe elkarteak. Gazteek seguruarik ez dute elkarte horren berri izango, hainbat urte dira eta geldi dagoela. 1980ko hamarkada hasieran jaio zen elkartea, zeramika lantzen zuten zenbait arrasatearren eskutik.

Bere garaian egun INEM dagoen lekuan zuten egoitza; han ibili ziren lanean hamar bat urtez. Gero, orduko bazkideek jardunari utzi ostean, desagertu egin zen elkarte moduan.



Imanol Aranburu zeramika piezekin, labetik atera berri. | JOKIN BEREZIARTUA

## Elkartea bera indartzeko

Elkartea desagertu bai, baina zeramika lantzeko zaletasuna ez zen hil. Izan ere, duela bi urte Loixe elkarteari berriro ere helteza erabaki zuten zenbait arrasatearrek: "Egia esan, berriro hutsetik hastea erabaki genuen", adierazi digu Imanol Aranburuk. Loixe elkarteak egun dituen zazpi bazkideetako bat da Aranburu eta gustura hartu gaitu egungo egoitzan, ospitale atzean: "Ia urtebete pasa zen lekualdaketa egiteko eta lokal berria egokitu ostean, orain lanean jartzeko moduan gaude".

Badute lanerako lekua, beraz. Orain, zaletasuna zabaltzea gura dute Loixe elkarte bera indartzeko. Eta horretarako, Arrasateko Udalararen laguntzaz, urriaren

16tik abenduaren 13ra hastapen ikastaroa egingo dute: "Zeramika zer den ere ez dakienarendako da ikastaroa, sekula probatu ez duenarendako", dio Aranburuk. Ateak zabalik daude herritar guztiendako eta izena emateko zein edozein argibidetarako honako telefono zenbakiak eman dituzte: 636 24 42 49 (Imanol) eta 665 74 59 10 (Xabi).

## Labea, azken hitza duena

Ikastaroaren berri emateaz gain, zeramikaz ere egin dugu berba Aranbururekin. Aspaldiko zaletasuna du eta zeramikaren "magia" aipatu digu: "Itzela da buztin zati soil batetik pitxer edo bestelako

artelan eder bat egitea. Hori bai, labea da azken hitza duena. Esmaltea ematen bazaio edo kolore jakin bat, labetik irteten den arte ez dakizu zuk gura zenuena lortu duzun edo ez". Hala, piezak labetik irteten ostean poza edo tristura izan ohi dira sentimendu ohikoenak, Aranbururen esanetan.

Labea bera ere erakutsi digu zeramika zale arrasatearrak. Elkarteak sortu zenekoa da labea baina berriro egin behar izan dute: "Barrutik zein kanpotik hainbat aldaketa egin behar izan dugu, ez zuelako funtzionatzen. Orain, labe berri bat dugula esan daiteke".

# Bidezko Merkataritzako Kafea usaindu, ukitu eta dastatzeko aukera, etzi

Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan izango da Harremanek antolatutako jardunaldia, 19:00etan

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Ekoizleek eginiko lanarengatik konpentsazio justua jasotzea du oinarri bidezko merkataritzak. Horren harira eta Harremanek antolatuta, eguazten honetan, urriak 3, *Bidezko Merkataritzako Kafea, teoriatik praktikara* hitzaldia eskainiko du Maria Fernandez Alternativa 3 Coop.eko Kafe Sektoreko arduradunak.

Harreman elkartearen Gorka Martinezek adierazi digunez, hitzaldi informala izango da eguean Kulturaten egingo dutena. "Kafea hartuko dugu ardatz, gurean produktu izarra baita, eta horren gaineko informazioa emango dugu: nola ekoiztu den,

nolako tratamendua eduki duen, nola inportatu den... Eta ondoren, zentzumenak sartuko dira jokoan, kafe mota ezberdinak usainduz, ukituz eta dastatuz. Aukera ona da kafe zaleentzako".

## Produktu bat, istorio bat

Lan asko egin du Harremanek orain arte herriko eskolekin sentsibilizazio arloan, eta jardunaldi hau herritarrengana gerturatzeko modu interesgarria dela adierazi digu Martinezek.

"Merkatua bitartekari gutxi batzuegatik dago kontrolatuta", eta horrek egoera endredatzen duela gaineratu du. "Horren adibidea da, kafearen balio katean

paradoxa bikoitza dagoela: alde batetik, Iparraldeko herrialdeetan kafearen kontsumoa handituz joan da milioika pertsonen eguneroko bilakatuz, eta bestetik, Hegoaldeko herrialdeetan lehengai honen ekoizpenak milioika pertsona pobrezian mantentzen ditu". Datuak ez dira nolana hikoak, zifrek egunero munduan 2,25 bilioi kafe katilu inguru kontsumitzen direla diote eta.

Azken finean, produktu bakoitzaren atzean istorio bat dago. "Horregatik, gauzak aldatu gura baditugu, gure merkataritza eta kontsumo moduek nola eragiten duten ikusarazi behar diogu jendarteari, eta horretarako, informazioa ematea eta sentsibilizatzeko ezinbestekoa da".

Hala, Kulturateko hitzorduan, Bidezko Merkataritza eta komertzio tradizionalaren arteko ezberdintasunak ezagutuko dira modu ezberdin batetan. Interesatuz gero, eguaztenean 19:00etan, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoraino eramango zaituen kafearen usain gozua jarraitu besterik ez duzu egin behar.


## Eguenean bueltan datoz 'Kooltur Ostegunak'

J.B. | ARRASATE

Kooltur Ekintza taldeak antolatzen dituen *Kooltur Ostegunak* ekimena egun honetan dator bueltan. Asteon hasiko dena hirugarren ikasturtea izango da; ikasturte berria Irungo Lisabö taldeak irekiko du. Estatuko musika aldizkarietan portada izan den taldea da, antolatzaileek eurek diotenez, Irundik datozen "laino eta trumoiak".

### Orain arteko formula

Orain arteko formularekin jarraituko dute: kontzertua 22:00etan puntuatzen hasiko da eta bost euro ordaindu beharko da sarrerara. Taldearendako izango da sarrerako dirua eta barran irabazten dena, berriaz, musika ekipoa ordaintzeko izango da.



Lisabö zuzenean. | GOIENA

## OHARRAK

### 1942AN JAIOTAKOEI DEIA

Urriaren 20an ospatuko dute 1942an jaioetako emakumeek beraien urteroko hitzordua. Interesatuak ohi bezala jo Mari Carmenengana ahalik eta lasterren.

### 1949KOEN IRTEERA

Urriaren 20an egingo dute urteroko bazkaria 1949an jaioetako lagunek. Aurten Azpeitira joango dira. Izena emateko, Lore edo Zabaleta lurrindegietara jo behar dute parte hartu gura dutenek eta 30 euro ordaindu beharko dituzte.

### 1955EAN JAIOTAKOAK

Bazkaria egingo dute 1955ean jaioetakoek azaroaren 17an. Antolatzaileek dei egin diete interesatuei lehenbailehen izena eman dezaten. Horretarako, 60 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzaren kontu honetan: 3035 0202 752021040764.

## Irakurketa sustatzeko, Literatur Solasaldiak

Z.V.D.M. | ARRASATE

Iragarri dituzte beste behin ere Literatur Solasaldiak. Arrasateko udal liburutegiak antolatuta, irakurtzeko zaletasuna sustatu gura duen hitzordua urria, azaroa eta abenduan zehar eramango da aurrera. Euskaraz eta gaztelaniazko liburuak irakurtzeko eta horien gainean solasean aritzeko abagunea egongo da aurten ere. Hala, EHUko irakasle Mikel Ayerbek euskarazko solasaldiak koordinatuko ditu, eta Juana Luana Lopez de Munainek berriaz, gaztelaniazkoak.

### Izenburu ezberdinak

Euskarazko solasaldiei dago kienez, Joseba Sarrionaindiaren *Narrazio guztia (1979-1990)* izango dute berba urriaren 30ean; Stefan Zweigen *Xake nobela*, azaroaren 17an; eta Harkaitz Canoren *Twist*, abenduaren 18an. Kulturateko elkartuko dira, 18:30etatik 20:30era bitartean.

Gaztelaniazkoek dagokionez, Raymond Chandler idazlearen *El sueño eterno* izango dute berba urriaren 18an; Patricia Highsmithen *A pleno sol (el talento de Ripley)*, azaroaren 22an; eta Sara Paretskyren *Marcas de fuego*, abenduaren 20an. Talde hau 18:00etan elkartu da aipaturiko liburuaren gainean aritzeko.

Gaur, urriaren 1ean, ireki dute izen-emateko epea.

## Babes ofizialeko etxea errentan dutenentzako hitzordua, gaur

Gaur arratsaldean, 19:00etatik aurrera, berbaldea eskainiko du Deba Garaia higiezin agentziak Arrasateko Txaeta kaleko garajeetan. Hain zuzen, Babes Ofizialeko Etxebizitza alokairuan dituztenei lurrak erosteko aukera ematen die Eusko Jaurlaritzak, eta horren gaineko informazioa eskainiko dute hitzaldian.

## Emakumeak protagonista elkarrizketa zikloan

Emakume Txokoak antolatutako egitarauaren barruan, emakumeak protagonista diren elkarrizketa zikloa prestatu dute. Maite Aristegi elkarrizketatuko du Anaje Narbaizak. Eguazten honetan, urriak 3, izango da, Kultur Ateko Areto Nagusian, 19:00etan.

# B26 mugimendua, murrizketen kontra eta etorkizun duin baten alde

Hilero 26. egunean elkartuko dira protesta egiteko eta asanblada bidez erabakiko dute nolako ekintzak burutu; mugimendu irekia da

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Eguaztenean, irailak 26, manifestazioa egin zuten arratsaldean Bergaran, murrizketen kontra. "1.000 pertsona baino gehiagoren parte-hartzearekin, arrakasta hutsa izan zen", antolatzaileen esanetan. Baina protesta ekitaldia ez zen greba egunera mugatu, izan ere, mugimendu berri bat sortu zuten, asanblada bidez: B26 mugimendua. Hilero, 26. egunean, mobilizazio bat egitea izango du helburu, "etorkizunaren alde borroka egiten jarraitzeko".

Sortu berri duten mugimendu berriak asanblada bidez funtzionatu du: hilabete bakoitzaren 26. egunean asanbladak burutuko dituzte, asanblada horiek herritar denei irekita egongo dira eta asmoa da denen artean erabakitzea zein mobilizazio eraman aurrera. Jendea parte hartzera animatu dadin gura dute bultzatzaileek: "Garrantzitsua da asanblada horretan herritarren parte-hartzea, ikasle, langabetu, langile, jubilatua, gazte, etorkin... Denon artean etorkizun duin baten alde borroka egin dezagun!"

Lehen mobilizazioa zein izango den atzo arratsaldean bertan erabaki zuten: urriaren 26an, 19:00etan, plazan elkartuko dira, martxa edo kalejira zaratatsu bat



Greba egunean, eguaztena, Bergaran egindako manifestazioa. | B26 MUGIMENDUA

burutzeko. Ondoren, berriz ere asanblada egingo dute azaroren 26ra begira, eta horrela hurrenez hurren.

## "Zorionak Bergara"

Bergarako Greba Asanbladak Bergarako herria zoriondu gura izan du, atzoko grebari "beste

behin ere, egundoko erantzuna, eman izanagatik": "Benetan izan da arrakastatsua; salbuespen txiki batzuk kenduta, dena egon da itxita", diote.

Eta joan den martxoaren 29ko grebari espainiar gobernuak emandako erantzunari dagokionez, diote berearekin jarraitzeko asmo irmoa erakutsi duela, murrizketekin: "Agintariek erabaki dute. Multinazionalak, bankuek, patronalak; EAJ, PSOE eta PPren gobernuak erabaki dute: aberatsak aberatsago izango dira eta krisia herritarrok ordainduko dugu. Martxoaren 29ko greba arrakastatsuari espainiar gobernuak emandako erantzuna argia izan da, beraiek beraienarekin jarraitzeko asmo irmoa azaldu dute, murrizketekin; herritarren bizi baldintzak are eta gehiago okertuz eta miseria handituz. Honen adibide garbiak dira oinarritzko errenta jasotzeko baldintzen zailtzea, BEZaren igoera, langabezia prestazioan murrizketak... Nahikoa ez eta oraindik murrizketa eta erreforma gehiagorekin mehatxatzen jarraitzen dute".

Egoera horren aurrean ezin direla eskuak gurutzatuta geratu eta erantzuten jarraitzeko deia egiten diete herritarrei. Hala egin gura dutenen bilgunea izango da B26 mugimendua.



Mariaren Lagundian egiten dituzten biodantza saioetan jasotako irudia. | MENCHU ARJONILLA

## Biodantza eskolak emango dituzte astelehenetan haur eta nagusiendako

Mariaren Lagundia ikastolan izango dira eskolak 17:20an eta 18:30ean

IKA.B. | BERGARA

Pasa den astelehenean, hilak 24, hasi zituzten biodantza eskolak Mariaren Lagundian. Ikasurte berria gainera, nobedadekin dator. Izan ere, aurturteko biodantza eskolak ere egongo dira. Menchu Arjonilla izango da irakaslea.

Eskolak, esan moduan, Mariaren Lagundian izango dira astelehenetan eta bi talde egongo dira. Lehenengoa haurren izango da, 17:20tik 18:20ra. Ondoren nagusien txanda izango da 18:30etik 20:30era. Prezioari dagokionez nagusiek 40 euro ordaindu beharko dute hilean eta haurrek berriz, 20 euro.

## Afektibitate-heziketa

Biodantza afektibitate-heziketa sistema da, norberarekin, bestearekin eta inguruarekin harremanak integratzeko espazio bat eskaintzen duena. Menchu Arjonillaren esanetan zientifikoki demostratuta dago osasunarendako onura asko eskaintzen dituela biodantzak.

Izena emateko edo informazioa jasotzeko 626 66 12 92 telefono zenbakira deitu behar da.

## OHARRAK

### 1970EAN JAIOTAKOEN KINTADA EGINGO DUTE URRIAREN 6AN

70ean jaiotakoak Tartufo jate-txean egingo dute bazkaria eta aurretik, 13:00etan, Ariznoa tabernan elkartuko dira. Izena emateko 687 501 778 telefono zenbakira deitu behar da (Ignacio).

### 1967AN JAIOTAKOEN KINTADA, URRIAREN 20AN

19:30ean Infernukuan elkartuko dira 1967an jaiotakoak. Ondoren afaria Sirimiri jate-txean egingo dute. Izena Elkar fotokopia dendan eman behar da 17a baino lehen.

### 1961AN JAIOTAKOAK URRIAREN 6AN ELKARTUKO DIRA

19:00etan egin dute hitzordua Ariznoa tabernan eta afaria Tartufon egingo dute. Bertarako joateko autobusa egongo da 20:15ean azoka ondoan. Tartufora iristean pasa den urteko argazkien erakusketa egongo da eta 21:30ean afaria. Afalostean dantza-karaokea egongo da. Dixula eta Nahikari tabernetan eman daiteke izena edo [kintoak61bergara@gmail.com](mailto:kintoak61bergara@gmail.com) helbidean.

### 2013KO UDAL EGUTEGIAN PUBLIZITATEA JARTZEKO ESKAERA EPEA ZABALIK

Bergarako Udala 2013ko egutegia prestatzen ari da. Hori dela-eta bertan publizitatea jartzeko interesa dutenek Udaleko Euskara zerbitzura jo dezakete edo 943 77 91 29 telefono zenbakira deitu. Azaroren 9an bukatzen da eskaera egiteko epea. Egutegia aurreko urteetakoaren tankerakoa izango da eta, beraz, publizitatea logotipo moduan joango da.

### YOGA ESKOLAK HASIKO DITUZTE URRIAREN 3AN

Eskolak Mariaren Lagundia ikastolan izango dira eguaztenetan 18:30etik 20:00etara. Ikastaroan izena eman nahi duenak 699 73 40 73 telefono zenbakira deitu behar du.

### Hiru argazkilaritza ikastaro antolatu dituzte azarorako

Guztira hiru ikastaro izango dira; bat oinarritzko argazkilaritza ikastaroa -azararen 5etik 28ra-, eta beste biak, Photoshop programa erabilita -azararen 19tik 29ra-. Plazak mugatuak izango dira eta gehiegizko eskaria egonez gero zozketa egingo da.

Bergararrek lehenetsuna izango dute eta ikastaroan parte hartzeko ezinbestekoa da Windows ezagutzea. Informazio gehiago, kultura etxean edo 943 77 91 59 telefono zenbakian.



# Hilaren 18tik 21era izango da aurtengo txotxongiloen mostra

Euskal Herriko Trikitixa eguna Bergaran ospatuko dute aurten, urriaren 27an

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Ekitaldi potoloak jasotzen ditu kultura sailak urrirako prestatu duen kultura gidak. Tartean daude, esaterako, urtero Bergaran egiten den Nazioarteko Txotxongilo mostra eta Nazioarteko Organoen kontzertuen 13. zikloa. Asteburuan hasiko da, hain zuzen ere, ziklo hori. Zapatuan izango da lehena, San Marina elizan, eta Errenteriako Andra Mari abesbatza eta Ana Belen Garcia organo jolea izango dira kontzertua eskainiko dutenak. Ziklo honetan, urriko lau zapatuetan kontzertu bana eskainiko da Santa Marina parrokiari, 20:00tan. Azken egunean, gainera, Aritzeta Abesbatzak eta Aitor Olea organo joleak ere emankizuna eskainiko dute.

## Txotxongiloak

Urriaren 18tik 21era izango da, adibidez, aurtengo txotxongiloen mostra. Euskal Herriko, Kataluniatik, Andaluziatik, Argentinatik edo Portugaletik etorriko dira antzerki taldeak, besteak beste. Euskal Herrikoen artean, adibidez, Iñaki Mata antzuolarra egongo da. Urtero moduan, aurten ere herriko gune ezberdinetan izango dira ikuskizunak, hala nola, kalean, gaztetxean, Zabalotegin edo Pikupen.



2006an egindako Nazioarteko Txotxongiloen mostran ateratako argazkia. | GOIENA

## Trikitixa eguna

Bestalde, aurtengo Euskal Herriko Trikitixa Eguna Bergaran ospatuko dute. Urriaren 27an izango da hori, eta egun osoko egitaraua prestatu du Udaleko Kultura Sailak egun horretarako.

Kalejiran hasiko dute goiza trikitilarietara eta ordubata inguruan Muniben elkartuko dira guztiak. Ondoren, bazkaria egingo dute, frontoian, eta arratsaldean, erromeria egongo da Bide Batez taldearekin. Bazkarira joateko txar-

telak, gainera, salgai jarriko dituzte, 15 eurotan. Horretarako, 943 83 28 28 telefono zenbakira deitu edo [trikitixa@trikitixa.net](mailto:trikitixa@trikitixa.net) helbidera mezua bidali behar da. Txartelak erosteko azken eguna urriaren 11 da.

Hiru hitzordu horiez gain, bestelako hitzorduak ere badatoz urriko kultura gidan. Esaterako, kirol argazki lehiaketako erakusketa urriaren 11tik 28ra Aroztegi aretoan. Musika eta dantzarekin lotutako hitzorduak ere badira, hala nola, DJ jaialdia Zabalotegin zapatuan edo Herrixa Dantzan ekimena domekan.

Ikusentzunezkoak, hitzaldiak, antzezlanak eta zinema ere ez dira faltako hilabete honetan. San Joxepe elkartearen hamabostaldia ere izango da, gainera. Hilaren 15etik 27ra izango da hori.

## Argazkilaritza ikastaroak

Eskaintza horrez gain, bi argazkigintza ikastaro ere antolatu ditu kultura sailak. Azaroan izango dira, baina izenematea urriaren zabalduko da. Lehen ikastaroa, oinarriko argazkigintza digitalari buruzko izango da. 24 ordukoa da, azaroaren 5etik 28ra. Pol-Pol argazkilaritza elkartearen egoitzan emango da eta plazak mugatuak dira. Bestalde, Photoshop bidezko argazkilaritza ikastaroak ere emango dira, has-tapen eta sakontze mailatan. Migel Altuna institutuan emango dira eta horietan ere plazak mugatuak dira. Kultura etxean eman behar da izena: 943 77 91 59.



OIHANA ELORTZA

## Kiroldegiko taberna, zabalik

Labegarrietako kiroldegiko taberna dagoeneko zabalik dago. Agirrebeña jatetxeko jabe den Nagore Merinok du orain taberna eta instalakuntzak kudeatzeko ardura. Hemendik aurrera ordutegi berria du kiroldegiko tabernak: astegunetan 16:00etatik 23:15era, asteburuan 08:00etatik 21:30era eta opor garaian (uda, Aste Santua eta Gabonak) 09:00etatik 14:00etara.

## Jardun elkarteak ere hasi du ikasturte berria

Zapatutik aurrera jarriko dute martxan aurtengo ikasturteko astebururako aisialdia: Txapligu

O.E. | BERGARA

Zapatuan, hilak 6, jarriko du martxan Jardunek aurtengo ikasturterako asteburuko aisialdia: Txapligu. Bergarako 8-12 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago eta zapatu eta domeka (hemendik eta ekainerarte) arratsaldeko 17:00etatik-20:00etara

izango da, Zubietako eskola zaharrean. Ikasturtean zehar irteera desberdinak egingo dituzte. Urteko kuota 42 euro izango da eta Jarduneko bazkide direnek 37 euro ordainduko dute.

Bestalde, asteburu honetan eta hurrengoan, ate irekiak egingo ditu Jardunek. Interesa duen

edozein herritarrek, kultura etxeko bulegora joan edo 943763661 telefonora deitu dezake.

## Eskaintza zabala

Asteburuko aisialdiaz gain, baina, eskaintza zabala du aurten ere Jardunek herritarrendako. Besteak beste, ume eta helduendako dantza eskola, umeendako antzerkia edo bertso eskolan parte hartzeko aukerak eskaintzen ditu. Horrez gainera, amodiozko gutun lehiaketa, txorimalo lehiaketa, jolastoki ibiltaria, kantu afaria, udalekuak edo hitzaldiak, ere eskainiko ditu, besteak beste, Jardunek ikasturte berrian.

## Balitik bidalitako habanera irabazi du postal lehiaketa

Aitziber Galdos eta Eneko Eizagirrek Balitik bidali duten postalak irabazi du udako postal lehiaketa. Postalean habanera doinuan egindako bertso bat idatzi dute bi gazteek, eta horrelaxe kontatu dute Baliko oporraldia. Tunez, Bartzelona, Lizarra, Vietnam edo Landetatik ere jaso dituzte postalak. Lehiaketak jarraipena izango du.



Lehiaketako irabazleak. | JARDUN



Jaietako zapiak lepoan jantzita zituztela hartu zituzten erabakiak udal zinegotziek, egueneko osoko bilkuran. | O.E.

## Erabateko babesia eman dio udalbatzak Idoiagari

Gertaera salatzeke mozio bateratua aurkeztu dute Bilduk eta EAJK

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bergarako gaztetxean jarri duten Lourdes Idoiagaren argazkia eta haren kontrako pankartaren aurrean, erabateko babesia erakutsi zuen udalbatzak eguenean, iraileko ohiko osoko bilkuran.

EAJKo zinegotzi eta alkate ohi Idoiagaren argazkiaren ondoan, *zu zara erraustuko dugun 1. zaborra* irakur zitekeen pankarta jarri zuten Bergarako gaztetxean eta hori salatzeke mozio bateratua aurkeztu zuten Bildu eta EAJKo alderdiek egueneko osoko bilkuran. Ainhoa Galdos EAJKo zinegotziak irakurri zuen mozioa: "Erabateko gaitzespena adierazten dugu, ustez gainditutako garaien itzala gaurkotzen duelako, iraingarri eta mehatxaile delako, eta herriko ordezkari baten kontra egiteak larri-

tasun berezia duelako bere baitan, demokraziaren muina eztxi egiten duelako. Beraz, ordezkatzan dugun herriaren izenean eta baita gurean ere, babesia eta laguntasuna adierazten diogu Lourdes Idoiagari". Mozioa irakurri aurretik eta ostean, eskerrak eman ziren Galdosek Bilduko zinegotzietatik, "babesa eta elkartasuna" emateagatik. Mikel Biain alkateak gaineratu zuen jarrera hori onartezina dela: "Irain eta mehatxutzat hartzen dugu guk ere, eta gaitzetsi egiten dugu erabat".

Egueneko osoko bilkurara herritar asko joan ziren Idoiagari babesia emateko. "Horrelako egoerak kaleratu egin behar dira, eta salatzea etorri gara", adierazi zion GOIENARI Mikel Iturrospek, Oñatiko Uri Buru Batzarreko presidentek.

Preso gaixoen alde

Bestalde, gaixo dauden presoen eskubideen aldeko mozioa ere onartu zuen udalbatzak, mozio bateratua hori ere. Horrela, gai horren inguruan Udalak duen kezka agertu zuten zinegotziek, eta eskatu "nazioarteko eta Espainiako legedia oinarritzat hartuta, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten 13 preso baldintzapeko askatasuna, beharrezkoa duten tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten". Horren berri Madrilko Barne Ministerioari eta Kartzela Zaintzako epaileari bideratzea ere onartu zuten.

Osoko bilkurako beste gaien artean, azoka eta kiroldegiko plaka fotovoltaiakoen proiektua bertan behera uztea onartu zuten, eta horren berri herritarrei zuzenean ematea adostu.

## Aloña Mendi argazki lehiaketaren deialdia, berrikuntzekin

Hiru gai dituzte: 'Gizakia mendian', 'Mendi ingurunea' eta 'Gizakiaren eragina mendian'

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak argazki lehiaketarako deialdia egin du, hainbat berrikuntzekin: izena aldatu eta hirugarren gai bat gehitu diote, eta parte-hartzaileek euren argazkiak salgai jartzeko aukera izango dute.

IX. Aloña Mendi argazki lehiaketan –horixe izen berri– parte hartu gura dutenek urriaren 14a baino lehen entregatu behar dituzte lanak. Epaia azaroaren 9an emango dute. Gainera, argazki onenekin erakusketak egingo dute mendi hamabostaldien baitan. Informazio gehiago [www.concursosdigitales.com](http://www.concursosdigitales.com) atarian.

Orain arte *Mendia eta natura* argazki lehiaketa izan denak bi gai izan ditu. Aurten hirugarren bat gehitu diote: *Gizakia mendian*, *Mendi ingurunea* eta *Gizakiaren eragina mendian* dira hirurak.

Argazkiak salgai edo ez

Bestalde, lehiaketan parte hartzen dutenek euren lanak salgai ipin ditzakete –egileak aukera dezake argazkia saldu edo ez–. Salmentarekin jasotako dirua mendi ingurunean lanean diharduen Baltistan fundazioarendako izango da. Aukera horren alde egiten duten egileen artean Baltistan fundazioko 12 kamisetak zozketatuko dituzte.

## Udalak diruz lagundutako informatika ikastaroak

Urritik abendura arte emango dituzte Ikas Hiru akademian 30 ordukoak eta laburragoak direnak

M.B. | OÑATI

Udalak diruz lagundutako informatika ikastaroak emango dituzte Ikas Hiru akademian. Urritik abendura arte 30 orduko ikastaroak eta laburragoak direnak emango dituzte. Guztira, lau ikastaro.

Horietako hirutan ofimatika izango da nagusi, sakontze maila ezberdinekin: lehenengo, bigarren eta hirugarren mailak.

Laburragoa da (sei ordu) *Zure gauzak nola grabatu* delakoa.

Udalaren laguntza

Interesatuak lehenbailehen eman behar dute izena Ikas Hiru akademian. Ikastaro luzeen prezioa 50 euro da eta laburrarena 10 euro.

Udalak informatika ikastaroendako gastuetarako 4.400 euro ipiniko ditu.

## Auzoetako traste zaharren bilketa zerbitzua martxan ipini dute kamioi berriekin

Udal brigadak hileko bigarren eguenean egiten zuen traste zaharren bilketa egiten hasiko da berriro ere. Irailean jada egin dute bilketa kamioi berriekin. Traste zaharrak batzeko Udalak zuen kamioia matxuratu egin zen, eta zerbitzua bertan behera utzi behar izan zuten. Udalak kamioi berria erosi du eta uztailearen 26ko Tokiko Gobernu Batzarrean, berriro ere, bilketaekin has-teko erabakia hartu zuten.

## Ageriko pintura lehiaketara aurkeztutako lanak ikugai daude kultura etxean, urriaren 11ra arte

Oñatiko Margo Taldeak (OMT) antolatutako ageriko pintura lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai daude kultura etxean, urriaren 11ra arte. 25 lan aurkeztu ziren lehiaketara. Onenak izan ziren Artziniegako Fernando Uretarena, helduen mailan, eta Maddi Altolagirre oñatiarrarena, umeen mailan. Helduen mailan bigarrena Carlos Espiga izan zen eta hirugarrena, Esteban Oroz. Umeen artean Ines Uriarte eta Aritz Arregi sailkatu ziren bigarren eta hirugarren leketan, hurrenez hurren.

## Friendship: ikasleak eta herritarrak elkarrekin

Friendship programan diharduten ikasleei ongietorria egin zieten aurreko astean. Eurekin ekintzak egingo dituzten herritarrekin elkartu ziren Antixena jauregian. Udal ordezkariak ere izan ziren bertan. Lege Soziologia Institutuan diharduten ikasleak martxora arte egongo dira Oñati ikasketak egiten.



LEIRE KORTABARRIA

## ARETXABALETAKO

# Urria kultura hitzorduz beteta dator Aretxabaletara

Eguenean, hilak 4, Doke taldearen *Paradisuko Atean* antzerkia egongo da

**AMAI TXINTXURRETA** | ARETXABALETAKO  
Urriari sartu gara dagoeneko eta hilabete honetan badago zertaz gozatu Aretxabaletan.

## Ekitaldiak

Antzerkiari dagokionez, egue-  
nean, *Paradisuko Atean* Doke-  
ren antzerkia eskainiko dute  
Arkupeko Zaratia aretoan  
19:00ean. Toki eta ordu berean  
izango dira beste antzerki hauek  
ere: hilaren 11n *Hil arte bizi*,  
hilaren 18an Oihulari Klown-en  
*Divinas* eta 24an *Gure bide  
galduak*.

Haurrendako ikuskizunak  
izango dira Zaratian 17:00ean,  
hilaren 14an *Jon Beldurgabea*  
eta 28an *Martxan*.

Ikus-entzumezkoak ere eskai-  
niko dira urriaren 18:00ean. Hila-  
ren 15ean *Gaur zortzi azokan*  
eta 19an *Emakumeen jokaerak  
hizkuntzaren jarraipenean: amak,  
euskararen familia transmisioan*.

Erakusketa ere izango da  
8tik 22ra bitartean: *Emakume  
kubatarak, iraultza bat beste  
baten barruan*. Bestelako ikas-  
taroak ere eskainiko dituzte.



Doke taldeko antzezle bat. | GOIENA

## ARETXABALETAKO

# Kuku Miku elkarteak hazkuntza taldeak martxan jarri nahi ditu

A.T. | ARETXABALETAKO

Udalerrian sortuko diren haz-  
kuntza taldeetan izena emate-  
ko epea zabalik dago. Hain  
justu ere, Kuku Miku elkarteak  
gura ditu martxan jarri haz-  
kuntza taldeok.

Zehatz esanda, bi talde egin  
nahi dituzte: zero eta hiru urte  
bitarteko umeak dituzten fami-  
liendako; eta hiru eta sei urte  
bitarteko haurrak dituzten  
famiendako.

Bi ordutegiren artean auke-  
ratu beharko dute: 10:30etik  
12:30era edo 18:00etatik 20:00e-  
tara. Behin hori eginda, taldeak  
izen-ematearen arabera anto-  
latuko dituzte Kuku Mikuko  
elkartekoek.

## Izen-ematea

Epeari dagokionez, parte har-  
tzeko hilaren 10a baino lehen  
eman beharko da izena. Bi modu  
daude horretarako; Ainarari 650  
54 68 39 telefonora deituta edo  
*kukumikuelkartea@gmail.com*  
helbidera idatzita.

Ordaindu beharreko kanti-  
tatea taldekide kopuruaren ara-  
berakoa izango da, baina ideia  
bat egiteko, joan zen urtean 15  
euro ordaindu behar izan  
ziren.

Lehenengo saioa hilaren 15ean  
izan daitekeela diote Kuku Miku-  
ku elkarteak ordezkariek, dena  
dela, taldeak osatu ondoren par-  
te-hartzaileei zehatzago infor-  
matuko ditela azaldu dute.

## ARETXABALETAKO

# Aretxabaleta nagusiekin atsegina den aztertuko dute Basotxokoek

A.T. | ARETXABALETAKO

Atsegina al da Aretxabaleta  
nagusiekin? Galdera horixe  
planteatu dute Basotxo erreti-  
ratuen elkarteak. Horretarako,  
gai hauek aztertuko dituzte:  
kaleen egoera, garraioak,  
etxebizitza, gizarte parte-har-  
tzailea, errespetua eta gizarte-  
ratzea, herritarren partaidetza  
eta enplegua, komunikazioa eta  
informazioa eta gizarte eta osa-  
sun zerbitzuak.

Gai horiei guztiei buruz  
eztabaidatzeko taldeka lan egi-  
tea nahi dute Basotxokoek eta  
informazioa jaso nahi dutenei  
ateak zabalduko dizkiete gaur,  
astelehena eta baita eguazten

eta eguenean ere 17:00etatik  
18:00etara bitartean.

## Helburuak

Azterketa horrekin lortu nahi  
dituzten helburuak lau dira:  
Aretxabaletari buruzko euren  
datuak ateratzea, Udalarekin  
kolaboraziozko beste bide bat  
zabaltzea, zenbait lagun talde  
lanean inplikatzeko eta berba  
egiteko erraztasuna hartzea.

Hori guztia egingo dute Osa-  
sunerako Mundu Erakundeak  
martxan duen mugimendu inter-  
nazionalaren barruan eta Zahar-  
tze Aktiboaren Urte Interna-  
zionala ospatzen den hone-  
tan.

## ESKORIATZAKO

# Presoen familiakoentzako diru-laguntzak emango dira

A.T. | ESKORIATZAKO

Eskoriatzako Udalak diruz lagun-  
duko ditu Euskal Autonomia  
Erkidegotik kanpo espetxeren  
batean dauden presoen familia-  
koak, horiek ikustera joandakoan  
izandako gastuei aurre egin ahal  
izateko.

2012ko ekainaren 21ean egin  
zen osoko bilkuran Udalbatzarrak  
hasiera batean onartu egin zituen  
garraiorako banakako diru lagun-  
tzak, senitartekoren bat EAetik  
kanpo espetxeren batean duten


pertsonentzat edo EAetik kanpo  
epaitegietara auzipetu gisa joan  
beharra duten eskoriatzarrentzat.  
Oinarrien iragarkia Gipuzkoako  
Aldizkari Ofizialean argitaratu  
ostean eta alegaziorik aurkeztu  
ez denez, oinarriak behin beti-  
kotzat jotzen dira.

Eskaerak aurkezteko epea  
abenduaren 10ean amaituko da  
eta gizarte zerbitzuetan trami-  
tu beharko da 943 71 31 36ra dei-  
tuta edo *beronika@eskoriatza.net*-  
era idatzita.

## ESKORIATZAKO

# Eskoriatzako 100 erretiratu Galizia aldera abiatu dira gaur eta astebeteko egonaldia egingo dute bertan

Galiziara irteera antolatu du Olazar erretiratuen elkarteak.  
Gaur, astelehena, abiatu dira eta domekara bitartean, besteak  
beste, toki hauek bisitatuko dituzte 100 erretiratu inguruk: A  
Coruña, Morte-Fisterrako kosta, Santiago de Compostela,  
Pontevedra eta Sansenxo. Bi autobus irten dira Eskoriatzatik  
eta ondo pasatzeko eta parrandarako gogoia ez zaie falta  
izan.



**ARETXABALETAKO**  
Lanbide Eskola

2012/2013 IKASTURTEA  
**IKASTAROAK DOHAINIK**  
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN  
ZIURTAGIRI  
BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)  
KATALOGO MODULAR BERRIA


ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	Orduak
(FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0089_2 Txirbil-harroketa bidezko prozesua	UF0876 Zehaztapen teknikoak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan UF0991 Prozesuen koste balioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	60 40
	MF0090_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio makina eta sistemak prestatzea	UF0880 Fabrikazioen prozesu osagarriak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan	70
	MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	UF0881 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioen prozedurak UF0883 Mekanizatutako txirbil-harroketa bidezko produktuen egiaztapena	80 30
(FMEO0110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG	MF0099_2 Arku elektroarekin elektrodo estali bidezko soldadurak egitea	UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa	70
		UF1623 Rutilozko elektrodo estaliekien karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea	90
		UF1624 Basiko elektrodo estaliekien karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea	90
	MF0100_2 Gas babeslepeko arkuarekin elektrodo ez-konsumigarriaren bidezko soldadurak (TIG) egitea	UF1625 Elektrodo estaliekien karbono altzairuak, altzairu herdoilgaitzak eta beste material batzuk egiturak soldatzea	90
(FMEO0210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG	MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiektio termikoak egitea	UF1672 Oxigas soldadura	70
(SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA	MF0249_2 Etxean egiten den higieena eta osasun arreta	UF0119 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen ezaugarri eta higieen-osasun beharrak	70
		UF0120 Etxean menpekotasun egoeran dauden pertsonen elikagaien administrazioa eta tratamendua	50
		UF0121 Etxean menpekotasun egoeran dauden pertsonen ahalmen fisikoak hobetzea eta lehen sorospenak	50
(SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN DAUDEN MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA	MF1017_2 Erakundeetan, higieen-elikaduraren arretan esku hartzea.	Erakundeetan, higieen-elikaduraren arretan esku hartzea	70

**LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)**


ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: FMEO0210	Soldadura oxigas eta soldadura MIG/MAG	430
ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: FMEH0109	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa	280
ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: TMVLO109	Mantenimendu eragiketa osagarriak ibilgailu elektromekanikoetan	270
ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: SSCS0208	Erakunde sozialetan dauden menpeko pertsonen arreta soziosanitarioa	480

**KATALOGO MODULARRETIK KANPO**


Altueran lan egitea	20
Garabietan lan egitea	20
Eskorgan lan egitea	20
Soldadoreen homologazioa	60




**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO



**HOBETUZ**  
Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua  
Langileen Prestakuntzarako Eskola Fundazioa



Europako Gizarte Funtzia




**lanbidez** heziketa  
formación profesional

ETXEBARRI AUZOAN Z/G 22 Pk.  
20550 ARETXABALETAKO (GIPUZKOAN)

WWW.IARETXABALETAKO.COM  
IA@IARETXABALETAKO.COM

T. 943 797 900 / 943 797 943  
F. 943 770 955





Aramaio Basarri Barri fundazioaren Mendiolako zentroaren inaugurazioa, maiatzaren 30ean. | JOKIN BEREZIARTUA

**ARAMAIO**

## Mendiolako Ikerketa eta Berrikuntza zentroan lanean dabilta dagoeneko

Sagardogileak hasi dira ekoizten eta laster kontserbak egiten dituen Irikiñ taldea sartuko da; Idoia Beitia da ABB fundazioaren udal ordezkari berria

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Irailaren 25eko osoko bilkuran izendatu zuten Idoia Beitia Aramaio Basarri Barri fundazioaren Udaleko ordezkari. Ingurumen zinegotzia da egun, eta denbora batez kanpoan egon ostean kargu berria hartu du.

Izan ere, ABB fundazioarena proiektu garrantzitsua da Aramaio Udalarendako: "Bueltan etorri naizenean, ardura banaketa berriro egin dugu. Izan ere, nik Kultura Sailean aritu behar nintzen hasieran, baina Udalak ikusi du Ingurumen Sailean beharra zegoela eta ABBrena proiektu estrategikoa dela", esan du.

**ASE eta Irikiñ, oraingoz**

Maiatzaren 30ean inauguratu zuten Mendiolako Ikerketa eta Berrikuntzara zentroa. Udalak lehen sektorearen alde egindako apustuaren emaitza da zentro berria, beti ere Arabako Diputazioaren laguntzarekin gauzatu. Oraindik hirugarren fasea amaitzeke badago ere, Aramaio zentrobait ekoizle hasi dira lanean.

Aramaio Sagardogileen Elkarteko kideak, esaterako, abuztuaren jarri ziren martxan.

Sagardoa ekoiztu dute dagoeneko eta sagar zukua egiten aurreratu dira, Beitiaren arabera: "Aste pare baten espero da zukua egiten hastea. Talde horrez gain, Irikiñ taldea ere badago, kontserbak egiten dituen elkarte. Irikiñekoek ere eskatu zuten Mendiolako zentroan lan egiteko aukera izatea eta dagoeneko materiala gertu dute martxan jartzeko. Hori guztia gora igo eta dena txukundu ostean lanean jartzeko moduan egongo dira. Oraingoz

bi elkarte horiek daude martxan; poliki-poliki joango gara beste ekoizle batzuei zabalitzen", azaldu du ABB fundazioaren ordezkari berriak.

**Preso gaixoen aldeko mozioa**

Bestalde, martitzeneko osokoan preso gaixoen aldeko mozioa onartu zen Bildu eta Aramaio Alkartasuna alderdien aldeko botoekin. EAJko Iñaki Nafarrate abstenitu egin zen.

Presoen egoeraz kezkatuta, nazioarteko eta Espainiako legegialdi oinarri hartuta, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru preso baldintzapeko askatasuna eskatzen du Aramaio Udalak. Madrilgo Barne Ministerioari eta kartzela zaintzako epaileari bideratuko diote ondoren erabakia.

Azkenik, joan den aste osokoan urriaren 21eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan mahaietan egon behar diren herritarrak ere zehaztu zituzten, zozketa bidez. Datozen egunotan jasoko dute jakinarazpena.

**ESANAK**

**"Udalarendako ABB proiektu estrategikoa dela ikusi dugu"**

IDOIA BEITIA | INGURUMEN ZINEGOTZIA

**LEINTZ GATZAGA**

## Depositu berritik hasi dira hartzen ura Gaztainuzketako mendi etxeetan

Era berean, Goierri auzora doan errepeidea konpontzen dabilta egonkortu eta gogortzeko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagaingo ur depositu berriaren lanak orain dela hilabete batzuk bukatu zituzten, baina Gaztainuzketarainoko lotunea egiteko zegoen. Dagoeneko lan horiek ere bukatu dituzte, eta egunotan hasi dira depositu berritik ura hartzen Gaztainuzketako mendi etxeetan.

Ur jario txiki baten erruz depositua hustu egin zela aste bukaera batean jakinarazi dute Hirigintza Saileko arduradunek, baina behin arazotxo hori konponduta ez dute inolako beste gorabeherarik izan. Hemendik aurrera Gaztainuzketako mendi etxeetan ez dute ur faltaren beldurrik izango.

Hurrengo pausoa depositu horretatik Goierri aldeko etxetara eroatea ura da, baina horretarako beharrezkoa den finantzazioari zelan egin aurre erabaki behar du Udalak.

**Goierriko bidea konpontzen**

Bestalde, Goierri auzora doan errepeidea konpontzen hasita daude. Lur mugikorren gainean dago kokatuta errepeide hori, eta asmoa da egonkortzea eta gogortzea. Dagoeneko lanik garrantzitsuenak egin dituzte, eta orain arekak egiten dabilta urak behar bezala jasotzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu du lan horien kostua.

**ELGETA**

## Zozketaz aukeratuko dituzte aurten Eskola Kontseilurako bi kide

Guraso elkartearen ere egin dute kide berrien aurkezpena; egunean egin zuten batzarra

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hogeitabat guraso elkartu ziren egunean eskolako musika gelan Maala guraso elkartearen ikasturte hasierako batzarra egiteko. Aurreko akta onartu, 2012-2013 ikasturteko balantze ekonomikoa baieztatu, eta Eskola Kontseiluko kide berrien izendapenak egin zituzten.

Ikasturte honetan lau lagunek uzten dute Eskola Kontseilua, hala eskolako gurasoen artean bost kide berri aukeratu behar dira; lau titularrak eta bat ordezkaria. Hiru gurasok aurkeztu dute euren burua Eskola Kontseiluko kide izateko. Bi falta dira: laugarren titularrak eta ordezkari bat. Aukeraketa zozketaz egitea erabaki

zuten eguneko batzarrean. Ikastetxeko guraso guztien—aitak zein amak—zerrenda osatuko da, eta zozt egingo da.

**Guraso ordezkari berriak**

Guraso elkartearen zuzendaritza berria ere aurkeztu zuten egunean. Presidente kargua Iker Irazabalek hartu du, eta presidenteordea Iratxe Bravo da. Gainerako batzordekideak dira Ziortza Martin—idazkaria—, Mertxe Anasagasti eta Rakel Moral—diruzainak—, Iratxe Belar—ingeleseko arduraduna—, Sandra Agirre—elkartearen eta zentroaren arteko harremanak—, Mari Carmen Matilla, Lierni Mendizabal, eta Larraitx Zeberio.



Maalako bi guraso izan ziren txorimalo lehiaketako epaimahaikideak. | L.Z.

**ANTZUOLA**

## Batzarrak egingo dituzte 2013ko aurrekontua herritarrekin eratzeko

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Parte-hartzea komunikatzeko zein lanerako bide gisa ulertzen duela azaldu du Udal Gobernuak kaleratutako ohar baten. Horretarako, komunikazio bide horren lehen pausu gisa, irailean hasi eta abendura bitartean Udalak 2013rako aurrekontuak herritarrekin eratu nahi ditu.

Hala, prozesua bi fasetan banatuko da: lehen etxe etxe banatuko den galdera sortan oinarrituko da; bertan, herritarren lehen pausu gisa, irailean hasi eta abendura bitartean Udalak 2013rako aurrekontuak herritarrekin eratu nahi ditu. Lehen fase hori urriaren 24an 19:00etan Torresoroan egingo den ondorioen aurkezpenarekin amaituko da. Ondoren, arloko bilerak egingo dira. 2013ari begira egin nahi diren ekintza, plan eta abarren lehentasunak zehazteko.

**Arloko batzarrak**

Esan bezala, bigarren fasean, arlo ezberdinetako bilerak egingo dira.

Lehen batzarra azaroaren 5ean egingo da: Gazteria, Kirola eta Hezkuntza batuko dituen; bigarrena, aldiz, azaroaren 7an: Hirigintza, Ingurumena eta Nekazaritza jasoko ditu; eta hirugarren eta azken egunean, azaroaren 8an, Kultura eta Euskara arloen gaineko batzar irekia egingo da. Udal Gobernuak azpimarratu nahi du herritarrei zabalik dauden batzarrak direla.

Denak Olanaren egingo dira, arratsaldeko zazpitan hasita. Bi fase izango dituen prozesu horren asmoa da, besteak beste, 2013ko aurrekontuak herritar guztien artean eraikitzea, parte-hartzea bultzatuta.

## DEBAGOIENA EZAGUTZEN



**JAKION**  
Jakionek emandako  
**Produktu sorta\***  
\* Jakioneko produktuz osatutako otarrea.

**Joan den zapatuan herri lasterketa bat izan zen, euskararen alde. Gure bailarako zein herritan izan zen?**

Argazkia eta galdera > Joxefe Diaz de Tuesta

**Parte hartzeko**

Telefonoz: 943 25 05 05  
SMS bidez: Bidali KLUBA ERANTZUNA [ bazkidearen zenbakia ] 215800 zkra.  
E-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
Whatsapp bidez: 688 69 00 02

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Atera etekina

goienakluba 2012

**%10** eko deskontua



• %10eko deskontua, 20 eurotik gorako erosketetan.

### LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL

**AQUARIUM**  
Donostiako aquarium-a  
Donostia, 943 44 00 99

**ARGIA**  
euskarazko aldizkari orokorra  
Lasarte-Oria  
943 37 15 45 - 943 37 34 03

**AVIA MECA**  
gasolindegia  
Arrasate, 943 79 13 39

**BEGINDO**  
optika  
Aretxabaleta, 943 79 98 21

**EUREKA!**  
zientzia museoa  
Donostia, 943 01 24 78

**ESKO SPORT**  
kirol denda  
Eskoriatza, 943 71 52 96

**GAHIR**  
fisioterapia-osteopatia  
Eskoriatza, 943 71 43 41

**GAES**  
entzumen zentroa  
Arrasate, 943 71 27 93  
Bergara, 943 76 94 55

**GUZTIZ EDER**  
edertze zentroa  
Oñati, 943 78 01 46.

**IKER**  
SUKALDEAK  
IKER  
sukaldeak  
Arrasate, 943 79 00 43  
Oñati, 943 53 35 48

**IZENADUBA BASOA**  
Euskal Herriko parke mitologikoa  
Mungia, 94 674 00 61

**LASTAI**  
haurtzaintza eta atseden gunea  
Gasteiz, 945 35 85 59

**LILURA**  
EDERTZE INSTITUTUA  
edertze zentroa  
Bergara, 943 76 31 71

**MULTIOPTICAS**  
lehen zerbiztu optikoetan  
optika  
Arrasate, 943 79 29 95  
Bergara, 943 76 15 75

**NAREN**  
fisioterapia zentroa  
Aretxabaleta, 943 08 21 89

**RENAULT AUTOBERRI**  
RENAULT AUTOBERRI kontzesionarioa  
Arrasate, 943 71 24 72

**TXURI URDIN**  
izotz jauregia  
Donostia, 943 46 44 00

**TXURI URDIN**  
izotz jauregia  
Donostia, 943 46 44 00

## DVD

**'Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa'**

DVD dokumentala  
36ko gerraren eta haren osteko krudeltasunaren testigantza jasotzen duen DVD dokumentala.

Parte hartzeko epemuga: Urriak 10.



Intxorta 1937  
Kultur Elkartea



**Parte hartzeko**

Telefonoz: 943 25 05 05  
SMS bidez: Bidali KLUBA DVD [ bazkidearen zenbakia ] 215800 zkra.  
E-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
Whatsapp bidez: 688 69 00 02

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

Urteko kuota: 50 €. | Tel.: 943 25 05 05  
e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) | [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!



# KIROLA

**FUTBOLA**

## Puntu ona bi taldeendako, derbi tipiko batek izan ohi dituen osagai guztiekin

UDAKo Oxel Apraitzen golari ederto erantzun zion Aimar Lizarrak lehiako azken txanpan

**EMAITZA**

ALOÑA MENDI

**1-1**

ARETXABALETA

**FITXA TEKNIKOA**

**Aloña Mendi:** Aginagalde, Olalde, Garmendia (Moreno 80.min), Palacios, Bikuña, Irizar (Lizarra 60.min), Uribetxeberria, Zubia, Juaristi (Palacios 69.min), Zelaia, eta Carpintero.

**Aretxabaleta:** Castellano, Barrutia, Arroitauregi, Arriaran, Etxabe, Igartua, Eraña, Perez (Arizmendiarieta 45.min), Agirre (Apraitz 45.min), Hernandez (Badillo 45.min) eta Urtzelai (Etxeberria 55.min).

**Bestelakoak:** Derbi baterako ohi baino jende gutxiago Azkoagainen.

**JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI**

Derbi baten osagai guztiak izan zituen atzo Aloña Mendi eta Aretxabaletaren artekoak: lehia borrokatua, gol aukera gutxi eta polemika. Norgehiagokak ez zuen jabe argirik izan, irekita egon zen uneoro, eta joko aldetik ez bata ez besteak ez zuen jokaldi luzerik lotu. Azkoagainen oso zelai estua da eta bigarren jokaldiek berebiziko garrantzia dute han. Eta baita, beraz, aireko baloiek ere; Aloñak oro har jokalaritza altuagoak izan arren, Alberto Albistegiren mutilak ez ziren kikildu.

Baloi bakoitza azkenera arte borrokatu zuten bi taldeek baina apenas izan zen sarrera itsusirik; horren adierazle da Anduaga epaileak lau txartel hori bakarrik atera zituela -hiru Aloñari eta bakarra UDARI-. Beraz, gol aukera gutxi izan ziren. Garbiena Oinatz Agirre aurrelari aretxabaletarrak izan zuen lehen zatiko 30. minutuan: Aitor Perezen pase eder baten ostean bakarrik geratu zen Mikel Aginagalde atezainaren aurrean. Atzetik zuen atzelaria driblatu bai, baina ez zuen baloia sarera bidaltzen asmatu. Horrez gain, ez zen jokaldi aipagarriarik izan lehen zati osoan, estrategia jokaldi batzuetan sortutako arrisku apurra salbu.

**Polemika bigarren zatian**

Bigarren zatirako Albistegik hiru jokalaritza aldatu zituen. Hobeto

irten ziren aretxabaletarrak baina Andoni Azkargortaren mutilek denboraz erreazionatu zuten. 66. minutuan heldu zen partiduko lehen jokaldi eztabaidagarria: Aloñakoak asko kexatu ziren UDAKo atzelari batek baloia eskua-ekin jo zuela eta marrazainak bandera altxatu zuenean. Handik gutxira heldu zen partiduko lehen gola, hori ere polemikaz josia. Marrazainak jokoz kanpoko adierazi ostean Aloñako atzelariak gelditu geratu zirela aprobetxatu zuen Julen Erañak Oxel Apraitzi pasea egin eta atezainaren aurrean bakarrik uzteko. Apraitzek, noski, ez zuen hutsik egin; 0-1 eta Aloñako jokalaritza zein jarraitzaileak sutan. Epaileak abantailaren legea adierazi zuen, denen harri-durarako.

**Emozioa amaierara arte**

Epailearen erabakiak eragindako haserreagatik akaso, etxeko taldeak are oldarkorrago egin zuen UDAREN atterako bidea. Eta saiakerek eman zuten bere fruitua: Aimar Lizarrak maisuki bidali zuen baloia sareetara buruz, ia partidua osoan ikusi zen jokaldi onenean. Baina emozioa ez zen hor amaitu, epaileak amaiera adierazi arte bi taldeak saiatu ziren hiru puntuak eskuratzen. Datorren jardunaldian beste derbi bat izango dugu, UDAK Bergara hartuko du Ibarra.



Aloñako Unai Bikuña eta UDAKo Julen Arriaran baloira eramateko lehiari atzo, Azkoagainen. | JULIO CALLEJA

**ANDONI AZKARGORTA | ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA**

**"Pozik nago puntuarekin, zenbait unetan eurak baino hobeto egon arren"**

Epailearen erabakiak gustatu ez arren bere taldea ondo ikusi zuen atzo.

**Derbia zen eta ez da polemikarik falta izan.**

Joko aldetik garbia izan da eta jokalaritza guztien jarrera ona izan da. Hala ere, epaileak hartu dituen

zenbait erabakik berotu dute giroa. Emozioa izan du, batez ere azken txanpan.

**Nola ikusi duzu zure taldea?**

Bederatzi puntutik bi bakarrik aterra ditugu baina taldeak sentsazio



J.B.

onak transmititzen ditu. Hiru partiduetan ondo lehiatu dugu eta epailearen erabakiek baldintzatu gaituzte. Lana ondo ari gara egiten; taldea sinetsita dago bere lanarekin.

**Eta nola ikusi duzu UDAK?**

Oso talde zaila da. Ondo jarritakoa, kalitate handikoa. Saillapeneko goiko postuetan egongo da. Pozik nago lortu dugun puntuarekin nahiz eta zenbait unetan eurak baino hobeto egon. Berdinketa justua izan dela uste dut.

**ALBERTO ALBISTEGI | ARETXABALETAKO ENTRENATZAILEA**

**"Bigarren jokaldietan ez gara fin ibili; nola joan den ikusita, ona da berdinketa"**

UDAREN jokoak gustatu ez arren, berdinketa ona da Albistegirendako.

**Puntuak ontzat ematen duzu?**

Merezitakoa izan da. Ez dugu ondo jokatu baina eurak ez dira hobeto ibili. Azkoagainen zelai estuegia da eta bigarren jokaldiek berebiziko garrantzia dute. Eta bigarren baloi horietan ez gara fin ibili. Aloñak etxean badaki nola jokatu eta hori aprobetxatu dute. Partidua nola joan den ikusita, berdinketa ona da.



J.B.

**Ez duzue hirugarren garaipena jarraian lortzerik izan.**

Goazen lekura goazela irabaztera joaten gara, baina beti ez da posible izaten. Bederatzi puntutik zazpi puntu lortu ditugu eta beraz, pozik gaude oraingoz.

**Epailearen lanarekin konforme al zaude?**

Kontaktua dagoen jokaldi guztietan ezin da falta adierazi, bestela ez dago partidurik. Gehiago utzi behar dute jokatzeko baina gaur, orokorrean, ez da gaizki aritu.



Bergara taldeko jokalariek, beroketa ariketak egiten . | JULIO CALLEJA

## OHOREZKO ERREGIONALA

## Deskontuan sartutako gol bati esker irabazi zuen Bergarak (1-0)

Aurrera Ondarroak oso lehiakorra dela erakutsi zuen zapatuan Agorrosinen; kórner baten heldu zen gola

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Denboraldiko bigarren garaipena lortzeko gogotik izerditu behar izan zuen Bergarak zapatuan. Izan ere, norgehiagoka parekatua izan zen Aurrera Ondarroaren aurka jokaturakoa. Partiduak ez zuen jabe argirik izan eta ate aurrean izandako aukerei dago-kienez nahiko parekatuta aritu

ziren bi taldeak; talde bakoitzak bi edo hiru argi izan zituen gutxienez. Horien artean aipatzekoa da Bergarako aurrelari batekin lan-gara bidali zuen baloia.

Bada, norgehiagoka berdinketarekin amaitu behar zela zirudienean, estrategia jokaldi baten heldu zen etxeko gol. Arauzko denbora gaitzuta zela

heldu zen, kórner baten. Julen Iñurrategi atzelariak burukada eder batekin sareetara bidali zuen baloia.

### Bi taldeak, oso lehiakorrak

Nicasio Galan *Neka* Bergarako entrenatzailearen arabera, asko borrokatutako partidua izan zen. Ondarroako taldea goraiatu zuen: "Oso talde lehiakorra da, asko borrokatzen duena. Ez dute asko nabarmentzen den jokalaririk baina talde moduan oso ondo funtzionatzen dute. Irabazteko talde zaila da".

Bergara, baina, ez da kikiltzen den taldea: "Defentsa lan ederra egin dugu. Eta maila honetan bereziki garrantzitsua da atzean ondo aritzea". Estatistikek defentsako lan ona berresten dute, Bergarak hiru partidutan gol bakarra jaso du-eta. Datorren jardunaldian derbia jokatu dute Aretxabaletaren aurka.

## EMAKUMEZKOEN LIGA

### Ondo borrokatu arren, Mondra esku hutsik itzuli zen Gasteiztik

Min egin zien arrasatearrei partidua bukatzeko 20 segundoren faltan Gasteizen atzo jaso zuten ezusteko golak. Min handia egin ere, izan ere, partidua borrokatu eta parekatua jokatu zuten Aurrera Vitoriaren kontra; azkenean, baina, esku hutsik itzuli ziren Ezkurraren neskek.

## EUSKADIKO LIGA

### UDAKo gazteek etxean galdu zuten Irungo Real Union taldearen kontra

Gazte mailako Euskadiko Ligako laugarren jardunaldian Aretxabaletako mutilek huts egin zuten etxean, Irungo Real Unionen aurka. Garaipen aurka izan zen, azken emaitzak erakusten duenez (0-3). Aretxabaletarrek ez dute liga hasiera ona egin eta sailkapeneko beheko postuetan daude.



OHOREZKO ERREGIONALA

JULIO CALLEJA

### Epaileak baldintzatutako porrota

Mondra burua altza ezinik dabil liga hasieratik: lehen hiru partiduetan ez du punturik lortu. Atzo epaileak baldintzatu zuen Oartzunen aurkako lehia, izan ere, Arrasateko hiru jokalariek egotzi zituen –Markel Crespo, Mikel Gonzalez eta Jon Ander Ormaetxea– eta kanpokoek penaltiz lortu zuten norgehiagokako gol bakarra (0-1).

*Udazken- neguko kolekzio berria*

**Mirari**  
JANTZI-DENDA  
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93  
*Neurriak 38tik 60ra*

## SASKIBALOA

# MU irten zen garaile intentsitate eta emozio handiko norgehiagokan

Partidua 66-66 berdindu ostean, 15-9 gailendu ziren luzapenean Larreategiren mutilak

## EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

## 81-75

ASKARTZA CLARET

## JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Partidu ederra jokatu zuten zapatuan MU eta Leioako Askartza Claret taldeek. Saskibaloia gustuko ez duenak ere gozatuko luke Iturripen ikusitakoarekin. Ez zirudien denboraldiko lehen partidua zenik: erritmo bizia eta intentsitate handia izan zituen.

Etxeko taldeak agindu zuen ia partidu osoan zehar. Arrasatearrak izan ziren erritmoa jarri zutenak, eta markagailuan oneoro joan ziren aurretik. Fisikoki talde indartsuagoa da Askartza Claret baina Josu Larreategiren mutilak azkarrago eta eraginkorrerago jokatu zuten.

Hamar puntuko aldea izan arren, Eskoriatzako entrenatzaileak behin baino gehiagotan errepikatu behar izan zien jokalariei lasaiago jokatzeko: "Ikusi nola dagoen markagailua". Orduan igartzen da esperientzia falta; Askartzakoak atzetik joan arren ez zuten burua galdu eta partiduan izan ziren oneoro: "Taldea ona da, esperientziaduna. Ziur sailkapeneko goiko postuetan ibiliko direla. Etxean irabaztea lortu dugu, baina ezin gara erlaxatu; halako lehiak irabazteko oso ondo egin behar dugu lan", zioen Larreategik partiduen amaieran.

## Kanpokoaren erreakzioa

Laurden guztietan izan ziren garaile arrasatearrak, azken laurdenean izan ezik: 19-16/ 18-15/ 20-18/ 9-17. Zonako defentsara aldatu izana izan zen kanpokoaren erreakzioaren gako nagusia, arrasatearren erasoko zenbait huts



Mikel Arejolaleiba baloiarekin. Protagonista nagusietako bat izan zen, batez ere lehiako azken txanpan. | JULIO CALLEJA

egiterekin batera. Partiduko azken segundotan lortu zuten kanpokoek berdinketa, eta luzapenera joan behar izan ziren bi taldeak, arauzko denboran 66-66na berdindu zuten-eta.

Fisikoki hobeto heldu ziren leioarrak, eta hori igarri zen luzapenean. MU Mikel Arejolaleibaren hiruko eder batekin hasi bazen ere, luzapeneko bost minutuetan gehiago izan ziren kanpokoak. Hala ere, Arejo-ren azken saskiratzeek garaipena eman zioten MU-ri. Emozioa barra-barra, benetako saskibaloia.

**JOSU LARREATEGI**  
 MU-KO ENTRENATZAILEA

"Oso ondo egon gara, luzapenera heltzea ez genuen merezi"

Lehen lehia irabazi ostean pozik, baina lana ondo egin behar nabarmendu du Larreategik.



J.B.

**Lehen garaipena, sufritua.**

Bai, emoziorik ez da falta izan. Oso ondo ikusi dut taldea, pozik nago. Azken bi urteetan denboraldia porrotarekin hasi dugu eta oso bestelakoa da garaipenarekin hastea.

**Luzapena ez zen espero...**

Ez genuen merezi luzapenera heltzea, lehen hiru laurdenean zehar euren hobeto aritu gara-eta. Baina zonako defentsa jarri dute azken laurdenean eta horrek min egin digu. Luzapenean, berriz, bazirudien irabaziko zutela baina azken txanpan zenbait saskiratzeetan zorte apur bat izan eta horri esker garaipena lortu dugu.

## SENIOR GIZONEZKOAK

**Merezimenduz galdu zuen MUren bigarren taldeak Hernanin (81-68)**

Mondragon Unibertsitatearen bigarren taldeak ezin izan zuten lehen taldearen garaipena borobildu. Hernani Teklan Laser taldearen aurka jokatu zuten zapatuan kanpoan, eta esku hutsik bueltatu ziren Arrasatera. Etxeko taldea gehiago izan zen eta merezimenduz galdu zuten arrasatearrek. Ligako lehen bi partidua galdu ditu MU-k.

## SENIOR GIZONEZKOAK

**Jipoi ederra jaso zuen Soraluze BKEk Tolosan (79-39)**

Bergarako Soraluze BKE taldeak oso gaizki hasi du denboraldia. Tolosan jokatu zuten zapatuan eta jipoi ederra jaso zuten mahoneroek; 40 puntuko aldegatik galdu zuten (79-39). Oraindik goiz da ondorioak ateratzeko, baina estatistikak ezin dira okerragoak izan: lehen bi jardunaldietan 140 puntu jaso dituzte.

## EMAKUMEZKOAK

**Domekan hasiko du liga Eskoriatzako taldeak, Easoren aurka**

Emakumezkoen saskibaloia aste honetan itzuliko da Manuel Muñoz kiroldegira. Izan ere, domeka honetan, urriaren 7an, jokatu du Eskoriatza Kirol elkarteak 2012-2013 denboraldiko lehen norgehiagoka (11:00). Donostiatik datorren Easo Alde Zaharra taldearen aurka hasiko dute neskek denboraldi berria.

## SENIOR 2. MAILA

**Aloña Mendik erraz gainditu zuen Donibasket (83-65)**

Aloña Mendiren bigarren taldeak garaipen erraza lortu zuen egubakoitzean, ligaren estreinaldian huts egin eta gero. Donibasket taldea etorri zen bisitari moduan Zubikoa kiroldegira, ligako bigarren jardunaldian. Bada, ezin izan zuten ezer egin oñatiarren aurrean; 83-75 gailendu ziren txantxikuarrak.

## GIZONEZKOAK ERREN.

**MU garaile Donostian Atletiko Larrun taldearen aurka (68-72)**

Garaipen garrantzitsua erdietsi zuen MU-ren gazte mailako taldeak Donostiako Atletiko Larrun taldearen aurrean. Lau puntugatik gailendu ziren zerrajeroak: 68-72. Liga ezin hobeto hasi dute, lehen hiru partidua irabazi dituzte-eta. Sailkapenean bigarren dira, Internacional taldearen atzetik.



## ESKUBALOIA

# Azken minutuan puntu bat galdu zuen Bergarak (24-24)

El Pilarreko jokalaria etxeok baino argiago ibili ziren

ANDER MONEDERO | BERGARA

Nahiz eta partidua hasieratik menderatu, Soraluze Bergara Kirol Elkarteak ezin izan zuen ligako lehenengo bi puntuak eskuratu eta bakarrarekin konformatu beharko dute. Lehen zatian, Josexto Muniategiren mutilek Gasteizko El Pilarreko jokalaria baino askoz ere hobeto jokatu zuten, eta ez zuten markagailuan aurre hartzeko arazorik izan. Bergararrek lehenengo minutuetan hiru goleko aldea ateratu zuten eta lehenengo zatiaren bukaerara arte aldea mantentzea lortu zuten (14-11).

Etxeko taldeak bigarren zatian hasieran, lehenengoan egingako joko onarekin jarraitu zuten, baina minutuek aurrera egin ahala, erasoan kale egiten hasi, eta El Pilarreko jokariak markagailuan aldea murrizteko aprobetxatu zuten. Kanpoko taldeak, uneoro jokoa geldituz erakutsi zuten beteranotasuna, eta etxeko jokalaria tranpa horretan erori eta jokoa zuten nagusitasunak alde egin zuen. Gauzak horrela, 45. minuturako El Pilarrek bergararren hiru goleko aldearekin bukatu zuen.

Momentu horretan, talde mahoeroak bere indarra erakutsi eta berriz ere markagailuan aurre hartzea lortu zuen. Bi goletako aldea lortu zuen eta errenta hori partiduen azken bost minutuetaraino mantendu zuten. Momentu horretan, El Pilarreko jokalaria



Bergarako jokalaria bi aurkariren artean jaurti nahian. | JULIO CALLEJA

riak jokoa gelditzen hasi ziren eta bergararrek berriz ere kontzentrazioa galdu zuten. Partidua bukatzeko minutu eta erdi baino

geratzen ez zenean, arbitroak penalti bat adierazi eta bergarako jokalaria bat kaleratu zuten. Gasteiztarrek aukera hori apro-

## Leioatik esku hutsik bueltatu da Ford Mugarri

Ane Herreroren mutilek ezin izan zuten punturik lortu liga hasierako lehenengo partiduan (25-21). Arrasatearrek Askartzaren etxean jokatu zuten eta partiduen lehenengo hiru laurdenetan askoz gehiago izan zen, baina azken 10 minutuetan erasoan huts egiten hasi eta Leioako taldeak hori aprobetxatu zuten partiduari buelta emateko.

Arrasatearrek partidua gogotsu hasi zuten, erasoan eraginkortasun handia erakutsi zuten eta 8. minuturako 0-5 markagailuan aurre hartzea lortu zuten. Bigarren zatian Askartz indartsuago irten zen eta azken minutuetako bultzadari esker, markagailuari buelta ematea lortu zuen.

betxatu eta partidua berdindu zuten. Bergararrek, jokalaria bat gutxiagorekin gola sartzen saiatu ziren, baina kanpotarrek faltak egingen eragotzi egin zuten.

**Irabazten hastera, garrantzitsua** Josexto Muniategiren esanetan, ligako lehenengo partidua etxean irabazteak garrantzi handia du, baina talde bergararra helburu horren atarian geratu zen. Entrenatzaileak jokariengan errotimotik falta ikusi zuen eta partidua jokatu ahala fisikoki hobetuko dutela uste du.

## TXIRRINDULARITZA

## Beñat Etxabek 8. postuan bukatu du denboraldia

A.M. | BERGARA

Denboraldiko azkenengo lasterketa izan zuten zapatu arratsaldean Urretxun Lokatzako txirrindulariek. Lasterketaren lehenengo kilometroetan 11 txirrindulariz osatutako ihesaldia izan zen eta, tartean, Lokatza taldeko Jokin Etxabe, Jon Arantzabal eta Julen Irizar. Lasterketaren aurrealdean talde lan handia egin zuten bergararrek, baina azken kilometroetan, mendeak hasi ziren momentuan, tropelak iheslariak harrapatu eta ziklista denak helmugara batera sartu ziren. Nahiz eta Lokatzako hiru txirrindulariak zuten abantaila galduen ere, Beñat Etxabek bosgarren lekuan bukatu zuen lasterketa.

Bosgarren postuari esker, Etxabek Udazkeneko Kriteriumeko zortzigarren postua mantentzea lortu du, denboraldia forma onean bukatu duela erakutsi du.

### Azarora arte, oporrak

Udazkeneko Kriteriuma bukatuta, txirrindulariek agur esan diote denboraldiari. Lokatzako entrenatzailearen esanetan, txirrindulari bergararrek denboraldi polita egin dute eta azken lasterketara forma onean bukatu dutela azpimarratu du. Orain, ziklista bergararrek azarora arte jai izango dute.

## ARETO FUTBOLA

## Aretxabaletak garaipenarekin estreinatu du areto berria (4-1)

Aretxabaletarrek erraz menderatu zuten Euskalduna; Eskoriatzak ezin izan zuen Debabarrena menderatu (4-8)



Aretxabaletako jokalaria baloia kontrolatzen. | JULIO CALLEJA

A.M. | ARETXABALETA/ESKORIATZA

Ondo baino hobeto hasi du Aretxabaletak Gipuzkoako Liga, areto berria estreinatu eta gainera, erraz menderatu zuen S.D Euskalduna talde andoaindarra. Aretxabaletarrek partiduen hasieratik baloia kontrolatu izan zuten, eta gol aukera garbiak egin ahal izan zituzten. Behin lehenengo gola sartuta, talde urdinak lasaitasun handiagoarekin jokatu zuten.

Minutuak aurrera egin ahala, erabateko nagusitasuna Matikuren, Txitxoren eta Karmonaren goletan bihurtu zen. Gero, azkenengo minutuan, defentsan egingako akats batengatik, talde andoaindarrak gola sartu zuen. Hurrengo astean, aretxabaletarrek Lasarten jokatu du Isu Leihoko taldearen aurka.

### Eskoriatzak etxean porrot

Eskoriatzak ezin izan zuen garaipen batekin liga hasi, izan ere, 4-8 galdu egin zuen Debabarrena Maqcenterren aurka. Nahiz eta bigarren jardunaldia izan, etxekoek lehenengo partidua zapatuan jokatu zuten, aurreko astean atsedendaldia izan baitzuten.



XAKEA

JULIO CALLEJA

## Franco garaile, ezusteko barik

21 jokalarik parte hartu zuen atzo, egubakoitza, Arrasate Hiria Txapelketako hirugarren jardunaldian. Ezusteko barik, Alejandro Francok (Madril) irabazi egin zion Arrasateko Josu Tornayri. Eta gainontzeko bi taulak berdinduta geratu ziren: Asier Etxagibelek (Arrasate) Aitor Alcaideren (Aretxabaleta) kontra jokatu zuen eta David Astasiok (Gasteiz) Egoitz Irureren (Azkoitia) kontra.



Beñat Rezusta beragarra. | XABIER URTZELAI



Ibai Bolinaga arrasatearra. | X.U.

## PILOTA

# Munduko Txapelketan lehiatzeko hautatu dituzte Bolinaga eta Rezusta

Tarbesen jokatuko dute txapelketa, urriaren 28tik azaroaren 3ra arte

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE  
Arrasateko eta Bergarako pilota taldeko Ibai Bolinagak eta Beñat Rezustak 22 urtez azpiko Munduko Pilota Txapelketa jokatuko dute datorren hil amaieran, urriaren 28tik azaroaren 3ra arte.

Txapelketa Frantzian izango da, Tarbes herrian, eta torneoak hainbat modalitate izango ditu: eskupilota –bakarka eta binaka–, paleta narruzko pilotarekin, eta pala motza (ibarrekoez eskupilotan jardungo dute).

Ibai Bolinagak bikotekako txapelketa jokatu du, eta Arrasatekoak Iruñeako Oberena taldeko Iñigo Etxamendirekin osatu du bikotea. Eta Beñat Rezusta beragararrak, berriz, bakarka jardungo du txapelketan.

**DV torneoan, aurrera**  
Bestalde, joan den astean hasi zuten DV torneooko lehenengo kanporaketa ondo gaintitu zuten bi ordezkari horiek. Bazirudien Bolinagak eta Rezustak Munduko Txapelketan izango zutela

burua, baina ez, indarrak gordezko asmo barik kantxaratu eta ondo gaintitu zituzten kanporaketak.

Bolinagak Arrietarekin osatu zuen bikotea, eta Mendinueta eta Castilloren gaintetik pasa ziren (22-8). Azpimarratzekoa izan zen Arrasatekoak atzean egindako partidu ona, Castilok zigor galanta jaso zuen atzean. Rezustak, berriz, 22 urtez azpikoetan Jaka izan zuen bikotekide, eta 22-14 irabazi zieten Victorri eta Lanari. Hala, torneo horretako hurrengo kanporaketa Bergaran jokatu dute, urriaren 13an. Bolinagak eta Arrietak Elezkano eta Tolosa.

## TXIRRINDULARITZA

## Mikel Aristik maila kontinentaleko Euskadi Fundazioan korrituko du datorren urtean

Amateur mailan urtebete egin ostean jauzia egin du Bergarakoak

**X.U.** | BERGARA  
Mikel Aristi txirrindulariak beste aurrerapauso bat egingo du datorren denboraldian, Euskadi Fundazioak maila kontinentalean izango duen taldean korrituko duelako. Amateur mailako Debarrena taldean urtebete egin ostean iritsi zaio beste jauzi bat egiteko ordua, eta Miguel Madariagaren proiektuan izango da.

**Albiste, aurkezpenean**  
Euskadi Fundazioak astean aurkeztu du datorren denboraldiko proiektu berria. Bi talde izango dituzte errepidean, euretako bat maila kontinentalean, eta bestea amateur mailan. Eta hain zuzen, maila kontinentalean egongo diren ziklisten artean dago Mikel Aristi: "Oso pozik nago beste aurrerapauso bat delako, baina oraindik ezer gutxi aurrera dezaket talde berriaz. Ilusioz nagoela denboraldi berrira begira". Hala, abuztuan Kantabrian entrenatzen zebilela izandako eroriketok erreperatzen, Bergarakoak onartu digu desatzen



Mikel Aristi, aurtengo Gorko Igoeran, etxeko saria jasotzen. | JOSETXO ARANTZABAL

**ESANAK**  
"Profesionalekin ibiltzeko aukera izango dugu, pozik nago"

MIKEL ARISTI | TXIRRINDULARIA

dagoela bizikleta gainean entrenatzen hasteko.

**Lokatzako harrobitik**

Mikel Aristi Bergarako Lokatza-Sumofic taldearen harrobiko fruitua da. Azken urteotan ziklistorako dohainak erakutsi ditu; gazte mailan egindako lorpen garrantzitsuenen artean dago Gipuzkoako Txapelketa irabazi

izana, generazio on batez osatutako taldeak lagunduta. Talde hartatik Aristirekin batera amateur mailara salto egin zuten Eneko Lizarralde eta Hodei Orobengoak, eta Jon Riverorekin batera aurtun elkarrekin jardun dute, beste helburu batzuegatik borrokan. Amateur moduko maila gogorrean lehen urtea eginda, guztiek erakutsi dute maila ona, baina Aristi nabarmendu egin da, kategoriako oilarren artean mokoka ibili da-eta (Antzuolan, esaterako, bigarren egin zuen). Lehenengo ere hainbat taldek gertutik zaindutako mutila –Espainiako Selektzioko hamarrekoan egon da– hurrengo pausoa bakarrik egingo du, Euskadi Fundazioan.

**Profesionalekin ibiltzeko aukera**

Bailaran Markel Irizar (Radioshack Nissan) eta Iban Velasco (Euskaltel-Euskadi) ditugu ziklista profesional. Eta maila kontinentala horiena baino bat beheragokoa da. Berez kategoriala profesionala da hori ere, baina maila xumeagokoa; profesionalismora jauzi egin aurreko kategoriala dela esan daiteke. Hala, Aristi datorren denboraldian txirrindulari profesionalekin lehiatu ahal izango du, Mallorkako, Burgosko edota Asturiasko itzulietan moduko lasterketetan.

### Antxintxika krosa egingo dute azaroaren 3an, Bergaran

Antxintxika Triatloi Taldeak antolatuta, azaroaren 3an egingo dute Antxintxika kroserako –Olatz Rementeria memoriale– izenematea zabalik dago. Gainera, aurtengo lasterketa Euskal Herriko Txapelketa izango da. Hala, Soraluez eta Bergara arteko 10 kilometroko lasterketa egiteko [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean eman daiteke izena. Korrika, patin gainean edo gurgildun aukietan egin ahal izango da proba.

### Urriaren 13an egingo dute Arrasate-Oñati lasterketa

Lasterketan izena eman gura duenak [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean egin dezake. Internetez urriaren 11ra arte eman ahal da izena, eta egunean bertan antolatzaileek ez dituzte izenak hartuko. Hala, izena emateko ordaindu beharko dena da: alokairuzko txiparekin 15 euro; txip hori dutenek, ostera, 13 euro. Oñatitik Arrasatera autobusez joanez gero 2 euro gehiago.

Josu Tornay | Arrasate-San Andres Xake taldeko jokalaria eta presidentea

# "Oso ona da Espainiako jokalaria onenetarikoak gure txapelketa aukeratzea jokatzeko"

- ▶ Arrasate Hiria Txapelketan buru-belarri dihardute asteotan; egubakoitzean lehiatu ziren
- ▶ Ibarreko xake taldeei etorkizun zaila ikusten die Arrasateko klubeko presidenteak

UBANE MADERA | ARRASATE

Josu Tornay ingeniariak (Barzelona, 1971) dio xakera gerturatu eta ulertzen duena engantxatu egiten dela. Berak aspaldi egin zuen hori, 14 urterekin. Eta 26 urteko ibilbidearen ostean, argi dago ez dela batere damu. Kontrara, ahotsean igartzen zaio xakearekiko duen "engantxea"; eta beraren palmaresean du horrek isla: 1989an irabazi zuen lehen txapela, Kataluniako lehen kategorian. 1990ean, berriz, L' Hospitalet taldearekin taldeka izan zen garaile, bigarren dibisioan. 2000.ean hasi ziren hemengo garaipenak: Euskadiko Txapelketako txapelkun izan zen xake bizkorrean; 2001ean, taldeka Gipuzkoako txapelketa eta 2003an, berriz, III. Arrasate Hiria Torneoakoa. Horiak ditu titulu nagusiak. Zeresanik ez, txikiagoak ere badituela, baina guk lekuri ez, guztiak kontatzeko. Orain, Arrasate Hiria Txapelketan dihardu lehia Arrasate-San Andres Xake Taldeko jokalaria eta presidentea.

**Ze traza du aurtengo Arrasate Hiria Txapelketak? Ostera ere Alejandro Franco garaiezin?**

Bai, aurtun ere badirudi Franco-rendako (profesionala da madrildar jokalaria hori) txapelketa hau "paseo militarra" izango dela; eta aurtun urterik errazena izango duela ematen du, gainera. Ze espero genuen David Astasiok (Gasteiz) aurre apur bat egitea, baina dagoeneko Astasiok puntu bat galdu du. Beraz, ikusten dena da Franco dabilela menperatzen bere partidak oso ondo, eta irabazteko numero guztiak dituela, nahiz eta oraindik txapelketaren erdia bakarrik jokatu izan.

**Gauzak horrela, klubeko ohorezko kide egin beharko duzue Franco.**

Egia esan oso gauza polita da halako jokalaria batek, Espainiako onenetarikoak, beti gure txapelketa aukeratzea jokatzeko. Berari ere ondo etortzen zaio, Groseko torneoak eta beste batzuk ere orain tokatzen direlako. Edozelan ere, guretzeko gauza ona da berak gurekin jokatzeko erabakia hartzea. Askok laguntzen digu. Askok dakien pertsona da, esperientzia handia duena. Uzten digu berarekin jokatzeko, berarengandik ikasten, eta bai, hala segituz gero, ohorezko kide egin beharko dugu.

**Xakean ere igartzen da krisia? Batez ere, txapelketa gutxiago jokatzen direlako-edo...**

Igartzen da bi aldetatik. Batetik zailagoa da dirua lortzea torneoak

antolatzen. Eta diru barik ez da torneorik antolatzen. Ze saririk ez badugu ipintzen Franco, Astasio eta horiek ez dira etortzen. Eta jokalaria fuertek ez badira etortzen, torneoak zentzua galdu egiten du.

Hala ere, ildo beretik, esan beharra dago AUKEAK jarraitzen duela laguntasun handia ematen. Torneoak baditu urte batzuk, mundu honetan ezaguna da, Arrasatek hartu du izena, eta AUKEAK mantendu egin du bere konpromisoa eta hori eskertzekoa da. Baina beste babesle batzuk diru gutxiago eman ahal dute...

Bestetik, krisiak eragina du, baita ere, jokalaria kopuruan. Izan ere, goi mailan jokalaria behar diren moduan, maila ertainetan ere behar dira. Eta azken urteotan jaitsi egin da jokalaria kopurua. Ze txapelketetara joateko gasolina ordaindu egin behar da, izenematea, afaria batzuetan... eta ikusten da jende gutxiago mugitzen dela; 35etik 20ra-edo jaitsi da.

**Iaz Arlutzekin (Aretxabaletako taldea) batera lehiatu zineten, bi klubak bateratuta. Esperientzia positiboa izan zen?**

Oso-oso positiboa. Beti izan gara oso lagunak eta ondo konpondu gara. Eta iaz, horrenbeste urtetan ideia horri buruz berba egin ostean, gaia dagoeneko helduta zegoen, eta berez, hala izatea tokatzen zen.

Bi klub ditugu, bi egoitza, baina klubeko bizitza bakarra. Inork ez zuen erabaki hori zalan-tzan jarri. Eta horrek utzi zigun ekipo batzuk maila ezberdinetan mantentzea, goiko taldetan jokalariek atsedean hartzea, eta gure kasuan (Arrasateko taldea) Euskal Liga berriro jokatzeko.

Uste dut ona izan zela denondako. Aretxabaletan jokalaria oso gutxi baina oso maila altukoak dituzte. Eta guk jokalaria gazte onak ditugu, eta baita ere, jende asko. Bateratzea oso esperientzia positiboa izan da, eta argi dago aurtun errepikatu egin behar dugula.

**Indarrak batzea. Horretan ari dira beste klub asko.**

Azkenean hori da bidea. Oso polita litzateke herri bakoitzean klubak izatea, baina kirol minoritarioetan ez da posible. Orain eskaintza oso zabala dago, jendeak kirol ugari egin dezake eta kirol minoritarioek geroago eta zailagoa daukagu bizirautea. Indarrak bateratzen, lortu dugu aktibitatea eta lehiakortasuna mantentzea. Ezin dugu ahaztu gaudela hiri



Josu Tornay xakelaria. | JULIO CALLEJA

guztietatik urrun dagoen tokian. Oso isolatuta gaude, eta gutxi gara. Bateratuta lortu dugu egoitea Euskal Ligan, eta aurre egitea Bilboko eta Donostiako klubei.

**Bideojokoak, sare sozialak... zela erakarri, egun, gazte bat xakera?**

Hurbiltzen direnak eta ulertzen dutenak, normalean gero engantxatu egiten dira. Arazoa lehen pausoa ematea da, ezagutzea apur bat. Baina ikusten dute xakeak aukera handiak dituela: lehiatzeko, lagunak egiteko, edozein adinekin denbora pasatzeko... eta berez polita da ulertzen duzunean, oso entretenigarria da.

Guk eguaztenero ditugu gazteak. Arratsalde osoa ematen dute jokatzeko. 10-15 urteotan gabiltza hori egiten, eta bertatik atera ditugu oso jokalaria konpetitiboak.

**Hortaz, gogora ekarriko dugu non zaudeten.**

Bai, gaude Arrasateko Jose Luis Iñarra kaleko 32. zenbakian, Herri-Gain elkartearen gainean, Altamiran.

**Zeuen beste borroketako bat izango da, bada, xakea kirol jarduerak dela onarraztea...**

Xakea xakea da. Guk erabakitzen dugu zer den eta zer ez den kirola. Gure asmakizuna da hori. Guk dioguna da xakeak kirol estrukturan duela zentzua. Guk lehiatu egiten dugu. Zorteak ez du parte-hartzerik. Norberaren trebetasuna, jakinduria, ikasi duena, entrenamendua, esperientzia... da dena. Guretzat lehiaketa hutsa da. Ondorioz, kirol estrukturan oso ondo sartzen da. Eta mundu mailan rankinga dugu, tenisaren rankinga (ATP) xaketik dago kopiatuta. Eta mundu mailan hala dago onartuta. Munduan ez da halako zalantzarik sortzen.

**Zela ikusten duzu ibarreko taldeen etorkizuna?**

Oso egoera zaila da. Krisia iraunkorra da. Etorkizun hurbilean paradigma aldaketa izango dugu. Errekurtsoak gehiago murriztuko dira. Gizartearen ohiturak ere desberdinak dira, eta klubeko bizia galdu egin da. Jende gutxiago dago gertu klub bat aurrera eramateko. Lehen beti zegoen jendea gertu halakoetarako. Orain ez. Eta hori ere arazoa da. Nik uste dut une honetan aukerarik inteligenteena dela indarrak batzea. Eta klubak bizi-rik daude jendearen konpromisoari esker, eta konpromiso hori berpiztu egin behar da moduren batean.

**"Krisia bi aldetatik igartzen da xakean: diru eta jokalaria gutxiago daude"**

**"Aretxabaletako Arlutzekin bateratzea oso positiboa izan da"**

**"Xakea ulertzen dutenak, normalean, engantxatu egiten dira"**

**"Klub txikiendako aukerarik inteligenteena da indarrak batzea"**

## Produktu naturalak udazkenean txikien defentsak indartzeko

L.Z. | ARRASATE

Udazkenean sartzearekin batera, klima aldaketa, ikastolara itzultzea, estres maila handitzea... jaitsi egiten da txikien defentsa maila.

Elikadura osasuntsu eta naturala emateaz gain, badaude naturak eskaintzen dituen produktu naturalak defentsa horiek indartzeko. Dena den, tratamendu eta dosien gaineko informazio zehatza profesionalak ematen dute.

### Echinacea

Immunitate-sistema babesteko aurki dezakegun landare hobereena da. Hiru urtetik aurrera ematea gomendatzen dute. Kontuan izan behar da, halaber, asma edo atopia daukaten haurretan azaleko alergia eragin dezakeela.

### Propolia ('Propolis')

Propolia edo propoleoa erlek erabiltzen duten gaitzen kontrako botika, eta antiseptikoa da. Bi urtetik gorako umeendako gomendatzen dute, eta haurren kasuan dosiak ez du inolaz ere 10-15 tanta/eguneko —uretan disolbatuta— gaintu behar. Kontuz ibili behar da haurra diabetikoa bada.

### Erregina-jalea (Jalea Real)

Kontzentratu nutritibo eta energetikoa da; 16 bitamina —B1, B2, B3 y B6, biotina, E bitamina...—, 18 aminoazido, substantzia antibiotikoak eta mineralak dauzka —potasioa, fosforo, silizioa...—. Adituek hiru urtetik gorako haurrendako gomendatzen dute. Bestelako produktuak ere badaude; polena, mineralak, bitaminak...



Haurra gaixorik. | HERVE KERNEIS

## Hazkuntzaren inguruko informazioa eta orientabideak jasotzeko taldeak martxan

L.Z. | ARRASATE

Debagoieneko gurasoek hainbat foro dituzte hazkuntzaren inguruan informazioa, eta orientabideak jasotzeko. Arrasateko Prebentzio Sailak, alde batetik, *Gurasotasuna M-z idazten: maitasuna eta mugak* izenburupean bederatziko orduko ikastaroa antolatu du. 2-12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako ikastaroa da, eta urri bukaeran abiaraziko dute. Informazio gehiago behar izanez gero deitu 943 25 20 07 telefono zenbakira.

### 'Guraso izatea gaur'

Arizmendi ikastolak, bestalde, laugarrenez ipiniko du martxan Haur Hezkuntzako gurasoei zuzenduriko mintegia. Bederatziko saioz osatutako mintegia izango da aurtengoa ere, eta hilean behin larunbat goizetan egingo da,

10:00etatik 12:00etara. Bi mintegi izango dira; hastapeneko eta oinarrikoa, eta aurrekoaren jarraipena. Mintegiko zuzendaria Rafael Cristobal da.

Matrikulazio epea urriaren 8an bukatzen da, eta interesatuek ikastolako webgunetik —*www.arizmendi.eu*— egin dezakete matrikula. Lehenengo saioa urriaren 20an, zapatua, egingo dute.

### Hazkuntza taldeak

Aretxabaletan ere hazkuntza taldeak ipini gura dituzte martxan. 0-3 eta 3-6 urte arteko umeak dituzten gurasoentzako eskaintza da. Taldeak hilean behin elkartzeko dira Ana Bacigaluperen gidaritzapean bi orduko saioak egiteko. Izena emateko epea urriaren 10era arte dago zabalik. Argibideak eskatzeko, deitu 650 54 68 39 telefono zenbakira.



Mugikorra eta ordenagailu eramangarria. | MINISTERIO TIC COLOMBIA

## Wi-fi sareak seguruak direla ondorioztatu dute Norvegian

Ikertzaileek ez dute beharrezkoa ikusten teknologia horri mugarik ipintzea

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Asko dira wi-firik gabeko eskolak eskatzen dituzten guraso elkarteak, eta gaia ez da nolana hiko. Mugikorrek eta wi-fi sareak osasunerako seguruak direla ondorioztatu duen ikerketa Norvegian egin dute, eta ikerketaren emaitza jaso dute *Elhuyar* aldizkarian. "Gaiari buruz egin den ikerketa sakonenetakoa eta berriena da, eta aurretik beste ikerketa handiek esandakoa berretsi du, ale-

gia, teknologia horiek osasunari kalte egiten diotela erakusten duen froga bakar bat ere ez dagoela", jaso dute aldizkarian. "Are gehiago, txostenaren arabera, "zentzuzko ziurtasunez" esan daiteke tresna teknologiko horiek ez direla arriskutsuak osasunerako".

### Ez minbizirik, ez besterik

Norvegiako aditu taldeak uste du ez dagoela esaterik tresna

horiek erabiltzeak minbizia izateko arriskua areagotzen duela. Adierazi dute zalantza handirik gabe baieztatu daitekeela maiztasun txikiko uhin elektromagnetikoak igortzen dituzten tresna teknologikoak seguruak direla.

Aurreko ikasturteotan asko izan dira wi-firik gabeko eskolak eskatu dituzten guraso elkarteak. Ikerketa honek ez du beharrezkotzat jotzen teknologia horri mugarik ipintzea.

## Erditzeak: zaindu nori zer eta zelan kontaktzen diogun

L.Z. | ARRASATE

Asko gustatzen zaigu gure erditzeak zelakoak izan ziren kontaktzea, eta paradoxa da haurdun dauden emakumeek eskaintzen digutela horretarako aukera argiena. Armandillo izeneko blogari batek artikulu oso interesgarria idatzi du gaiaren inguruan. Dio beste baten esperientzia ezagutzeak oso baliagarria izan daitekeela bizitzako edozein eremutan, baina zaindu egin behar dugula nori zer eta zelan kontaktzen diogun. Laster erditzera doan emakume bati, akaso ez zaizkio gure esperientzia traumatikoak entzutea gustatuko edo komeniko.

### Entzuten ikasi

Blogariaren iritziz badaude emakumeak beste batzuen esperientzien berri — onak zein

txarrak— izan nahi dutenak, baina badaude beste batzuk berez dituztenak euren erditzearen inguruko espektatiba onak. Behin eta berriz gainerako esperientzia traumatikoak entzuteak ez die inolako onik egingo. "Gizarte honetan kontaktzea gustatzen zaigu, eta entzutea aspergarritzat jotzen dugu", dio Armandillok. "Batzuetan, ordea, jakin egin behar dugu bestearen begirada edo hizkuntza ez berbala irakurtzen. Akaso, aurrez aurre dugun pertsona horrek ez du gu eskaintzen ari garen informazio hori jaso nahi. Batzuetan begiradan hitzez esatera ausartzen ez den hori ikus dezakegu: "Ez kontaktatu niri hori momentu honetan". Blogariak dio erditze txarren inguruko xehetasunak ezagutzeko erabakia informazioa jasotzen duen pertsonare-

na beharko lukeela, eta ez informazioa ematen ari denarena.

### Lehenengo erditzea

Lehenengo erditzearen atarian dagoen emakumeak asko ikas dezake aurretik esperientzia beretik igaro den beste emakume batengandik. Arazoa da besteek kontaktzen dutena ez dela beti berak jakin gura duena. Haurdun dauden emakumeek zalantza eta kezka asko dituzte, eta galderak egiteko premia handia dute. Arazoa da sarri jasotzen duten informazioa erditzeetan gertatzen diren arazotara eta ezbeharretara mugatzen dela. Horregatik Armandillo blogariak gomendio bat egiten digu: "Norberaren penak arintzeko hitz egin beharrean, hitz egin dezagun inguruko gure laguntza eskaintzeko".



# KULTURA



Domeka eguerdian ume eta nagusiak adi-adi ipuin kontalariaren istorioa entzuten. | JULIO CALLEJA



UBANE MADERA

**PELLO AÑORGA**  
IPUIN KONTALARIA

**"Antzuolarrei esker izan da posible aurtengo ipuin maratokia"**

Pello Añorga ipuin kontalaria bere txokotan, kontsultorioan, topatu genuen Kalebarrenen. Pozik zegoen ekimenak izandako erantzunarekin.

**Herri asko bisitatu dituzue eta aurtengo Antzuolaren txanda izan da.**

Halaxe da. Dena dela, hasiera batean maratokia Bilbon egitea zen asmoa, baina bertan behera gelditu zen. Orduan antzuolarrak prest agertu ziren eta izugarria izan da egin dute lana. Antzuolako herriari esker izan da posible aurtengo maratokia. Oso abegikorrek izan dira.

**Kontalarien duintasuna ere aldarrikatu nahi duzue.**

Bai. XIX. mende honetan sakelakoz eta tramankuluz ingurata gaude eta ez gara konturatzeko hitzarekin, hitz biluziarekin komunikatu gaitzkeela, hitza lagun, imajinarioa lagun, ipuina lagun.

**Ipuin kontalaritza osasuntsu al dago Euskal Herrian?**

Baietz uste dut. Ipuin kontalari bezala hasi nintzenez gutxi batzuk ginen eta orain kontalari asko gara, eta estilo askotakoak gainera. Aniztasun handia dago gaur egun eta hori osasunaren adierazle da.

## Bazen behin istorio polit eta hunkigarriz bete zen herri bat

- ▶ Euskal Herriko Kontalarien Elkarteak Antzuolan egin du urteko maratokia
- ▶ Han eta hemen istorio ederrak entzun ahal izan dira asteburuan

**ARRITXU BARRUSO** | ANTZUOLA

Pello Añorga idazle eta ipuin kontalariak asteburuan gogorazi digun moduan ipuinak hitzak dira, hitz biluziak, baina indar handia daukatenak: "Hitzak berrik ez dira, baina begiak zabaldu eta adi-adi entzunez gero, barrua ukitu, hunkitu eta liluratu egiten gaituzte. Urrun, oso urrun, eramaten gaituzte, baina era berean gertu mantenduta, elkar ukitzeko bezain gertuan".

Bada, sentsazio horiek guztiak bizi ahal izan dituzte aste bukarran Antzuolako kaleetan barrena

ibili direnek. Kontalarien Elkarteak Antzuolan ospatu du aurtengo Bazen Behin ipuin maratokia.

**Nagusiak ere aho zabalik**

Ipuin kontalariak umeekin erlazionatzeko ditugu gehienetan, baina Antzuolan argi geratu da nagusiak ere aho zabalik utzi eta istorio eta abentura izugarrietan murgiltzeko magia eta ahalmena badutela ipuinek. Zapatu gauean, esaterako, ipuin erotikoen kontaketa egin zuten Torresoroan.

Ipuinen maratoki honetan gainera, hitz biluzi baina berezi

horiek goi mailako kontalarien ahotatik entzun ahal izan dira. Herriko puntu eta kale ezberdinetan banatuta hamasei ipuin kontalarik jardun dute kontu kontari Antzuolan asteburuan: Marisol Abreu, Begoña Alabazan, Pello Añorga, Virginia Imaz, Amaia Arriaran...

**Orakulua eta kontsultorioa**

Domekan han eta hemen entzun zitezkeen istorio zirraragarriak. Zurrategi plazako kioskoa neska-mutikoz beteta zegoen, guztiak begiak zabal-zabalik eta konta-

lariaren abenturak jarraitzen. Barrenkalen berriz, kontsultorioa ipini zuen Pello Añorgak irudimena eta sormena lantzeko eta orakulua ere topatu zitekeen kale berdinean. Eguerdiko txikiteoa ere ipuin-poteo bilakatu zen domekan, kontalariak kalez kale eta tabernaz taberna ibili ziren. Egun osoko egitaraua arratsaldeko ipuin maratokiak itxi zuen.

Aurtengoz bukatu da hitzaren maratokia. Hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila, datorren urtean, Euskal Herriko beste plaza batean.



**MIKEL CABALLERO**  
ANTZUOLA

"Nagusiendako ere badira entzun diren ipuinak eta oso ondo egon da. Guk etxean, esaterako, badugu ipuinak kontatzeko ohitura".



**AINHOA ETKEZARRETA ETA NAROA IRIZAR**  
ANTZUOLA

Ainhoa eta Naroa Zurrategi plazara bidean topatu genituen domeka eguerdian. Naroa Antzuolara iritsi berria zen, baina Ainhoak dagoeneko bi ipuin entzuteko aukera izan zuen: "Oso polita izaten ari da dena eta oraingoz entzun ditudan ipuinak asko gustatu zaizkit".



**IRATI ORMAZABAL ETA ANE IRIZAR**  
ANTZUOLA

Iratik eta Anek ere ipuinez gozatzeko aukera izan dute asteburuan. Iratik dena dela argi dauka zein gustatu zaion gehien: "Ipuin bat baino gehiago entzun dut baina Mari Puzkerrena da gehien gustatu zaidana, polita delako eta barre asko egin dudalako. Askok gustatzen zait ipuinak entzutea".



Umeak aho zabalik ipuin kontalaria entzuten. | U.M.



Arrasateko Gaztetxea bete egin zen emakumeen inguruko bertso musikatuak entzuteko. | ANDER MONEDERO

KRONIKA

## Emakumeak gizonen "gainean"

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Umorea, musika eta bertsolariak kantatzen ikusteak bertsozaleen artean gustuko ekintza dela argi geratu zen egubakoitz iluntzean Arrasateko Gaztetxean egindako *Ez da kasualitatea* bertso saioa.

Gaztetxekeo kideek jarritako aulki guzti-guztiak bete egin ziren; eta are gehiago, baten batzuk

zutik geratu behar izan zuten saioa ikusteko.

Bestalde, esan behara dago, Arrasateko Emakume Txokoak antolatutako saioan, ezer ere ez zela kasualitatea izan: ez planteatutako gaiak, ez emakume kopurua eta ezta ere bertsolarietako hartutako posturak. Onintza Enbeita, Alaia Martin, Jone Uria, Estitxu

Eizagirre eta Beñat Gaztelumendi izan ziren Iraitz, Hodei eta Eneritz musikarien doinuak jarraitu zituzten bertsolariak eta, gai jartzaile lanetan, berriz, Iraia Elias eta Unai Muñoa izan ziren.

Kartelean iragarri bezala, emakumeen inguruko gaiei buruz kantatu zuten, eta hasieran, Gaztelumendik, saioko gizon baka-

### FITXA

BERTSOLARITZA

'EZ DA KASUALITATEA'

Estiloa: Bertso saio musikatua.

Bertsolariak: Onintza Enbeita, Alaia Martin, Jone Uria, Estitxu Eizagirre eta Beñat Gaztelumendi.

Non: Arrasateko Gaztetxean.

Eguna: Egubakoitza, irailak 28.

Iraupena: 90 minutu.

bertsolari añorgarrak. Hori argi geratu zen bertso jartzaileek sagardotegi garaian Hernanin egoten omen diren olagarroen gaia plazaratu ziotenean. Lau emakumeak Gaztelumendiren gainean jarri ziren, eta bertsolariak emakumeek horrelako kasuetan sentitzen dutenari buruz kantatu zuten.

### Ikuspuntu femeninoa

Bertsolaritzan, gizezkoen gaiak emakumezkoenak baino ohikoak dira eta beste ikuspuntu bateko saioek ere arrakasta izaten dutela argi geratu zen.

## Espaloia txutxu-mutxu eta barre algarez bete zen egubakoitzean

A.B. | ELGETA

Gorka Aginagalde eta Iñigo Salinerok urte asko daramatzate taula gainean, eta horixe bera erakutsi zuten egubakoitzean Espaloian eskainitako antzezlanetan: eskarmentu asko aktoreak direla eta taula gainera igotzen diren bakoitzean ikusleak zeharo bereganatzen dituztela.

*Cotillas* antzezlanaren aurkeztera etorri ziren Elgetako antzokira. Bakarrizketa estilora esketx ezberdinez osatutako lana da.

Izenburuak dioen moduan txutxu-mutxuak dira protagonistak, era guztietako txutxu-mutxuak. Bi aktoreak taula

gainean egindako lana ikusita ezinbestekoa da Sobradun antzerki taldearen estiloa gogora ekartzea.

### Matxismoa ironiaz

Aginagalde eta *Txafas*-ek berehala bereganatu zituzten ikusleak eta barre algarak bata bestearen atzetik etorri ziren. Dena dela, beharbada, animaliekin parekatutako esketxek izan zuten arrakasta gehien.

Matxismoa modu ironikoan tratatzen zuten pasarteek ere barre algara ederrak eragin zituzten. Agian batek baino gehiagok erosketa egiten, sofán botata... bere burua irudikatuta ikusiko zuen.



Gorka Aginagaldere eta Iñigo Salinero Espaloian egubakoitzean. | J. CALLEJA

## Adiskidetasunaren mugak muturreraino eramanda, 'Hil arte bizi' tragikomedian

Zabalotegi bete egin zen Iker Galartza, Sara Cozar eta Joseba Usabiaga ikusteko

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Aurpegi ezagunek bete zuten egubakoitzean Bergarako Zabalotegi aretoan eszenatokia. Iker Galartza, Sara Cozar eta Joseba Usabiaga aktoreek *Hil arte bizi* antzezlanaren eskaini zuten. Eta nabaritu zen bai, aktore ezagunak eta arrakastatsuek direla; Zabalotegi aretoa goraino bete zen.

### Bizitza eta heriotzaren artean

Natxo, Angel eta Mariaren gora-beherek makina bat barre algara eragin zituzten Zabalotegin. Ez da gutxiagorako. Hirurak lagun minak dira, unibertsitate garaitik. Angel eta Maria bikotea dira, baina Mariak abentura bat izan du Natxorekin. *Hil arte bizi* antzezlanak komediatik asko izan arren tragediatik ere edaten du. Mariak minbizia dauka eta bi hilabete besterik ez zaizkio gelditzen. Orduan sortzen dira zalantzak eta hausnarketak.

Notizia izugarri horren bultzatzen baina, sekulako nahasmena sortuko da. Mariak Angeli esango dio Natxok duela minbizia, biak adiskidetu daitezten.

Barre algara eta momentu hunkigarri artean, aspertzeko aukerarik ez zen izan zen eguba-



Sara Cozar eta Iker Galartza aktoreak Zabalotegi aretoan. | JULIO CALLEJA

koitzean. Ikusle guztiek irribarre atsegin batekin utzi zuten Zabalotegi aretoa.

Antzezlanaren amaitzerakoan txalo zaparrada izugarria izan zen eta hiru aktoreak behin bai-

no gehiagotan irten behar izan ziren agertokira ikusleen txaloei erantzutera. Aktoreen irribarre ikusita esan daiteke pozik gelditu zirela Bergaran lortutako erantzunarekin.



# UDAKO ARGAZKIEN VIII. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: [goiena.net/blogak/argazkiak](http://goiena.net/blogak/argazkiak)


Baita hemen ere: udakoargazkiak

udakoargazkiak



## Hauek dira irabazleak!

1



**NON DAGO IKURRINA?** /Mikel Sedano Rueda /Oñati

Enkoadre eta koloreen konbinazio ederrak udako ikurretako bat den hondartza primeran irudikatu du.

2



**VESPAN LAUHAIZETARA.** Vespa arroxaren argazkia frexkoa da. Uda-udakoa. /Argazkia: Mireia Aguirre Aguiriano /Oñati

3



**BOLIVIAKOGATZAGA.** Aukeratutako konposaketak eta erabilitako kolore urriek ikusleari lasaitasuna transmititzen die. /Argazkia: Garazi Olabarria Elizondo /Bergara

**HERRITARREN SARIA**



**UR JAUZIA.** Zuen botoekin hau da aukeratu duzuen argazki gustukoena. /Argazkia: Mikel Uribarren Borrego /Arrasate

### 158 LEHIAKIDE

Aurtengo edizioan 158 lagunek hartu dute parte. Guztira, baina, 675 argazki jaso ditugu, iaz baino 147 argazki gehiago jaso ditugu.

Gustura egindako lana izan da, baina ez duzue batere erraztasunik eman; asko dira-eta saria merezi dutenak. Batzuk freskoak direlako, besteak barrea eragiten dutelako; teknika aldetik zainduta daudenak jaso ditugu, eta baita erretratua ateratzean ederto zebiltzala erakusten dutenak ere. Argazki horiek guztiak dute gurean lekua, horrenbestez, datorren urtean ere animatu!

### GOIENA POZIK

lazko erantzun zabalari eutsiz, zortzigarren edizio honek erakutsi du degaboiendarren artean lehiaketa finkatu dela. Alde horretatik, oso pozik dago Goiena, parte-hartzea handia izan delako.

### EPAIMAHAIA

Goienako eta Bergarako KB Photoestudio argazki dendako kideek osatu dute epaimahaia eta ez da erraza izan hiru saridunak aukeratzea. Saridunek asteon jasoko dute saria. Egubakoitzeko Goiena paperean izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

### BOTO EMAILEEN SARIA

Igor Setien Arana  
Bergara

### Sariak



Canon EOS 1100 D reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.

- 12 megapixel / HD bideo-grabazioa
- 2,7 hazbeteko pantaila
- AF fokatzeko sistema, 9 puntukoa

- ISO 100-6400 sentsibilitatea
- EF eta EF-S objektibo guztiak bateragarria.



**2. saria:** Cantabriako bi lagunendako asteburuko bateko egonaldia. Arrasate Bidaiek-en eskutik.  
**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.  
**Herritarren saria:** bi pertsonendako SPA zirkuia eta asteburuko menua Debako AISIA hotolean.  
**Boto emalleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**kb**  
photoestudio  
www.kbphotoestudio.com  
**Canon**

**ARRASATE BIDAIAK**

**GURE AMETSA**  
JATETXEA

**aisia** HOTELES

**karibu**  
munduko zaporeak  
karibumundukosaporeak.com



# UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan



**NATURA ETA HISTORIA BESARKATURIK:** Angkor, Kanbodia. 2012ko abuztua. /Argazkia: Josu Gonzalez Lazkano /Bergara



**BISSAUKO KOADRILA FESTAN:** Guinea Bissaun autoan gindoazela, festa giroarekin azaldu zen koadrila horrekin egin genuen topo. Dantza moduko batzuk egin zizkiguten, harriturik, liluraturik, txoraturik, utzi gintuzten. Argazki hori dugu haren oroigarri. /Argazkia: Tolu Bolinaga /Arrasatearra eta Leire Ibaibarriaga /Elgeta



**OPORRETANZERURA:** Argazki hori 2010eko abuztuan Mallorcan ateratakoa da. Argazkian zerua eta hegazkin bat agertzen dira. /Argazkia: Maider Berasaluze Garzia-Etxabe /Aretxabaleta



**EZ JAN!** Bilboko Guggenheim atzekaldean dagoen armiamari ateratako argazkia. /Argazkia: Natxo Santos /Oñati




**ESKOLAKO UMEAK:** Argazkia Doi Suthep tenpluan (Chiang Mai, Thailandia) ateratakoa da, 2012ko abuztuan. Bertan, eskolako umeek larunbetetan dantza egiten dute jantzi tradizionalekin. /Argazkia: Mireia Valle /Aretxabaleta



**PITXIAK AUKERATZEN:** Abuztuan, Nazare herriko Indiar denda batean pitxiak aukeratu ezinik. /Argazkia: Olatz Romeo /Aretxabaleta



**BISAURINGO ZAINZAILAK:** Biasurin mendirako bidean (Pirinioak, Hueska). /Argazkia: Juan Luis Azkarate Garmendia /Arrasate




**NON DAGO IKURRINA?** 2012ko udan ateratako argazkia, Nazareten (Portugal). Non dago ikurrina? /Argazkia: Mikel Sedano Rueda /Oñati



**FLAMENKOAK URETAN:** Flamenkoak uretan islaturik. Eduardo Abaroa parkea (Bolivia). /Argazkia: Laura Perez /aretxabaleta



**AYUTHAYAKO TENPLUA:** Ayuthayako tenpluez disfrutatzeko bizikleta hartu genuen, abuztuaren 12a zen eta Thaiandiako erreginarene eguna izanda, bertara jende pilo bat gerturatu zen. Hori da tenpluaren isla erreka uretan. /Argazkia: Maitane Larrañaga /Bergara



**AMADOKO ILUNABARRA:** Amado hondartza Portugalgo Algarven, 2012an. Amadoko ilunabar goxoan bikote baten eztabaida gazia. /Argazkia: Oihana Irazu /Aramaio





**AFRIKAKO SABANA?** Afrikako sabana dirudi, baina Marina d'or-eko hondartzan iluntzean ateratako argazkia da, eta nola ez, elefantea ez da benetakoa, dutxa bat baizik. /Argazkia: Usue Sotil /Bergara



# VIII. GOIENA LEHIAKETA



Baita hemen ere:

 udakoargazkiak  
 udakoargazkiak




n: [goiena.net/blogak/argazkiak](http://goiena.net/blogak/argazkiak)



**EGUNSENTIA NOJAN:** Trengandin-eko hondartzan egunsentia. / Argazkia: Marian Saez Bilbao /Bergara



**BELARRIRA KONTUAK ESATEN.** Uyuniko gatzaga (Boilivia). Belarrira kontuak esaten. /Argazkia: Mikel Busto /Arrasate



**TABARCAKO UR AZPIA:** Tabarcako uhartean egun pasa, snorkel egiten ateratako urpeko argazkia. /Argazkia: Mikel Alberdi Barnes /Aretxabaleta



**GOLDEN GATE LAINO ARTEAN:** 2012ko abuztuaren 3an aterata dago, San Frantziskon, Kalifornian. Golden Gate zubia ikusten da, goizean. Uda garaian lainoek estaltzen dute ia uneoro. /Argazkia: Mikel Gomez /Aretxabaleta




**PAMELA:** Emakume bat lasai-lasai Debako itsasoari begira. Aurtengo udan aterata. /Argazkia: Maite Jauregi /Bergara



**JAPONIAKO TENPLUA:** Nikko tenplua, Japonian, euripean. /Argazkia: Maite Lopez Aretxaga /Oñati




**PERITO MORENO:** Perito Moreno izugarria dugu ikusgai. / Argazkia: Yolanda Rodriguez Garcia /Bergara



**BOLONIA HONDARTZA:** Bolonia hondartzan dagoen duna erraldoian hartutako eszena xelebrea. Playa Bolonian (Cadiz) hartua, 2012ko abuztuaren. /Argazkia: Mikel Maidagan Setián /Arrasate



**IKUILUAN JOLASEAN:** Lobak jolasean ikuiluan. /Argazkia: Iñaki Garai /Arrasate



**BAKARDADEAREN ITSASOA:** Torreviejako Laguna Saladan abuztuaren ateratako argazkia. Aulkiarekin, lakuarentamainarekin eta argiarekin jokatuz bakardadea islatzen da. /Argazkia: Xabier Calvo Oregi /Bergara

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aramaio.** Baseria salgai Zabola auzoan. Hiru etxebizitza egiteko aukera eta 1.415,44 m<sup>2</sup>ko lursaila. Deitu 629 51 39 22, 636 49 46 89 zenbakietara.

**Aramaio.** Aukera ona. Gantzan etxe bakarra salgai. Egoera onean. 8.000 metro koadroko lursailarekin. Lorategi, ortu eta fruta arborekin. 300.000 euro. 636 94 81 31.

**Arasate.** Aukera. Hiru logela, balkoi luzea, hormigoizko egitura, hirugarren pisua, dena kanpoaldera, sukalde hornitua, gas indibiduala, komuna, egongela eta ganbara. Oso argitsua. Bikoteentzat aproposa. 138.500 euro. 662 18 25 73.

**Arasate.** Prezio berria! 174.000 euro. Etxebizitza salgai. Eraberritua, gutzia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldia. Hiru igogailu eta gas naturala. 650 01 05 15.

**Bergara.** 50 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Logela, sukaldia, komuna eta egongela. Balkoiarekin. Oso argitsua. 75.000 euro. Bikoteentzat aproposa. Errentan hartzeko aukera ere bai. 679 45 57 62.

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel: 647 77 73 92.

**Berriz.** Olakueta auzoan, etxe argitsua eta bista ederrekin. 3 logela haundi, balkoiarekin lotutako egongela eta sukaldia. Komun bi. Igogailua eta ganbara. Garraio publikoetatik minutu batera. Harremanetarako: 685 72 46 90 / 675 71 23 69.

**Elorrio.** Duplex etxebizitza, 78 m<sup>2</sup> erabilgarri (90 m eraikiak). Argitsua eta isila, errekarra begira. Egongela nasaia, logela bi eta bainugela bi. Errekakale, 10 2. solairua. ziertzalozitate@hotmail.com Tel: 605 72 29 45.

**Garai.** Oarbeaskoa baserria salgai. 10.000 m<sup>2</sup>ko lursaila. Garaiko San migel auzoa. 6. 8.500 m<sup>2</sup>ko belardi sorra, nahiko laua. 200m<sup>2</sup>ko baratza, frutalari. Nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Erreabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetzak kontsulta, jate-teak(2) eta bus geltokitik 150 metroara. Durangotik 10 minutu. Ap 8 autopistatik 5 minutu. 639 83 34 89 ja.amantegi@gmail.com.

**Lurreta.** Pisu bat salgai Arriaundin, Lurretan. 66.000 euro. Tel: 685 72 80 42.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Kale Zaharra auzoan. Bilogela, komuna, egongela, sukaldia eta barruko patio bat. Guztiz jantzia. Oso argitsua. Igogailuarekin. 190.000 euro. 655 72 27 35.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Almeri Mar (Almería).** Oporretako etxea alokatzen da Almeri Mar en (Almería). Hondartza ondoan eta herrian ondo kokatuta. Prezio interesgarria. Deitu 94 658 32 03 edo 680 10 58 46 zenbakietara.

**Antzuola.** Etxebizitza ematen da errentan, Antigua auzoan. 649 07 97 56.

**Antzuola.** Etxebizitza ematen da errenta. Bi logela. Igogailuarekin. Berritua. 645 00 89 97 edo 605 76 76 30.

**Bastida.** Oporretako pisua alokatzen dut pisinarekin. Torre otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldia eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabetekako alokatzen da. Interesatuak deitu hona: 620 62 92 45. iarteaga@hotmail.com.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logela, sukaldia, egongela, bainugela osoa eta komuna. Deitu 609 33 88 96 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 662 56 95 37 edo 673 84 08 73.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi bainugelakoa. Igogailuarekin. Erostea aukera ere bai. 675 71 50 36.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logelakoa. Berokunda indibidual eta igogailuarekin. Kanpoaldera ematen du. 943 76 04 58 edo 664 73 49 60.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan, erdialdean. Bi logela, gasdun berokuntza, PVCzko leihoak, eguzkitsua. 72 metro koadro. 606 65 58 08, 660 04 25 25.

**Bergara.** Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. Igogailu eta berokuntza indibidualarekin. Leku onean. 943 79 26 47.

**Donostia.** Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det Donostian, Antigua auzoan bertan. Persona batentzako egokitua, bi planta dauka eta kotxea sartzeko aukera dago. Eguzkitzua da eta lasaia. Prezio 500 euro. 609 48 11 24.

**Durango.** Durangon, Juan de Itziarri auzunean, pisua alokagai, altzariekin. 653 74 80 13.

**Elorrio.** 50 m<sup>2</sup>ko atiko berria alokagai Elorrian. Logela, komuna eta sukalde egongela. Igogailua ere badu eta prest dago bizitzera sartzeko. Oso polita. Tel: 606 04 38 35.

**Eskoriatza.** Mazmela auzoan baserria ematen da errentan, ortu eta guzti. Guztiz eraberritua. Deitu 680 33 40 76 edo 605 77 51 65 zenbakietara.

**Lurreta.** Lurretan logela alokagai 200 euro, gastuak aparte. 633 23 38 48. Jan.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan Kurtzibide kalean. Hiru logelakoa. 615 73 29 83.

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta igogailua ditu. Interesatuak arratsaldez deitu zenbaki honetara: 652 77 87 15.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. 657 13 33 44.

**Sakana.** 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldia eta ganbara ditu. Berriki zahar berritua eta oso atsegina. 500 euro hilean. 677 88 14 78.

**Zaldibar.** Erdialdean, guztiz berritua, 2 logela. Telefonoa 660 45 87 56.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. Deitu 676 61 15 47 telefono zenbakira.

**Aretxabaleta.** Pixu bila gabiltzan Aretxabaletako bikote gazte bat gara. Nahiago dugu txikia izatea. Eskerrik asko! 656 71 31 09.

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

## - Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

## Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

## - Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

**Arasate.** Etxebizitza behar dut errentan. 629 80 77 73.

**Arasate.** Logela bila nabil errentan, San Andresen edo gertu ahal dela. 699 11 43 23.

**Baserrian bizi nahiko genuke.** Baserrian bizitzeko desiatzen gauden bikote bat gara. Ateak irekita ditugu edozein proposamenetarako: konpondu, zaindu... Auzoak bizirik mantendu behar ditugu, baserriekin ezin dira hutsik egon! 652 76 73 39.

**Bergara.** Bilogelako etxebizitza behar dugu errentan. 654 24 13 27/687 16 74 63.

**Bergara.** Familia batentzat etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696 70 55 09.

**Elgeta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Ama eta alaba gara. 686 08 16 90.

**Elorrio.** Elorrian pisu baten bila nabil alokatzeko, altzariekin. 94 658 21 91.

## BERGARA

Garaje edo lokal bat behar da errentan, biltegi gisa erabili ahal izateko. Ahal dela, erdi aldean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 690 007

**Etxarri-Aranatz.** Etxarriko neska bat naiz eta pisu bat alokatu nahiko nuke. Nahiko nuke Etxarri. 679 76 32 34.

## 105. ETXEA OSATU

**Aretxabaleta.** Bi logela ematen dira errentan erdigunean. 603 14 28 89.

**Arasate.** Gela ematen da errentan San Andres auzoan. 657 55 81 15.

**Arasate.** Logela ematen da errentan Altamiran. Etxe oso eguzkitsua. 653 71 44 57.

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 110 euro gehi gastuak. Lau logela, egongela, komuna eta sukaldia. Mendiko kalen. 615 00 67 60.

**Oñati.** Herri erdialdean etxebizitza osatzeko pertsona baten bila nabil. 225 euro gehi gastuak. Etxe guztiz hornitua dago. 652 71 52 50.

**Oñati.** Logelak ematen dira errentan San Lorentzon. 943 78 31 42 / 688 60 30 52.

**Zumaia.** Pisua konpartitzeko bi pertsonaren bila nabil, etxeak hiru logela ditu eta momentuz logela bat bakarrik dago okupaturik. Etxe handia da komun bat, sukalde eta egongela handiak dituelarik, edonor interesaturik egonez gero idatzi e mail honetara: roker\_8@hotmail.com edo bestela deitu 661 42 61 75 zenbakira.

**Arasate.** Unibertsitateko ikasle gara eta pisukide bila gabiltza Arasateko Zerrajera auzoko 3. atarian. Consumerren ondoan eta autobus geltoki zentralaren parean. Hiru logela, bi komun (bat logela baten barruan), komuna balkoiarekin, egongela handi bat beste terrazabatekin eta garbigailuarekin zentralak. 100m koadro baino gehiago. 240 euro hilean gehi gastuak. 670 42 13 26 / 686 20 18 35.

**Bergara.** Erdialdean logela bat ematen da errentan bi mutlekin etxea osatzeko. Etxe berri eta handia da. 697 26 52 16, 608 42 23 51.

**Bergara.** Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. 670 85 86 68.

**Bergara.** Logela edo etxebizitza behar dut errentan. Mutil batentzat. 635 74 84 23 edo 635 74 84 15.

**Durango.** Durangon, hiru logela eta bi komuneko etxe batean, logela alokagai. Emakume batekin konpartitzeko. Garajea aukeran. 300 euro. Deitu 600 45 83 16 telefonora.

**Durango.** Logela bat alokatzen da Durangon. 630 76 18 28.

**Durango.** Pisukide bila gabiltzan bi lagun gara. Hizkuntza eskola aurrean dago alde zaharretik oso gertu, eta tabirako lasaitasunagaz gozatzeko aukera aproposa. Animatu! Deitu 679 62 04 47 telefonora.

**Durango.** Bikotekide arduratsua logela bat alokatu nahi du Durangon. Ekonomikoa. 632 37 28 87.

**Durango.** Logela bat alokatzen da Durangon. 630 76 18 28.

**Durango.** Durangon, hiru logela eta bi komuneko etxe batean, logela alokagai. Emakume batekin konpartitzeko. Garajea aukeran. 300 euro. Deitu 600 45 83 16 telefonora.

**Durango.** Logela bat alokatzen da Durangon. 630 76 18 28.

**Durango.** Pisukide bila gabiltzan bi lagun gara. Hizkuntza eskola aurrean dago alde zaharretik oso gertu, eta tabirako lasaitasunagaz gozatzeko aukera aproposa. Animatu! Deitu 679 62 04 47 telefonora.

**Durango.** Bikotekide arduratsua logela bat alokatu nahi du Durangon. Ekonomikoa. 632 37 28 87.

**Durango.** Logela bat alokatzen da Durangon. 630 76 18 28.

**Durango.** Pisukide bila gabiltzan bi lagun gara. Hizkuntza eskola aurrean dago alde zaharretik oso gertu, eta tabirako lasaitasunagaz gozatzeko aukera aproposa. Animatu! Deitu 679 62 04 47 telefonora.

**Durango.** Bikotekide arduratsua logela bat alokatu nahi du Durangon. Ekonomikoa. 632 37 28 87.

## 303. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Bulego bat alokatzen dut Durangon. 42 m<sup>2</sup>. Durango erdian. Tel.: 656 78 02 15.

## 305. BESTELAKOAK

**Oñati.** Kale Zaharrean bulegoa konpartituko nuke. Guztiz egokituta dago. Egokia izan daiteke bulego zein jendea atentzizko. 651 70 17 41

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuok deitu 19:00etatik 21:00etara. 654 05 91 77

**Debagoiena.** Pertsona heldu bat behar da etxeko lanak egin eta nagusi bat zaintzeko. 669 53 97 03

## 402. ESKAERAK

**Arasate.** 40 urteko gizon eta emakumea gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko debagoienan. Margoketa lanak ere egingo genituzke. Arrasaten bizi gara. 630 04 52 79.

**Arasate.** Gizonetara edozein lan egiteko prest. Deitu 654 24 13 27 telefonora.

**Arasate.** Eraikuntza ofizial tituludun mutila lanerako gertu debagoienan. Metalak pulitzen eta garbiketarako egiten ere lan egingo nuke. 639 41 68 38.

**Arasate.** Mutila gertu taberna edo kafetegian lan egiteko debagoienan. Baita lorazain, garbiketara zein nagusien zainketan jarduteko ere. 616 32 90 12.

**Arasate.** Sukaldari esperientziaduna lan egiteko prest. 943 53 34 24.

**Arasate.** Neska gertu garbitasun lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko debagoienan. Nancy. 636 47 64 92.

**Arasate.** Neska euskalduna, psikologian lizentziatua, goizetan hurrekin lan egiteko prest debagoienan. Hurrekin esperientzia handia. 685 76 91 11.

**Arasate.** Neska gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. 629 80 77 73.

**Arasate.** Neska boliviarra pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita garbitasun lanak egiteko ere. Esperientzia, informea eta paperak ditut. Gueuz eta egunez, baita orduka ere. 618 14 71 34.

**Arasate.** Neska gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketara lanerako debagoienan. Edozein ordutegitan. 679 29 78 89.

**Arasate.** Senar emazteak, erizaintza laguntzaile tituluarrekin, pertsona nagusiak zainduko lituzke debagoienan: etxean bertan bizi izaten, ospitalean, eta abar. 697 35 62 49 / 943 79 04 69.

**Arasate.** Eskoriatza eta Aretxabaletan. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatu eta hezkuntza berezian espezialista. Deitu 600 39 47 77 telefonora.

**Arasate.** Arasate edo bergaran, emakumea gertu umeak zaindu edo garbiketara lanetan jarduteko, orduka. 672 70 71 25.

**Bergara.** Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuok deitu 19:00etatik 21:00etara. 654 05 91 77.

**Bergara.** 47 urteko pertsona lanerako gertu. Deitu 606 24 79 09 zenbakira.

**Bergara.** Arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 665 75 41 32.

**Debagoiena.** Neska euskalduna, psikologian lizentziatua, goizetan hurrekin lan egiteko prest. Hurrekin esperientzia handia. 685 76 91 11

**Debagoiena.** 40 urteko gizon eta emakumea gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Margoketa lanak ere egingo genituzke. Arrasaten bizi gara. 630 04 52 79.

**Debagoiena.** Administrazioan lizentziatua gaztea lanerako prest. Esperientzia daukat. Deitu 629 06 93 60 telefonora.

**Debagoiena.** Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zainitzen edo garbitasun lanetan. 699 09 46 26.

**Debagoiena.** Bertako neska nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Egunez zein gauzez. Disponibilitate osoa. Esperientzia. 618 00 08 28.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu garbitasun lanetan jarduteko. Deitu 695 58 88 63 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume edozein lanerako eta edozein ordutegirekin lan egiteko gertu. 600 290 524.

**Debagoiena.** Emakume edozein ordutegirekin mota guztietako lanak egiteko prest. 664 124 325.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxe edo atariak garbiketara, umeak zaintzeko, edo bestelako lanerako. Jateketan 13 urteko esperientziaduna. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketarako gertu. Tituluduna. 680 77 06 46.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, orduka edo egun osoz. Garbiketarako ere egingo nituzke. Berehala hasteko prest. 602 87 09 30, 695 75 42 45

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka lan egiteko. 634 78 19 54.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi eta lan egiteko. Ospitalean gauzez gaitzak zaintzeko. 602 37 14 43.

**Debagoiena.** Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketarako orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoan laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Garbiketara zein nagusi edo umeak zaintzen. Legezko paperak ditut. 672 96 08 22.

**Debagoiena.** Eraikuntza ofizial tituludun mutila lanerako gertu. Metalak pulitzen eta garbiketarako egiten ere lan egingo nuke. 639 41 68 38.

**Debagoiena.** Erizaintza laguntzaile tituludun emakume arduratsua eta esperientziaduna pertsona nagusiak zainduko lituzke etxean bertan bizi izaten edota orduka, ospitalean, eta abar. Interesatuok deitu 646 05 58 88 edo 943 79 79 49 telefonora zenbakietara.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin, nagusiak zaindu, garbiketara zein sukalde laguntzaile lanerako gertu. Deitu 697 20 00 86 telefonora.

**Debagoiena.** Garbiketako egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Geriatrian titulu daukat. Interesatuok deitu 691 03 25 02edo 943 54 09 41 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. Interesatuok deitu: 654 241 327.

**Debagoiena.** Lan egiteko emakumea gertu. Umeak edo nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu: 610 34 97 88.

**Debagoiena.** Margolari gisa lan egingo nuke. 18 urteko esperientzia. Lehen mailako ofiziala, margoketan. 637 52 89 91.

**Debagoiena.** Mutila gertu arratsalde eta asteburuetan sukaldetan lan egiteko. Pintxo, menu eta abarretan eskarmentu handikoa. 666 83 21 95.

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita baserriko lanetarako ere. 622 77 60 65.

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaindu, mekanikari laguntzaile zein lorazain jarduteko. Baita ospitalean gaixoko zaindu zein etxeetan bertan bizitzen lan egiteko ere. David. Deitu 626 36 02 01edo 943 53 21 92 telefonotara.

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Geriatria eta etxeko laguntzaile tituluak dauzkat. Gida baimena eta legezko paperak ere bai. Luis. 672 91 18 46.

**Debagoiena.** Mutila gertu taberna edo kafetegian lan egiteko. Baita lorazain, garbiketa zein nagusien zainketan jarduteko ere. 616 32 90 12.

**Debagoiena.** Mutila gertu, esperientziaduna, nagusiak zaintzen lan egiteko, orduka, egun osoz edo etxean bertan bizitzen. Berehala hasteko prest. 602 07 12 06.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zaintzeko gertu nago, baita ospitalean gaixoko zaintzeko ere. 618 13 46 15.

**Debagoiena.** Neska arduratsua etxe, atari eta abarren garbiketara lanak egin zein nagusiak zaintzeko gertu. 616 62 85 91.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaindu, garbitasunak egin eta abarretarako. Etxean bertan bizitzen ere bai. Eskarmentuak dut zerbitzari, sukaldari eta hoteleko lanetan, okindegian, lorazain, hiltzean edota harrobian lan egiten. 665 98 29 55.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Esperientzia eta informea ditut. Autoa daukat eta ordutegi zein egutegi malgutasuna. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak, garbiketaren, nagusiak zaindu, sukaldatu eta abarretan jarduteko. Interesatuok deitu: 610 99 70 46.

**Debagoiena.** Neska gertu garbitasun lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. Nancy. 636 47 64 92.

**Debagoiena.** Neska gertu lan desberdinetan aritzeko: etxeak garbitzen, nagusiak zaintzen, umeak zaintzen eta abar. 626 51 05 58 edo 943 25 38 67

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi eta gaixoko zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943 25 02 96 edo 662 58 96 11

**Debagoiena.** Sukaldari esperientziaduna lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 53 34 24

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu, denetario garbiketarako egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizitzen, orduka, gaueetan zein asteburuetan. Esperientziaduna. 626 91 49 04.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu, denetario garbiketarako egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizitzen, orduka, gaueetan zein asteburuetan. Esperientziaduna. 626 91 49 04.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu, denetario garbiketarako egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizitzen, orduka, gaueetan zein asteburuetan. Esperientziaduna. 626 91 49 04.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu, denetario garbiketarako egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizitzen, orduka, gaueetan zein asteburuetan. Esperientziaduna. 626 91 49 04.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu, denetario garbiketarako egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizitzen, orduka, gaueetan zein asteburuetan. Esperientziaduna. 626 91 49 04.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu, denetario garbiketarako egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizitzen, orduka, gaueetan zein asteburuetan. Esperientziaduna. 626 91 49 04.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu, denetario garbiketarako egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizitzen, orduka, gaueetan zein asteburuetan. Esperientziaduna. 626 91 49 04.

**Durungaldea.** Neska gertu tabernatan, ume edo nagusiak zaintzen eta garbiketara lanetan aritzeko. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. 697 20 00 86.

**Durungaldea.** Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Baita garbiketarako ere. Pertsona arduratsua. Orduka zein etxean bertan bizitzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 722 14 42 86.

**Durungaldea.** Ostalaritzan lan egingo nuke: sukaldari edo laguntzaile. 634 41 90 51.

**Durungaldea.** Senar emazteak, erizaintza laguntzaile tituluarekin, pertsona nagusiak zainduko lituzke: etxean bertan bizitzen, ospitalean, eta abar. 697 35 62 49 edo 943 79 04 69

**Durungaldea.** Sukaldari edo sukaldari laguntzaile lan egingo nuke. Zortzi urteko esperientzia daukat. Elikagaiak ibiltzeko titulu daukat. Autoa ere bai. 634 40 64 65.

**Durungaldea.** Neska gertu sukaldari laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketara lanetarako. Edozein ordutegitan. Deitu 679 29 78 89 zenbakira.

**Durungaldea.** Lan bila nabil. Etxeak garbitzen esperientzia, baina edozein lan egiteko prest. Tel.: 608 04 21 27.

**Durungaldea.** Neska gertu sukaldari laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketara lanetarako. Edozein ordutegitan. Interesatuok deitu: 630 20 12 03.

**Durungaldea.** Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, umeak edo edadekoak zaintzen. Lanaldi osoan edo orduka. Erreferentzia onekin. Tel.: 638 43 79 01.

**Durungaldea.** Pertsona arduratsua lan bila, pertsona nagusiak zaintzen, garbiketaren, lorezaintzen, baserrietan ere aritzeko prest. Tel.: 622 47 39 41 / 632 37 28 87.

**Durungaldea.** Pertsona arduratsua lan bila, 09:00etatik 14:00etara. Zaintzen zein garbiketaren. Tel.: 632 72 43 23.

**Durungaldea.** Neska arduratsua etxeko lanak egiteko, nagusiak zaindu, denetario garbiketarako egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizitzen, orduka, gaueetan zein asteburuetan. Esperientziaduna eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 20 03 70.

**Durungaldea.** Neska gaztea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketaren (portalak, tabernak) zein etxeko lanak egiteko lan bila dabil. 24 orduz, lanaldi osoan edo lanaldi erdian. Erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 82 85 79.

**Durungaldea.** Emakume arduratsua pertsona nagusi laguntzeko eskaintzen da. 24 orduz, egunez, asteburuetan edo jai egunetan. Erreferentzia askorekin. Tel.: 666 75 21 47.

**Durungaldea.** Lan bila nabil. 24 orduz, gaueetan edo asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Geriatria kurtsoa egi, flla. Papelekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 00 82 22

**Durungaldea.** Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketaren lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 13 22 91.

**Durungaldea.** Egunez edo orduka 10:00etatik 20:00etara nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketaren lan bila. Esperientziarekin. Deitu 632 15 80 89 telefonora.

**Durungaldea.** Estetika eta ileapaintzaile laguntzaile lan bila. Tel.: 672 69 91 52.

**Durungaldea.** Ume edo nagusien zaintzan aritzeko prest. Egunez edo 24 orduetan. Dependentsiadun nagusiak zaintzeko ere bai, baita sukaldari laguntzaile edo garbiketaren ere. Tel.: 676 54 66 91.

**Durungaldea.** 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 602 12 22 45.

**Durungaldea.** Haur Hezkuntza ikasketak dituen neska euskalduna Durungaldean umeak zaintzeko lan bila. 625 70 78 31.

**Durungaldea.** Emakumea, nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo gauez. Erreferentziak. 616 78 80 33. Luz Adilia.

**Durungaldea.** Neska arduratsua eta erreferentziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako lan bila. 24 orduz, egunez, gauez. Tel.: 608 24 85 54.

**Durungaldea.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketaren lan bila. Edozein ordu eta egunetan. Tel.: 660 87 53 60.

**Durungaldea.** Lan bila garbiketaren edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Tel.: 680 29 66 76.

**Durungaldea.** Asteburuetan edo 24 orduz, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 602 12 22 45.

**Durungaldea.** Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketaren aritzeko lan bila. 24 orduz, egunez edo asteburuetan. 631 02 29 82.

**Durungaldea.** Bikote bat (emakume eta gizona), klinika eta psikiatria laguntzaile, geriatriko laguntzaile eta etxeko laguntzaile ere bai, eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko. Esperientzia handia eta merke. Etxeko lana ere bai. Bizkaia osoan, eta Arrasate y Nergaran. 690 28 60 71

**Durungaldea.** Nagusiak zaintzeko lan bila nabil, 24 orduz edo asteburuetan. Tel.: 602 12 22 45.

**Durungaldea.** Lan bila nabil. Lorezaintzan esperientzia, baina edozein lanetan aritzeko prest. Tel.: 645 05 35 23.

**Durungaldea.** Mutil arduratsua lan bila, lorezaintzan, nagusiak zaintzen edo altzairu montatzaile moduan. Esperientziarekin. 676 11 21 74.

**Durungaldea.** Nagusiak zaintzen zein garbiketaren lan bila. Lanaldi osoan, baita gauez ere. 660 70 66 18.

**Durungaldea.** Emakume arduratsua eta esperientziarekin lan bila dabil. Garbiketaren, sukaldari laguntzaile edo zaintzaile, ume zein nagusi. Arratsaldetan. Erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670 67 46 41.

**Durungaldea.** Lan bila nabil garbiketaren zein umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest, baita asteburuetan ere. Tel.: 644 63 51 45 // 631 02 29 82.

**Durungaldea.** Asteburuetan umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen mutil gaztea. Janaria egin, garbiketara, paseoak emateko... 22 urte ditut eta arreta soziosanitarioa ikasten ari naiz. Interesatuok, deitu 622 93 72 86 zenbakira.

**Durungaldea.** Neska euskalduna haurrak zaindu edota partikularrak emateko prest. Dietu telefono zenbaki honetara: 661 37 85 29.

**Durungaldea.** Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketaren lan bila. Tel.: 632 51 68 61.

**Durango.** Neska gazte euskalduna prest dago goizetan umeak eskolara eramane eta ondoren etxea garbitu eta atontzeko. 690 76 82 26.

**Elorrio.** Irailetik aurrera, arratsaldetan, umeak zaintzeko prest (Elorrixon). Esperientzia handiarekin. Informazio gehiagorako deitu 688 64 06 04.

**Elorrio.** Haur hezkuntza eta Hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsalde haurrak zaintzeko prest. Urteak daromatzen honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688 64 06 04.

**Elorrio.** Neska gazte eta euskalduna, Durungaldean haurrak zaintzeko prest, esperientziarekin. Yanire. Tel.: 657 77 54 37.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bilbo.** Euskal filologiako lizentziatu bat behar dugu euskal filologia amaitzen ari den ikasle bati klaseak emateko zein tutor lana egiteko (azalpenak eman, etxerako lanak bidali, lanekin lagundu). Sei edo zortzi klase ordu izango lirakeste astean, goizean bina ordu edo. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 609 42 54 74.

**Gitara eskolak Oñatin.** Gitarra eskola partikularrak emateko prest dagoen pertsona batetan interesatuok gaude. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 75 61 12

**Ingelesa.** Ingeles filologia daukan pertsona behar dut Advance azterketa prestatzen laguntzeko. 628 80 03 44

**Oñati.** DBH 4. mailako eskolak emango dizkidan norbait behar dut, kurtsoan zehar laguntzeko. 627 91 23 21

## 502. EMAN

**Arbizu.** LH, DBH, batxilergoa eta helduentzako taldeak. Izena emateko deitu 676 09 72 48 telefonora edo idatzi ingelesarbizu@gmail.com helbidera.

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen ditut, talde txikietan edo bakarka. Adin guztiak (5 urtetik aurrera). Erreferentzia eta hobekuntza. Azterketen prestatuntza ere bai (KET, PET, FCE...). Deitu eta informatu konpromiso barik. 606 72 47 10

**Bergara.** Ingelesko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Talde txikietan. Azterketak prestatzeko: Cambridge eta HEQ. Baita enpresarako eskolak ere. Goizez, eguerdian edo arratsaldetan. 618 91 32 89

**Bergara.** Neska Lehen Hezkuntzan eta DBHn eskola partikularrak emateko gertu. 685 77 40 26

**Donostia.** Frantseseko klase partikularrak ematen ditut. Taldeko edo bakarka. Esperientzia duen irakaslea. Hizketa, azterketen prestatketa. Ikus entzunezko metodoa. Bakarkako klaseak zure etxean eman dituzket. Lehendabiziko gizona proba moduan izanik, gero zuk erabaki. 664 16 02 68.

**Durungaldea.** Neska gaztea, ingeniaria eta durangarra, klase partikularrak emateko prest, LH, DBH edota Batxilergo ikasleei. Edozein ikasgaitan. Telefonoa: 635 20 50 12.

**Durango.** Klase partikularrak emateko aurkezten dut neure burua. Arkitektura teknikoak ikasi dut eta bi urteko esperientzia daukat irakaskuntzan. Kontaktuan jartzeko: 675 00 79 19 edo egorrono@gmail.com

**Durungaldea.** Alemaniera klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestatketa. HEQ. Tel.: 670 79 33 12.

**Durungaldea.** Psikologo euskaldunak ikasketak teknikoak eskaintzen ditu. Tel.: 679 38 23 69.

**Elorrio.** Lehen hezkuntzako edozein kurtsoa zuzenduta, arratsalde klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta Haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. 688 64 06 04.

**Gitara eskola partikularrak Durangon.** Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jaza, funka eta abar. Eskalak, akordeak, eritmoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... 650 17 22 85.

**Oñati.** Irakasle eta psikopedagogoa eskola partikularrak ematen ditut: klase pertsonalizatuak (euskara indartzeak, ulermen arazoak, eta abar), bakarka edo talde txikietan. Kontsulta ezazu konpromisarik gabe. 685 76 83 16 edo 943 78 07 49

**Oñati.** Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan eguneroko klase partikularrak emateko prest nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 76 48 25

**Tolosa.** Lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako irakasle ikasketak dituen esperientziadun neska arduratsua klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko prest agertzen da. Interesa baduzu, deitu 620 00 89 25 telefono zenbakira.

**Villabona.** Ingles eta frantseseko klaseak ematen dira gipuzkoako mailan. Taldeko edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluaduna. Telefonoa 664 16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@hotmail.com

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Seat Leon. Eskaintza.** Seat leon 1. 9tdi autoa saltzen dut, ez erabiltzeagatik. 2 urte beste-ri ez ditut. Interesdunak jarri harenan telefonon honetan 661 42 61 75.

**WG Multivan t4 tdi 2.5.** Furgoneta Wg Multivan T4 TDI 2.5 salgai daukat. 102 zaldi dauzka egoera honetan dago. 609 48 11 24.

**Honda cbf 600 sa salgai.** 600eko zillindrada, 2006 urtekoa, 20. 600 km. Berri berria dagoen motorra, beti garajeen gorde eta ondo zaindua. Bi kaskorentzat Givi kofrearekin, kordurazko maleta lateralak, anticaida ko topeak, motor limitatua paperetan (limitazio kit ematen da), gurpilak berriak, ez erabiltzeagatik saltzen da. Hasiberrirentzat proposa, hirian eta errepidean ibiltzeko egokia. Aukera paregabea da, ikusteaz merezidu. 4600 eurotan. Harremanetan jartzeko deitu: 666 37 26 71.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALGAI

**Behorra eta moxala salgai.** Behorra eta bere 4 hilabeteko moxala salgai. Deitu 15:00 etatik 18:00 etara. Tel.: 679 23 47 46.

**Gorbeiaiko ardi txakur kumeak salgai.** Gorbeiaiko ardi txakur kumeak salgai. Uztailaren 1ean jaioa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 690 20 55 36. Mikel

**Untxiak salgai.** Bi hilabeteko untxi handiak salzen dira. Aitak 8 kilo eta amak 7 kilo dituzte. Untxi bakoitza 15 euroan. Tel.: 94 621 82 57.

## 703. EMAN

**Katakumeak.** Irailen jaioak katakume poli politak familia berri baten bila dabilta. Deitu 626 12 57 47 zenbakira

**Katakumak opari.** Lau katakuma beltz beltzak oparitzen dira. Deitu telefono zenbaki honetara: 606 70 91 18.

## 704. BESTELAKOAK

**Artzai txakur zuria galdu.** Abuztuaren 13an Bedoña inguruan, Arrasate, artzai txakur zuria galdu zen. Oso alai eta beti jolasteko gogoz. Lepoko marroika dauka. Ikusi baduzue mesedez telefono hauetara deitu. 665 71 44 76, 653 70 33 44.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Almirante trajea.** Lehen jaunartzeko almirante trajea salgai. Neurria: 10. Zapatak izan ezik gainontzeko guztia. Behin erabilirik, 150 €. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 00 08 28

**Aramaio.** Zabola auzoan 10.119,34 metro koadroko bi lursail salgai, etxebizitzak egiteko aukerarekin; proiektu, lizentzia eta gutxi. 629 51 39 22 edo 636 49 4 689

**Aulkirakopatinetea.** Bigarren umea eramateko patinete unibertsal salgai. Bump primer etxekoa. Ia erabili gabea. 45 euro. 663 04 53 99

**Biolinak.** Hasiberriendako bi biolin salgai Debagoiengan. Prezioa negoziatzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 643 76 79 64

**Gama altuko bizikleta.** Cube Acid 2012 Mountain Bike. Estreinatua barik. Bi urteko bermea. Aukera ezin hobea. 725 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 29 93 44

**Labea.** Labea salgai. Oso gutxi erabilia. Ia berria. Arrasate. Deitu telefono zenbaki honetara: 686 88 46 66

**Mutilendako trajea.** Praxak, jaka eta txalekoa. Beltza. 40 neurrikoa. Maritxu Kajorako aproposa. Interesatuok deitu 21:30etatik aurrera zenbaki honetara: 630 71 92 67

**Oheak.** Bi ohe saltzen dira 1.05 neurrikoak, estrenatu gabekoak. Arrasate. 606 76 36 85

**Sehaska eta haurren aldelekua.** 0 2 urtera arteko minia eta sehaska salgai. Stokke sleepi zuria. 2010eko uztailekoa, egoera oso onean eta gutxi erabilia. 350 euro. Haurren aldagailu zuria (Stokke) 150 euro. 648 20 37 75

**Xurgagailua.** Akaroen aurkako eta kontsumo baxuko. Gutxi erabilirik. 659 62 02 49


**Yamaha Clavinova pianoa.** Yamaha Clavinova piano elektronikoa salgai. Piano ikasketeko oso egokia. Nahizanez gero argazkiak bidaltzen dira, edo ikusi eta probatu daiteke. Interesatuok deitu 20:30etatik aurrera. Prezio negoziagarria. Deitu telefono zenbaki honetara: 653 73 78 58

## 802. EROSI

**Birkien aulkitxoak.** Birkien dako aulkitxoak erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 04 53 99

**Bugaboo patinetea.** Bugaboo etxeko patinetea erosiko nuke. 663 04 53 99

**Estetika tresnak** erosteko prest. Kamikak eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 87 95 57



Irudian Myspace berria. | NEW.MYSPACE.COM

# Itxura guztiz aldatuta duela itzuliko da Myspace berria

Diseinuak itxura garbiagoa du eta irudiak pisu handiago izango du

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Sare sozialez hitz egiten hasi baino urte lehenago guztien aitzindari izan zen Myspace zegoen, garaiari aurreratu zitzaion plataforma bat, baina sare sozialen loraldiaren garai berriei ezin egokitu eta gaur egun ia zokortua geratu bada ere, musikazaleen sare moduan hasi eta arrakasta handia lortu zuen sareak.

Justin Timberlake musikariak eta inbertitzaile talde batek erosi zuten orain urte eta erdi Mys-

pace, eta ordutik berrabiarazteko lanetan jardun dute. Diseinu berriarekin ia ezagutu ere ez da egiten Myspace. Timberlake-ek berak sarean eskegitako bideo baten ikus daiteke itxura berria eta dotorezia eta ikusgarritasuna argi ikusten dira. Facebooken moduan eguneraketa lerroa, mezuak, jakinarazpenak eta abar aurki daitezke pantailan baina banaketa bertikala barik horizontala izango da. Diseinu berriak Pinteresten antz handiegia due-

la esan duenik ere badago, irudiak duen presentzia dela-eta. Hala ere, Myspacek musikan oinarritutako sare soziala izaten jarraituko du, musika erreproduktio zerrenda eta aplikazioekin. Gai nontzeko sare sozialean partekatze aukerak ere ikus daitezke bideoan.

**Oraindik probatan**

Beritasun guztiak ikusi eta iritzia emateko [neu.myspace.com](http://neu.myspace.com)-en eman behar da izena.



Aplikazioaren pantaila-irudi bat. | SUSTATU

## Euskara ikasteko aplikazio berria da Hitzapp

Gaztelarazko hiztunentzat da eta jolas bidez irakasten dira berbak

J.B. | ARRASATE

Appleren gailuetarako bereziki prestatutako aplikazioa da Hitzapp, eta euskarazko hitzak ikasteko moduak ematen ditu. Aplikazioak 3.000 hitz ditu hiztegi, itzulpen eta ahoskerekin, eta ariketa eta jolasen bidez irakasten dira hitzak,

Sugea, Hizki-zopa, Hitz-haustiak eta Lautik bat izeneko jolasen bitartez. Hitz soilak ikastez harago, sortzaileek diote unibertsitaterako sarbide-probak edo EGA prestatzeko ere balio duela aplikazioak, eta euskarari eta euskal kulturari buruzko infor-

mazioa ere ematen du. Interfazea gaztelaraz dago eta iragarri dutez ingelesa, frantsesa ala alemanera ikasteko euskaldunentzako aplikazioak.

Suitzako Wizzy Education Technologies enpresak garatu du aplikazioa Javier Bellorekin eta Kepa Iturriotzekin elkarlanean. Makina bat hizkuntza ikasteko aplikazioak dauzka enpresak sortuta eta eskuragarri. Aplikazio bakoitza 6,95 euro balio du.

**Aukera gehiago**

Ez da, hala ere, euskararen irakaskuntzarekin lotutako lehen aplikazioa. Oso atzera joan barik, Elhuyarren, hain zuzen, *kxo!* izeneko aplikazioa atera zuen ekainean smartphonetarako, euskaraz, frantsesez eta ingelesez, eta oinarritzko jakintzak irakasten ditu eta erabilgarria da, baita ere, Euskal Herria bisitatzeko duen turistentzat, halako informazioa ere jasotzen baitu aplikazioak. Bestelako aplikazioak ere aurki daitezke bai Appleren AppStorean eta Google Play dendan. Gehienak ordainpekoak dira.

## Facebook eta Dropboxen zerbitzuek bat egingo dute

J.B. | ARRASATE

Taldeek euren artean fitxategiak trukatzeko aukera egongo da laister Facebooken Dropbox zerbitzuari esker. Facebooken orain Groupsen bitartez 25 Mb-eko muga dauka antzerako zerbitzuak. Biltegitratze muga hori gaitutako luke Dropboxek baina ez hori bakarrik, fitxategia bera edozein puntutatik eguneratzeko aukera ere eman- go luke, dokumentu kolaboratibo eta elkarlanetan oso erabilgarria dena. Aldaketa guztiak, fitxategi horretan kolaboratzen duten kontaktuei jakinaraziko zaie Facebook bitartez. Horre-

kin batera, dokumentuak berak eta Dropbox zerbitzuak Facebookek ematen dituen partekatze eta iruzkin aukerak.

**Taldeak indartuz**

Taldeak indartzen jarraitu gura du horrela Facebookek, kolaborazio oinarri duten sare sozial berrien aurrean eta batez ere lan mundura begira. Gainera taldeen orriaren diseinua aldatu dute Facebooken, erabiltzeko erraztasunak emateko. Zerbitzuak izango dituen mugez ez dute ezer argitu ezta Facebookek fitxategi horietan ze eskubide izango dituen.

## Android euskaratzeko plataforma berria abian da

J.B. | ARRASATE

Ekimen bat baino gehago egon da indarrak batu eta Android sistema euskaratzeko. Hala ere, ahaleginak erdibidean geratu eta bertorio bukatu ez dago egon, eta zenbait konpainiak euren euskaratzeak egin badituzte ere, Googlek ez du egin. Sistemaren bertorio berria, Jelly Bean 4.1.1. izeneko, itzultzeko egitasmoari heldu diote zenbait euskal erabiltzailek, eta plataforma ireki dute. [Androideuskaraz.aking.eu/blog](http://Androideuskaraz.aking.eu/blog) helbidean aurki daitezke xehetasun guztiak, eta baita parte hartzeko argibideak ere. Bertan ipiniko dituzte itzulpen fitxategiak erabiltzaileen eskura, baina talde txikien egitea da asmoa, ondo kontrolatu aldera.

## Mapa berriekin "pazientzia" eskatu du Applek

J.B. | ARRASATE

Sistema eragilearen bertorio berriaren iPhone eta iPaderako mapen nabigazioarako aplikazio berria atera du Applek, etxean garatutakoa, Google Maps barik. Sistema berriak akats ugari ditu eta ez da Googlenaren bezain zehatza. Kexa ugari egin da dagoeneko zerbitzu berriaren inguruan. Horren aurrean, Applekoek ohar baten bitartez sistema berriarekin "pazientzia" izan dezatela eskatu diete erabiltzaileei, akatsak konpontzen dabilzala. Akatsak gain, informazio gabezia handiak ditu Appleren kartografia aplikazioak, eta, adibidez, garraio zerbitzu publikoen informazioak ez dakar eta lekuen izenak gaizki ematen ditu, oraingoz.

## Megabox aurkeztu du Kim Dotcomek, Megauploaden sortzaileak, iTunes eta Spotifyren alternatiba bezala

Sortzaileei diru sarreren %90 bermatzen dien musika plataforma aurkeztu du Megaupload sortu zuen Kim Dotcom ezagunak. Spotify edo iTunesen tankerako zerbitzua da, publizitateak finantzatua, eta artistak eta erabiltzaileak zuzenean konektatzen ditu. Musikariak zuzenean eskaini ditzakete, bitarteko barik, euren abestiak plataforma berriari. Oraingoz, aurkeztu bakarrik egin dute, eta irekiera datarik ez dute eman, nahiz eta aurki izango dela argitu duten arduradunek.

## Dirua galtzen jarraitzen du RIMek, nahiz eta aurreikuspen onak izan

Blackberry telefonoak ekoizten dituen konpainiaren garai latzak ez dira amaitu, baina, ematen duenez, etorkizunean argi izpiak ikus daitezke. Azken hiruhilekoan ere galerak izan dituztela iragarri badute ere, sistema operatibo berriarekin aterako dituzten modeloetan itxaropen handia daukate, eta adituek diote Apple eta Samsungen modeloen aurrean lehia egiteko moduan izan daitezkeela Blackberrak. Galerak, gainera, aurreko hiruhilekoetakoak baino txikiagoak izan dira.

## TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



## Leioa edo zulo beltza?

**M**andatu batzuk egiten pasa dut ia goiz osoa eta etxera bueltatzean amama telebista begiratzen ikusi dut. Bai, ez dut gaizki esan, amama ez zebilen telebista ikusten, hura itsungita zegoelako, bera telebista begiratzen zebilen. Bat-batean *Poltergeist* filmaz gogoratu naiz eta hotzikara bat sumatu dut bizkarraldean. Eta telebistak nire amama irentsiko balu?

Momentuz ez da horrelakorik gertatu, baina, egia esateko, kaxa tonto, zulo beltz edo mundura begira dagoen kutxa katodiko horrek gure neuronak irentsi beharrean bereganatu egin dituela dirudi.

Ikertzaileek diotenez, krisian murgildu ginenetik telebista gehiago kontsumitzen dugu, eta horrek larritu egiten nau. Garai bateko kaxa tontoak gu geu tonto al gaitu? Nor da tontoa orain? 40 hazbeteko plasma handia edo berau ikusten 3 eta 4 ordu bitartean ematen dugun primate itxurako lelook?

Adi egon, baina telebista itzungita dagoela zure izena entzuten baduzu, korrika etxetik irten edo Carolain txikiari neure goraintziak eman.

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

## ASTELEHENA 01



## Harmailatik

Asteburuko kirol kontuen erreposoa. Aloñaren eta UDAREN arteko partiduen laburpena. | 22:00

12:25 Magazinea  
13:10 Zorion Agurrak  
13:15 Onein  
13:43 AsteON  
14:15 Ikusmira  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Zorion Agurrak  
15:13 Erreportajea  
15:43 Erreportajea  
16:13 Ur eta lur  
16:49 Berriak  
17:09 Eguraldia  
17:12 Onein  
17:44 Goierri Creation Center  
18:09 Erreportajea  
18:39 Ekogune  
19:09 AsteON  
19:39 Musikaz Gain  
19:49 Zorion Agurrak  
19:54 Berriak  
20:14 Eguraldia  
20:17 Magazinea  
21:02 Gurean gaur  
22:02 Harmailatik  
22:47 Berriak  
23:07 Eguraldia  
23:10 Magazinea  
23:55 Harmailatik  
00:40 Berriak  
01:00 Eguraldia

## MARTITZENA 02



## Harira

Iñaki Espartza, Unedeko zuzendaria, elkarriketatuko du Eneko Azkaratek *Harira* saioan. | 22:00

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:15 Zorion Agurrak  
13:20 Harmailatik  
14:05 Erreportajea  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Harmailatik  
15:53 Onein  
16:21 Goierri Creation Center  
16:44 Berriak  
17:04 Eguraldia  
17:07 Erreportajea  
17:37 Bizitegia  
18:07 Harmailatik  
18:52 Laino arteko plana  
19:20 Erreportajea  
19:46 Zorion Agurrak  
19:51 Berriak  
20:11 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
21:00 Gurean gaur  
22:00 Harira  
22:30 Musikaz Gain  
22:40 Berriak  
23:00 Eguraldia  
23:03 Magazinea  
23:48 Harmailatik  
00:33 Berriak  
00:53 Eguraldia

## EGUAZTENA 03




## Ekogune

Mutrikuko Akuakultura Eskola eta Burdinbidearen Museoa landuko ditu Julen Iriondok. | 22:00

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:15 Zorion Agurrak  
13:20 Harira  
13:53 Musikaz Gain  
14:03 Harmailatik  
14:48 Berriak  
15:03 Eguraldia  
15:06 Erreportajea  
15:36 Onein  
16:06 Goierri Creation Center  
16:41 Zorion Agurrak  
16:46 Berriak  
17:01 Eguraldia  
17:04 Harmailatik  
17:49 Zorion Agurrak  
17:54 Musikaz Gain  
18:05 Laino arteko plana  
18:35 Harira  
19:08 Erreportajea  
19:38 Zorion Agurrak  
19:43 Musikaz Gain  
19:55 Berriak  
20:10 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
21:00 Gurean gaur  
22:00 Ekogune  
22:30 Berriak  
22:50 Eguraldia  
22:55 Magazinea  
23:40 Harira  
00:10 Berriak  
00:15 Eguraldia

## EGUENA 04



## Hauteskundeak

Alderdi nagusietako ordezkariekin mahai-ingurua Goiatz Aranarekin eta Ainhoa Ibañezekin. | 22:00

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean gaur  
13:15 Zorion Agurrak  
13:20 Tertulia  
13:50 Erreportajea  
14:20 Onein  
14:43 Zorion Agurrak  
14:46 Berriak  
15:06 Eguraldia  
15:09 Erreportajea  
15:35 Goierri Creation Center  
16:05 Musikaz Gain  
16:16 Ekogune  
16:46 Berriak  
17:06 Eguraldia  
17:09 Ikusmira  
17:39 Musikaz Gain  
17:49 Ur eta lur  
18:25 Erreportajea  
18:55 Planik bai?  
19:15 Harira  
19:45 Musikaz Gain  
19:55 Berriak  
20:15 Eguraldia  
20:17 Magazinea  
21:02 Gurean gaur  
22:02 Hauteskundeak 2012  
23:32 Planik bai?  
23:52 Magazinea  
00:37 Berriak  
00:57 Eguraldia

## EGUBAKOITZA 05



## AsteON

Arritxu Barruso kazetariak aurkeztutako saioan, gaurkotasuneko gaiak berbagai. | 22:00

12:00 Planik bai?  
12:20 Magazinea  
13:05 Gurean gaur  
13:35 Zorion Agurrak  
13:40 Onein  
14:06 Laino arteko plana  
14:36 Musikaz Gain  
14:46 Berriak  
15:06 Eguraldia  
15:09 Planik bai?  
15:29 Hauteskundeak 2012  
16:59 Berriak  
17:19 Eguraldia  
17:22 Planik bai?  
17:42 Ekogune  
18:12 Harira  
18:45 Ikusmira  
19:15 Laino arteko plana  
19:45 Zorion Agurrak  
19:49 Berriak  
20:09 Eguraldia  
20:12 Planik bai?  
20:32 Harira  
21:03 Gurean gaur  
22:03 AsteON  
22:33 Berriak  
22:53 Eguraldia  
22:56 Hauteskundeak 2012  
00:26 AsteON  
00:56 Planik bai?  
01:16 Berriak  
01:36 Eguraldia

## ARRASATE IRRATIA

## Chufamix etxetresna irabazteko lehiaketa hil osoan

Etxean esnea egiteko Chufamix tresna berria zozketatuko dugu Arrasate Irratian. Hil osoan zehar deitzeko aukera izango duzue chufamixa lortzeko. 943 25 05 05 telefono zenbakira deitu eta Arrasate Irratia Internet bidez edo irrati bidez entzuten duzuen esan beharko diguzue.

## Maritxu Kajoi eguna lasai prestatzeko gomendioak

Aste osoan Maritxu Kajoi eguna prestatzeko gomendioak emango dizkizuegu. Profesionalekin egongo gara, ile-apaindegi, jatetxe, bitxi eta jantziak aukeratzeko orduan laguntzen saiatzeko. Azken orduan presaka ez ibiltzeko, egunero hitzordua duzu Arrasate Irratian.

## Errugbi taldea aurkezteko txanda, oraingo honetan

Debagoieneko kirol taldeen aurkezpenekin jarraituz, oraingoan Arrasateko errugbi taldearen txanda heldu da. Taldearen aurtengo denboraldia buruz hitz egin, eta Debagoieneko eta Aramaioko neska-mutilei zabalduko errugbi eskolari buruz mintzatuko gara taldeko ardura-dunekin, 107.7an.

## TELE-ALBISTEAK

## 'Hauteskundeak 2012' saio berezia izango da, alderdi politiko nagusiekin egunean


Hauteskunde kanpainaren estreinaldia mahai-inguruarekin egingo dugu

U.M. | ARRASATE

Mahaiaren bueltan eseriko ditugu Eusko Legebiltzarrerako urriaren 21eko hauteskundeetan aurkeztuko diren alderdi politikoe-tako ordezkariak, oraingo egunean. Hain justu ere, kanpainaren hasieraren bezperan emitituko da saioa.

## Saioa, Garaian

Garaia Berrikuntza Gunera gonbidatu ditugu alderdi nagusienetako ordezkari politikoak: Xabier Isasik (EH Bilduko Gipuzkoako zerrendaburua), Joseba Egibarrek (EAJko Gipuzkoako zerrendaburua) eta Mikel Aranek (Ezker Anitzako Bizkaiko zerrendaburua) dagoeneko konfirmatu dute hantxe izango direla; eta haiekin batera, sozialisten eta popularren



Argazkian, hauteskunde-txartelak. | GOIENA

ordezkariak ere gonbidatu ditu Goienak.

Gero, Goiena Telebistan, urriaren 4an, eguena, ikusi ahalko da

mahai-ingurua, 22:00etan. TOKIKO euskarazko toki telebisten elkarrekin elkarlanean landutako saioa izango da, gainera.

## Oñatiko eta Aretxabaletako San Migelak 'Magazinea'-n

Gaurko 'Magazinea' saioan, San Migeletako erreposo zabala egingo dute

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Oñatiko eta Aretxabaletako San Migeletan egon da Goiena Telebistako lantaldea joan den oraingo asteburuan, eta, gaur, astelehena, gertakari eta ospakizun nagusien erreposoa egingo dute Txomin Madina eta Miren Arregi kazetari eta aurkezleek.

Oñatiko Txantxiaren jai-tsieraren eta egubakoitzeko danborradaren laburpena eta Aretxabaletako merkatua ikusgai izango dira, besteak beste.

## 'Harira' eta 'Harmailatik'

Bestalde, bihar, martitzena, Iñaki Espartza, Bergarako UNED-eko zuzendaria, *Harira* saioan izango da. Aurtengo ikasturteari, eskaintza berriari, Bergarako



Oñatiko danborrada. | GOIENA

Udala eta Foru Aldundiarekin dituzten harremanei, eta, oro har, hezkuntzarekin eta unibertsitate-ikasketekin zerikusia duten kontuei buruz ariko dira Eneko Azkarate aurkezlea eta Iñaki Espartza zuzendaria.

## ZORION AGURRAK



**ANTZUOLA**  
**Oihan eta Jare Alberdi Hernandez**  
Oihane 5 urte betetzen ditu urriaren 6an, eta Jarek 3, urriaren 11n. Zorionak, bikote, eta jarraitu horren alai eta irrifartsu!



**ARRASATE**  
**Oroitz, Zorione eta Rosa**  
Oroitzek urriaren 8an, Zorionek urriaren 5ean eta Rosak urriaren 7an, urtebetetzeak. Zorionak! Txantxibergararrasateko familixaren partetik! Muxu handi bana!



**ANTZUOLA**  
**Garazi Kortabarria Otaegi**  
Urriaren 5ean, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Laiane, aitaxo eta amatxoren partetik.



**BERGARA**  
**Jule Agirrebeña Sanchez**  
Urriaren 4an, 2 urte. Zorionak, pittin! Ondo pasatu zure bigarren urtebetetzean. Patxo handi bat etxeko guztien partetik.




**OÑATI**  
**Anartz Arregi Camino**  
Urriaren 1ean, urtebete. Zorionak, potxolo! Muxu handi bana familiako danen eta, bereziki, zure lehengusu-lehengusina Eneritz eta Ekainen partetik.



**ARRASATE**  
**Unai Souto Barquero**  
Irailaren 30ean, 2 urte. Zorionak, mutikote! Oso-oso ondo pasatu zure urtebetetzean eta jarraitu horrela. Patxo handi bat etxeko guztien partetik.



**OÑATI**  
**Ametz eta Mattin Bikuña Malbadi**  
Zorionak, pottoko! Zorionak, terremoto! Irailaren 30ean, Mattinek urtetxo bat eta urriaren 1ean, Ametsek 6 urte beteko dituzte. Mutilak, fenomeno batzuk zarete, holaxen segi! Muak eta mauk.



**ESKORIATZA**  
**Unai Jurado Navas**  
Irailaren 30ean, 15 urte. Zorionak, guapeton! Ama eta Lorearen partetik. Ondo pasatu zure eguna. Muxuak.



**ARETXABALETA**  
**Jokin Larrinaga**  
Irailaren 30ean, 9 urte. Zorionak, Jokin! Jadanik 9 urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna San Migeletan eta muxu potolo bat etxeko danon partetik!



**OÑATI**  
**Nahia Eskarza Vernaza**  
Irailaren 29an, 5 urte. Zorionak, mitxina. Ondo pasatu eguna etxeko partetik. Muxutxo bat.



**BERGARA**  
**Naia Gabilondo Kapelastegi**  
Irailaren 29an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetzea eta muxu potolo bat aitaxo eta amatxoren partetik.



**ARAMAIO**  
**Nahia Reguero**  
Irailaren 29an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Zelako azkar pasatzen den denbora, bi urte... Muxu handi-handi bat etxeko partetik, maittia.



**ANTZUOLA**  
**Ametz eta Oinatz Larrea Garitano**  
Zorionak, artistak! Ametsek irailaren 29an, 3 urte eta Oinatzek urriaren 1ean, urtebete. Ondo pasatu eguna, familia guztixaren partetik. Muxu handi bat bixontzat.



**OÑATI**  
**Manex Juaristi**  
Irailaren 28an, 6 urte! Zorionak, txapeldun! Egun ahaztezina pasatu du, danborrada eta guzti. Muxu handi-handixa familia eta lagun partetik.



**ANTZUOLA**  
**Xuban G. Rodriguez**  
Irailaren 28an, urtebetetzea. Antzuolako familiaren, eta bereziki Danelen partetik, zorionak!



**ARRASATE**  
**Izaro Tena Azkarraga**  
Irailaren 28an, 2 urte. Zorionak, politxori, aitaxo, amatxo, Nora eta familia guztixaren partetik. Ondo pasatu eta muxu handi bat!



**OÑATI**  
**Ane Pelayo**  
Irailaren 28an, 7 urte. Zorionak, maittia! Azkenean heldu da egun handia... Ondo pasatu eta muxu handi bat etxeko partetik.



**ARRASATE**  
**Ane Delgado Ugarte**  
Irailaren 27an, 12 urte. Zorionak, Ane! Oso ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat etxeko partetik, bereziki Eriken partetik.



**ARRASATE**  
**Maddi Aldekoa Unzueta**  
Irailaren 27an, 2 urte. Zorionak, Maddi! Bi urtetxo betetzen dituzu baina sorgintxo bat inddu zauz jadanik! Patxo handi bat familixaren partetik!



**ARETXABALETA**  
**M. Angeles Martin**  
Irailaren 26an, urtebetetzea. Nahiz eta beste urte bat pasatu, gazte-gazte ikusten zaitugu. Segi beti moduan alaitu eta irribartsu. Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik!



**ARETXABALETA**  
**Antonio eta Urko Amaral**  
Urko irailaren 26an, 4 urte bete zituen eta aitaxo Antoniok urriaren 4an, bere urtebetetze eguna ospatu du. Zorionak etxeko guztien, eta batez ere, amatxoren partetik. Ondo-ondo pasatu eta muxu potolo bat.



**DEBAGOIENA**  
**Oinatz Anduaga Estrada**  
Irailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Oinatz! Heldu da zure eguna. Oso ondo pasatu! Muxu potolo bat aita, ama eta Nahia partetik.



**ARRASATE**  
**Noa Beltran de Gebara Zabarte**  
Irailaren 25ean, 6 urte. Zorionak eta patxo potolo bat denon partetik! Ondo pasatu eguna!



**ARRASATE**  
**Mikel Zabala**  
Irailaren 25ean, 22 urte. Egun on-ona pasatu eta disfrutatu! Besarkada bat hemendik.



**ARRASATE**  
**Jokin Ayasa**  
Irailaren 24an, 7 urte. Aupa, Jokin! Ederto pasatu dugu zure urtebetetzea ospatzen.



**BERGARA**  
**Elene Ciarso**  
Irailaren 21ean, 7 urte. Zorionak, sorgintxo! Txokolatzeko patxo bat familia eta lagun partetik, bereziki zure lehengusina Maider, Maddi eta Haizea.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitez [Goiena.net](http://Goiena.net) atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## JAIOTAKOAK

**Unax Rodriguez Saldaña**

Arrasate. 2,940Kilo. Irailaren 19a. Gurasoak: Esti eta Julio. Argazkian, Unax sehaskan lasai-lasai

**Danel Rico Diaz**

Arrasate. 3,040Kilo. Abuztuaren 31. Gurasoak: Yelena eta Antxon. Argazkian, Danel jaioberria gustura lotan.

**Enara Garcia Calzada**

Oñati. 3,180 Kilo. Irailaren 21a. Gurasoak: Nuria eta Gorka. Argazkian, Enara amaren besoetan.

**Oinatz Garro Larrañaga**

Aretxabaleta. 3,520Kilo. Irailaren 23a. Gurasoak: Oier eta Uzuri. Argazkian, Oinatz gutasoekin.

**Garazi Aranguren Silva**

Oñati. 3,320 Kilo. Irailaren 23a. Gurasoak: Iker eta Mirian. Argazkian, Garazi gurasoekin.

**Araitz Gartzia Dorronsoro**

Arrasate. 3,250 Kilo. Irailaren 24a. Gurasoak: Olatz eta Iker. Argazkian, Araitz amatxo eta aitaxorekin.

**Izaro Mendikute Etxeita**

Bergara. 3,200 Kilo. Irailaren 23a. Gurasoak: Alberto eta Amaia. Argazkian, Izaro gurasoekin.

**Axel Urtzelai**

Aretxabaleta. 3,270 Kilo. Irailaren 25a. Gurasoak: Iratxe eta Igotz. Argazkian, Axel jaioberria sehaskan.

**Elaia Gorosarri Bolinaga**


Aretxabaleta. 3,480 Kilo. Irailaren 27a. Gurasoak: Aitziber eta Igor. Argazkian, Elaia amarekin.

**Naia Quijano Benito**

Arrasate. 3,000 Kilo. Irailaren 26a. Gurasoak: Izaskun eta Enrique. Argazkian, Naia gurasoekin.

**Emma Donoso Bouzas**

Soraluze. 3,100 Kilo. Irailaren 26a. Gurasoak: Marta eta Juanma. Argazkian, Emma jaioberria sehaskan lo.

**Oihane Idigoras Ugarte**

Oñati. 3,700Kilo. Irailaren 27a. Gurasoak: Amaia eta Roberto. Argazkian, Oihane amarekin.

## BABESLEA



Garibai 6 ARRASATE  
Tel.: 943 79 97 86

DENBORALDI  
BERRIA



Jarraitu gaitzazu  
Facebooken:  
UME ARRASATE



## AI, ENE!

### Abiadura izan da? Ala ez da stocean geratu?

Azkar hasi da argazkiko umea isunak pilotzen. Gidabaimena atera orduko zenbat puntu izango ditu zorretan?  
[www.facebookfails.es](http://www.facebookfails.es)



## AHOBERO

### "Irentsi zure gonbitoa, ordu eta erdi geratzen zaizu-eta amaitzeko"

ANNA TARRES | HAUTATZAILE OHIA

Hamabost igerilari ohik eskutitza kaleratu dute igeriketa sinkronizatuko hautatzaile ohiaren kontra. Bertan, jasandako umilazio eta irainak kontatzen dituzte. Tarrések ukatu egin ditu. Kontuak kontu, sortu du eztabaida: edozerk balio al du domina lortzeko?  
[www.publico.es](http://www.publico.es)

## EGURALDIA



Max. 22°

Min. 9°

Oskarbi egongo da; lainogune batzuk besterik ez dira sortuko egunsentian.  
[euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2012-10-01

## HAMARREKOA

**Mikel Markez** Urteen zakuari ale bat gehituko dio aste honetan Errenteriako kantautoreak. Azkenaldian, Erramun Martikorena bidelagun duela ari da agertokietan; urriaren 19an Elgetan egongo dira. | TXOMIN MADINA

## "Jarraitzen dut edukitzen nerabearen ilusio hori"

### 1. Asteon, 41. Nola daroazu urteak betetzea?

Ondo, arazorik gabe. Adinak ez nau bereziki kezkatzen; kezkatuko ninduke osasuna galduko banu. Baina ondo sentitzen naiz azkenaldi honetan.

### 2. Zer igartzen duzu faltan hogei urterekin lehen diskoa atera zuen Mikel Markez hartatik?

Malkarretik behera ez amiltzeko beldur falta. Adinarekin galtzen den zerbait da, errekuperatu beharrekoa. Egin daitekeela uste dut.

### 3. Hasierako kantuen helburua ligatzea omen zen...

Bizitzako etapa bakoitzak bere puntuak ditu. Egia da helburuetako bat hori zela eta orain kantuekin beste zerbait lortu nahi duzula. Baina orduan eta orain, kantuekin nahi duzuna hunkitzea da, orain helburua hain haragizkoa ez izan arren.

### 4. Orain atera izan bazenu, Zure begiek kantuak izango al luke lekurik egungo musikan?

Kantu onak beti du bere lekua musikan. Garbi dago une bateko gizarte baten kantu bat hobeto edo okerrago hartuko dela, baina kantu ona beti aterako da aurrera bere kabuz.

### 5. Egun, Erramun Martikorena duzu bidelagun. Ondo uztartzen dira Iparra eta Hegoa?

Bai, gure kasuan bai, baina ez Iparra eta Hegoa bakarrik: belaualdien ikuspuntuak, hiria eta mendia... Elkar konplementatzen diren bi polo gara.



AGM

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

### "Euskal Herri independentea nahi nuke"

"Momentu honetan, eta gauzak dauden bezala, Euskal Herri independentea nahiko nuke: makilatxoarekin ttak!, eman eta lortu. Kataluniako bideari jarraituz edo beste bati, baina 500 urte pasa eta gero izan gaitezen geure buruaren jabe; esaten den moduan, hel dadila zikloaren hurrengo itzulia".

### 6. Kolaborazioak, baina, ohikoak izan dira zure ibilbidean.

Denetarik egin izan dut jende oso ezberdinarekin. Euskal Herria herri txikia izanda, elkarrekin topo egitea errazagoa da, bai agertokian eta baita agertokitik kanpo ere.

### 7. Euskal mugetatik kanpo ere jo duzu; aurrean, esaterako, Irlandan.

Euskal komunitatearentzat aritzea erraza eta esker onekoa da, oso ongi hartzen gaituzte. Euskal girotik kanpoko emanaldiak ezberdinak dira: herri ez normalizatuko kide izanda, beste edonork azaldu behar izaten ez dituenak azaldu behar izaten ditugu; hor badugu ajetxoa oraindik.

### 8. Errenteriatik Aiara. Erraza izan zen handitik txikirako saltoa?

Nire kasuan oso erraza. Normalean, asko mugitzen naiz: bilera hemen, beste ez dakit zer han... Errenteriatik edo Aiatik, esaterako, Iruñera joatea berdina zait. Aldaketa izan zen, baina ez hain handia.

### 9. Nerabezinela hasizinen musikan eta orain nerabe baten aita zara.

Bi alaba ditut, eta ikusten dut bi nerabezaro uztartzen ari direla: nirea eta haiena. Beste eskarmentu bat daukat, baina jarraitzen dut edukitzen nerabearen ilusio hori.

### 10. Azti puntu bat baduzu: nori bota dizkiozu azkeneko kartak?

Neure buruari, duela hiruzpalau egun. Oso inguruko jendeari bakarrik botatzen dizkiot. Umetatik izan dut zaletasuna, baina gehiago sakondu beharra sentitzen dut.

## BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



## Subiranotasunaz

Estatu-subiranotasun estuenaren diskurtsoa tradizio zaharrekoa da Españak. Kuttun-kuttuna zuen España frankistak eta ondokoak ere ez du pitzaturik arinena onartzen doktrina horretan. Oroit Aznarrek Marokoko kostea aurrean, Peregil izeneko harkaitz gainean, 2002an eginiko zirkoaz; Ibarretxe Planarekin 2005ean Parlamentuan gertatutakoaz; edota Epaitegi Konstituzionalak 2010ean edo Raxoik, oraintxe, Kataluniaz hartutako erabakiez, bertako iritzirik politikoko zabalduenaren kontra.

Hain aldagaitza du Españak bere subiranotasun-erroa? Ekonomiaren krisia soziala eta politikoa ere bihurtua dugunetik, Españaren subiranotasunaren zuztarrak barrea eragingo liguke, negarra besterik ez balerigu geure zorigaitzean.

Zertan da, non dago subiranotasun horren marka burutentea Europak, Alemaniak, Troiak, merkatuek eta enparaeuk Españari, koplata eta eten barik, ezartzen dihardotsen arau, kontrol, murrizketa eta mozketen erauntsian?

Hori guztia da subiranotasunaren neurria, gordin-gordin; eta Raxoi, hemen oilar harroskoa, errekadista umegorri bat baino ez dute European.

Orain Arrasaten

## Benetan pisua galdu nahi duzu?

Rosa Sarabia doktoreak

konsulta berria ireki du:

**PronoKal<sup>®</sup> metodoa**

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

Esan baietz betiko

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.



Euskal Herria plaza 3. ARRASATE  
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko